



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2018ko otsailaren 22a

22. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Kontratu Publikoei buruzko Foru Lege proiektua. Aurkeztutako zuzenketak (2. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Kontratu Publikoei buruzko Foru Lege proiektua.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 130. artikulua ezarritakoa betez, agintzen da Kontratu publikoei buruzko Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen. Foru lege proiektua 2018ko irailaren 21eko 115. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko otsailaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

1. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI POPULARREKO

FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

1. artikuluko 1. apartatuko j) letra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Hitzarmen eta lotura bezalako terminoak ez dira, berez, negozio juridiko bereziak. Estatuko araudian, Osasunari buruzko apirilaren 25eko 14/1986 Lege Orokorraren 66. artikulua eta hurrengoek ez dituzte definitzen; ezta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bategineko 227. artikulua ere. Eta, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legearen 77. artikulua ere definitzen ez dituen arren, 78. artikulua, 2j) apartatuan, beharrezkotzat ezartzen du hitzarmenek jaso dezaten, besteak beste, hitzarmenaren izaera juridikoa eta alderdiak zer jurisdikzioaren pean gelditzen diren.

2. ZUZENKETA

GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA, ETA PODEMOS-AHAL DUGU TALDE PARLAMENTARIOEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

2. artikulua 3. apartatua aldatzeko zuzenketa.

2. artikulua. Kontratazio publikoaren printzipioak.

“3. Kontratazio publiko orotan, zeharkakotasunez ezarriko dira gizarte- eta ingurumen-irizpideak, berrikuntza sustatzekoak eta enpresa txikien, ertainen eta ekonomia sozialekoen partaidetza sustatzekoak.

Printzipio hori eraginkortasunez mamitzearren, kontratu publikoek nahitaez eduki beharko dituzte adjudikazio-irizpideak, bai eta gizarte- edo ingurumen-izaerako exekuzio-eskakizunak ere”.

Zioak: Zuzenketa honek oinarri du beharrezkoa dela funtsezko ideia bat helaraztea kontratu publikoen foru araudiari lotuta egonik Nafarroako sektore publikoa osatzen duten entitate guztiei, organo kontratu-egile guztiei eta plegu-idazketaren nahiz kontratu publikoen lizitazioaren ardura-dun diren persona guztiei; hots, gizarte- eta ingurumen-irizpideak nahitaez txertatu behar direla, zeharkakotasunez, kontratazio publiko guztian, halatan ardurakidetzatza sozialeko eta kontratazio publiko arduratsuko sistema bat tankeratuz.

Halaber, helburua da esplizitatzea ezen gizarte- eta ingurumen-irizpideen ezarpena ez dela etika edo justizia sozialeko kontu huts bat, baizik eta eraldakuntza-tresna ahaltsu eta sinergiko bat, arras efizientea bai interes publikoaren ikuspegitik, bai kontrataziora bideraturiko aurrekontu publikoaren efizientziaren eta arrazionalizazioaren ikuspegitik ere.

Gainera, zuzenbidearen, teknikaren eta kontuhartzaitzaren esparru batzuei begira, proposatzen da ezen gizarte-irizpideek kontratazio publikoaren printzipio zuzendari bat osatzen dutela, eta horiek aintzat hartuak izateak kontratu-prestazioaren eskaintza hobe bat ahalbidetzen duela, are ikuspegi ekonomikotik.

Egia bada ere lege proiektuak ildo horretako aipamen batzuk egiten dituela bere zioen azalpenean, haien balioa ez da artikuluetan bertan jasorik agertuz gero izanen luketena bezainbestekoa (are handiagoa, kontratazioaren printzipio zuzendari buruzkoan jasorik agertuz gero). Horrela jokatuz, merezi duten garrantzia aitortu ez ezik, beharrezkoa den kategoria juridikoa eman ere egiten zaie, zoritxarrez oraindik egiten diren kontrako interpretazioak eragotziko dituen.

3. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

2.3. artikulua aldatzeko zuzenketa. Beste lerrokada bat gehitzen zaio 2. artikuluko 3. apartatuari.

Horretarako, kontratazio publiko orotan, nahitaez txertatuko dira, zeharkakotasunez, gizarte-eta ingurumen-irizpideak, baldin eta, betiere, kontratuaren xedearekin zerikusirik badute, uste osoz jotzen baita irizpide horien txertaketak kalitate-prezio erlazio hobe bat ezartzen duela kontratuko prestazioan, bai eta funts publikoen erabileraren efizientzia handiago eta hobe ere. Halaber, kontratazio publikorako irispidea erraztuko zaie enpresa txiki eta ertainei, bai eta ekonomia sozialeko enpresei ere”.

Zioak: Paragrafo berriak lege berriaren helburuak zehazten ditu, Estatuko legeak egiten duen era berean, eta gainera espresuki jasotzen du ekonomia sozialeko enpresei sarbidea erraztea”.

4. ZUZENKETA

GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA, ETA PODEMOS-AHAL DUGU TALDE PARLAMENTARIOEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

2. artikulua 4. apartatua aldatzeko zuzenketa.

2. artikulua. Kontratazio publikoaren printzipioak.

“4. Kontratazio publiko orotan, nahitaez txertatuko dira, zeharkakotasunez, gizarte-, lan-eta ingurumen-irizpideak, baldin eta, betiere, kontratuaren xedearekin zerikusirik badute, uste osoz jotzen baita irizpide horien txertaketak kalitate-prezio erlazio hobe bat ezartzen duela kontratuko prestazioan, bai eta funts publikoen erabileraren efizientzia handiago eta hobe ere”.

Zioak: Administrazio publikoek, gizarte-eskaerei erantzuteko eta eskaera haiek asetzeko dituzten helburuak betetzearren, ondasun edo zerbitzuen ekoizpen edo kudeaketaren bitartez baliabide publikoak errealitatearen eraldakuntzarako ekintza bihurtuz bete ere, beren kontratazioetan ezin dituzte irizpide nagusiki ekonomizistak aplikatu. Horren orde, aipaturikoak bezalako beste beharrez eta helburu batzuei erantzun behar diete, hala nola, gizarte-, lan- eta ingurumen-arloko.

Kontratazio publikoa ez da jarduera ekonomiko huts bat; horregatik, abantaila ekonomikorik handienaren bilaketa askiestea ezinezkoa da, eta ez da zilegi. Horrekin batera, eta nagusiki, interes orokorra zerk osatzen duen aintzat hartu behar da, besteak beste enplegu-helburuak erdiesten laguntzen duten politika sozialean eragiteko daukan ahalmen itzela dela-eta.

Eta zioen azalpenean bertan jasotzen den bezala. II. Foru legearen helburuak: kontratazio publikoak zeregin garrantzitsua du, enplegu, kalitate –gehituko genduke– eta kohesio sozial handiagoak ekarriko dituen garapen ekonomikoko eredu bat sortzen lagundu beharko duen tresna den aldetik.

5. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

2. artikulua testua gehitzeko zuzenketa. 5 zenbakiko beste apartatu bat gehitzen da. Hona:

“Foru lege honen mendeko entitateek programatu egiten dute kontratazio publikoaren jardura, zeina aurrekontu-ekitaldi batean edo urte anitzeko epeetan garatuko baitute, eta alde aurretik jakinaraziko dute beren kontratazio-plana, beren aurrekontuen onespenezkin batera, eta hori, alde batera utzirik aurretiazko informazioaren iragarki aukerakoa, 87. artikuluan aurreikusia”.

Zioak: Kontratazioaren aurreikusgarritasunaren printzipioa gehitzen da, 5. apartatu gisa, halatan balizko lizitatzaileri informazioa eskaintzearren.

Horrek halaber mesede egiten die enpresa txiki eta ertainei.

6. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

2. artikuluari testua gehitzeko zuzenketa. Beste apartatu bat gehitzen da. Hona:

“6. Kontratazio-organoek neurri egokiak hartu beharko dituzte iruzurraren, faboritismoaren eta ustelkeriaren aurka borrokatuzeko, eta lizitazio-prozeduretan solr litezkeen interes-gatazkak prebenitu, detektatu eta eraginkortasunez konpontzeko, halatan saihestearren 2. apartatuaren araberrako edozein lehia-distortsio, eta horrez gain, bermatzearen prozeduraren gardentasuna eta hautagai eta lizitatzaille guztien tratu-berdintasuna.

Ildo horretan, interes-gatazkaren kontzeptuak barnean hartuko du, gutxienez ere, edozein egoera zeinetan kontratazio-organoaren zerbitzuko langileek, lizitazio-prozeduraren garapenean ere parte hartzen dutelarik edo prozedura horren emaitzan eragin dezaketelarik, zuzenean nahiz zeharka interes finantzario, ekonomiko edo pertsonal bat baitaukate, pentsaraz dezakeena arriskuan jartzen duela haien jokabide inpartzial eta lokabea lizitazio-prozeduraren testuinguruan.

Balitzko interes-gatazka baten berri duten pertsonak edo entitateek berehala jakinarazi beharko diote kontratazio-organoari”.

Zioak: Bigarren artikulua kontratazioaren printzipioak jasotzen ditu, baina ahaztu egin ditu ustelkeriaren aurkako borroka eta interes-gatazken prebentzioa. Asmoa da printzipio horiek 6. apartatuaren bidez eranstea.

7. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

7.1. j) artikulua aldatzeko zuzenketa. Testu berria:

“Gizarte-zerbitzuen ematea foru lege honetatik at dago entitate pribatuek emana denean, baldin eta zerbitzu-emate hori gauzatzen bada ez kontratu publikoak egin behar izanez, baizik eta, besteak beste, zerbitzu horien finantzaketa hutsaren bitartez edo adjudikazio-botereak aurretiaz ezarri dituen baldintzak betetzen dituzten entitate guztiei lizentziak edo baimenak emanez, mugarik eta

kuotarik gabe; eta sistema horrek bermatzen badu behar adinako publikitatea, eta errespetatzen baditu gardentasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak”.

Zioak: Kontuan hartzen ditu zerbitzu sozialak, hezkuntzakoak, kulturalak eta osasungintzakoak emateari begira irabazi asmorik gabeko entitateekin sinaturiko hitzarmenak, eta, bestalde, osasungintza-legeetako “lotura-hitzarmenak”. Halere, lehenbizikoa 36. artikulutik 38.era bitartekoetan arautzen da, kontratu erreserbatu gisa, eta bigarrenak definizio zehatzago bat behar du. Horregatik, bazter uzten da zerbitzu sozial, hezkuntzako, kultural eta osasungintzakoan aipamena, eta osasungintza-legeei loturiko salbuespenak zehazten dira. Apartatua ordeztu egiten da

8. ZUZENKETA

GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA, ETA PODEMOS-AHAL DUGU TALDE PARLAMENTARIOEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

8. artikulua 2. apartatuko c) letra aldatzeko zuzenketa.

8. artikulua. Ente instrumentalei egiten zaizkien enkarguak.

c) Haien jardueren %80 baino gehiago egitea kontrola egiten dien adjudikazio botereak edo adjudikazio botere horrek kontrolatutako beste pertsona juridiko batzuek ardurapean utzi dizkieten zereginen jardunean”.

Zioak: Nahiz eta “esleitu” hitza “ardurapean utzi” espresioaren zabaltasun eta zentzu berarekin ulertu beharko litzatekeen, proposatzen da otsailaren 26ko 2014/24/EB Zuzentarauak bere 12. artikuluan darabilen hizkera bera erabiltzea.

9. ZUZENKETA

GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA, ETA PODEMOS-AHAL DUGU TALDE PARLAMENTARIOEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

8. artikuluari 8.bis apartatu berria gehitzeko zuzenketa.

8. artikulua. Ente instrumentalei egiten zaizkien enkarguak.

“8. bis. Foru lege honen 7. artikuluko 1. apartuko h) letran aipatzen diren lankidetzahitzarmen esparrian, zilegi izanen da ente instrumentalak zer entitatearen mende dauden, entitate horren eskutik ekarriak izatea, akordio horietan ezarritako lankidetzaharremantetan erabiliak izateko. Lankidetzahitzarmen bakoitzak zehaztu egin beharko du zer interes publiko amankomunek justifikaturik sinatu den, bai eta egin beharreko jarduerak eta alderdietako bakoitzari dagokion ekarpena ere”.

Zioak: Kontratazio publikoa eraentzen duen araudiari jarraikiz, zerbitzu-emate bat ente instrumental bereki baten esku uzteak norbere zerbitzuei eginiko enkargu baten kontsiderazio bera dauka (“in house” prestazioak), baldin eta, betiere, enkargua egiten duen ente instrumentalaren gainean duen boterea parekoa bada bere zerbitzu berekien gain darabilenarena, eta kontratu publikoari buruzko araudian ezarritako gainerako baldintzak betetzen badira. Europako Parlamentuak eta Kontseiluak kontratazio publikoari buruz eta 2004/18/EE Zuzentaraua indargabetezko onetsiriko 2014ko otsailaren 26ko 2014/24/EB Zuzentarauko 34. “kontuan hartuzko”ak adierazten duen bezala, “kontratazio publikoko prozeduren aplikazio-esparrutik kanpo utzi behar dira” harako kasu haiek zeinetan “entitate juridiko batek adjudikazio-botere batzuentzako tresna edo zerbitzu tekniko bezala jarduten baitu, zuzenbide nazionalako kasuko xedapenei jarraikiz, behartuta egonik adjudikazio-botere horiengandik jasotako jarraibideak betetzera, bere exekuzioaren ordainsariaren gaineko eraginik izan gabe”.

Horregatik, adjudikazio-botere batek entitate instrumental bereki bati agindutako zerbitzua, 8. artikuluko honetan xedatuari jarraikiz egina, haren zerbitzu berekiek egindako lantzat jo beharko da, baita Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko Legearen (SPAJL) 47.2 artikuluan aipaturiko ondorioetarako ere. Arau horrek modua ematen du administrazio bat elkarlanean jardun dadin beste administrazio batekin, interes amankomuneko helburu baterako, horretarako bere bitartekoak, zerbitzuak eta baliabideak jarritz; horien artean, bere entitate instrumentalak.

Hori horrela, konprenitzen bada ere deskribaturiko egoera guztiz onargarria dela gaur egungo esparru juridikoaren barrenean (kontratazioari buruzko zuzentaraua, SPAJL, 6/2006 Foru Legea eta garapenerako arauak), komenigarritzat jotzen da lege-aldaketa hau sustatzea, kontu hau are argiago uztearren eta edozein interpretazio-desadostasun gertatzearen aukera uxatzearren.

10. ZUZENKETA

GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA, ETA PODEMOS-AHAL DUGU TALDE PARLAMENTARIOEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

9. artikuluari hirugarren idatz-zatia gehitzeko zuzenketa.

“3. Adjudikazio-organoetako, kudeaketa-organoetako eta administrazio-espeditenteen kontuhartzaitzaren ardura duten organoetako kide guztiek prestakuntza jasoko dute berdintasun, irisgarritasun eta ingurumen arloetan, legezko betebeharrak betetzen direla zaintze aldera”.

Zioak: Proposamena da adjudikazio-organoetako kide guztiei behar adinako prestakuntza ematea gizarte- eta ingurumen-alorretako irizpideetan, gizarte-klausulei dagokienez legezko betebeharrak egokiro aplikatu eta betetzeko.

11. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

16. artikulua aldatzeko zuzenketa. 2 c) apartatuaren bigarren paragrafoa aldatzen da:

“Urteko gutxieneko negozio bolumen exigitua ez da izan kontratuaren balio zenbatetsia halako bat eta erdi baino handiagoa...”.

Zioak: Proiektuak ezartzen du ezen, kaudimen ekonomikoaren ondorioetarako, negozio-bolumen exigitua ez dela izan kontratuaren balio zenbatetsia halako bi baino handiagoa. Enpresa txiki eta ertainei laguntzeak, ordea, muga hori jais-tea gomendagarri egiten du, oinarritzko legediaren ildo berean.

12. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

16.2. artikuluari testua gehitzeko zuzenketa. Beste apartatu bat gehitzen da. Hona:

“c) Urteko kontuak onestearen betebeharra mugaeguneratuta daukan azken ekitaldi ekonomikoaren itxiera-unean ondare garbia edo aktiboaren eta pasiboaren arteko ratioa berdina edo handiagoa izatea lizitazio-iragarkian ezarritakoa baino, edo prozeduran parte hartzeko gonbidapenean eta kontratuko pleguetan ezarritakoa baino. Aktiboa-

ren eta pasiboaren arteko ratioa kontuan hartu ahalko da baldin eta adjudikazio-botereak kontratazio-pleguetan zehazten baditu datu hori baloratzeko erabiliko diren metodo eta irizpideak. Metodo eta irizpide horiek gardenak, objektiboak eta ez-diskriminatzaileak beharko dute izan.

Apartatu honetako aurreko letretan jasotako bitartekoez gain, kontratazio-organoak exigitu ahalko du enpresaburuaren hornitzaileentzako batez besteko ordaintze-epeak ez dezala gainditu, galera-irabazien kontu laburtua aurkeztu ezin duen sozietate bat izanez gero, berankortasunari buruzko araudia kontuan harturik berariaz ezarzen den muga”.

Zioak: Beharrezkotzat jotzen da kaudimena frogatzeko bide sofistikuagoak ezartzea, kontratuaren bideragarritasuna bermatuko dutenak. 2. apartatuaren bi epigrafe, d) eta e), barruan sartzen dira.

13. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

16. artikularen 2. apartatuko c) letrari hirugarren paragrafo bat gehitzeko zuzenketa.

Kontratua lotetan banatzen denean, irizpide hau lote bakoitzari aplikatuko zaio. Hala ere, kontratazio-organoak ezarri ahalko du lizitzaileei eskatutako urteko gutxieneko negozio bolumena lote-multzoen arabera, adjudikazio-hartzaileari aldi berean exekutatu beharreko zenbait lote adjudikatu bazaizkio”.

Zioak: Argigarria, lotekako adjudikazioen kasuan.

14. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

16. artikuluari testua gehitzeko zuzenketa. 2. puntuan d) letra gehitzen da:

“d) Zinpeko adierazpen bat, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea betetzeari buruzkoa”.

Zioak: Lizitzaileek halaber frogatu behar dute berankortasun-arloko beren betebeharrak betetzen dituztela.

15. ZUZENKETA

GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA, ETA PODEMOS-AHAL DUGU TALDE PARLAMENTARIOEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

17. artikuluko 2. apartatuko b) letra aldatzeko zuzenketa.

17. artikulua. Lizitzailearen kaudimen tekniko edo profesionala.

b) Iraganean egindako hornidura nagusien edo zerbitzu edo lan nagusien zerrenda, beharrezkoa denean esperientzia maila nahikoa bermatzea. Zerrenda horretan adieraziko da haietako bakoitzaren zenbatekoa, data eta nor den haien hartzailea, publikoa zein pribatua. Zuzenbidean onargarria den edozein froga erantsiko da berme gisa”.

Zioak: Arauaren testua egokitzea 2014/24/EB Zuzentarauak agintzen duenera, zerbitzu-kontratuetan esperientzia frogatzeari dagokionez. Zuzentarauak aipatzen du “esperientzia-maila nahikoa, iraganean exekutaturiko kontratuei buruzko erreferentzia egokien bitartez demostratua”. Foru legearen testuak denboran murriztailea den irizpide bat ezartzen du –zeina ez baitago jasota Europako Batasunaren zuzentarauan–, azken hiru urteetara murrizten baitu egindako lanen esperientziaren frogaketa. Ez dago horretarako justifikazio taxuzkorik, eta lizitazioetarako sarbide askearen printzipioaren aurkako irizpide bat da. Horregatik proposatzen da, zuzentarauaren ildo beretik, denbora-murriztapen hori bertan behera uztea.

16. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

17. artikuluko 2. apartatuaren b) letra aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko da:

“b) Iraganean egindako hornidura nagusien edo zerbitzu edo lan nagusien zerrenda, beharrezkoa denean esperientzia maila nahikoa bermatzea. Zerrenda horretan adieraziko da haietako bakoitzaren zenbatekoa, data eta nor den haien hartzailea, publikoa zein pribatua. Zuzenbidean onargarria den edozein froga erantsiko da berme gisa”.

Zioak: Arauaren testua egokitzea 2014/24/EB Zuzentarauak agintzen duenera, zerbitzu-kontratuetan esperientzia frogatzeari dagokionez.

Zuzentarauak aipatzen du “esperientzia-maila nahikoa, iraganean exekutaturiko kontratuei buruzko erreferentzia egokien bitartez demostratua”. Foru legearen testuak denboran murriztailea den irizpide bat ezartzen du –zeina ez baitago jasota Europako Batasunaren zuzentarauan–, azken hiru urteetara murrizten baitu egindako lanen esperientziaren frogaketa. Ez dago horretarako justifikazio taxuzkorik, eta lizitazioetarako sarbide askearen printzipioaren aurkako irizpide bat da. Horregatik proposatzen da, zuzentarauaren ildo beretik, denbora-murriztapen hori bertan behera uztea.

17. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI POPULARREKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

17. artikuluko 2 b) apartatua aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

17. artikulua. Lizitatzailaren kaudimen tekniko edo profesionala.

2 b) “Iraganean egindako hornidura nagusien edo zerbitzu edo lan nagusien zerrenda, beharrezkoa denean esperientzia maila nahikoa bermatzea. Zerrenda horretan adieraziko da haietako bakoitzaren zenbatekoa, data eta nor den haien hartzailea, publikoa zein pribatua. Zuzenbidean onargarria den edozein froga erantsiko da berme gisa”.

Zioak: Arauaren testua egokitzea 2014/24/EB Zuzentarauak agintzen duenera, zerbitzu-kontratueta esperientzia frogatzeari dagokionez. Zuzentarauak aipatzen du “esperientzia-maila nahikoa, iraganean exekutaturiko kontratuei buruzko erreferentzia egokien bitartez demostratua”. Foru legearen testuak denboran murriztailea den irizpide bat ezartzen du –zeina ez baitago jasota Europako Batasunaren zuzentarauan–, azken hiru urteetara murrizten baitu egindako lanen esperientziaren frogaketa. Ez dago horretarako justifikazio taxuzkorik, eta lizitazioetarako sarbide askearen printzipioaren aurkako irizpide bat da. Horregatik proposatzen da, zuzentarauaren ildo beretik, denbora-murriztapen hori bertan behera uztea.

18. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

17. artikuluko 2b) apartatua aldatzeko zuzenketa.

2 b) “Iraganean egindako hornidura nagusien edo zerbitzu edo lan nagusien zerrenda, beharrezkoa denean esperientzia maila nahikoa bermatzea. Zerrenda horretan adieraziko da haietako bakoitzaren zenbatekoa, data eta nor den haien hartzailea, publikoa zein pribatua. Zuzenbidean onargarria den edozein froga erantsiko da berme gisa”.

Zioak: Arauaren testua egokitzea 2014/24/EB Zuzentarauak agintzen duenera, zerbitzu-kontratueta esperientzia frogatzeari dagokionez. Zuzentarauak aipatzen du “esperientzia-maila nahikoa, iraganean exekutaturiko kontratuei buruzko erreferentzia egokien bitartez demostratua”. Foru legearen testuak denboran murriztailea den irizpide bat ezartzen du –zeina ez baitago jasota Europako Batasunaren zuzentarauan–, azken hiru urteetara murrizten baitu egindako lanen esperientziaren frogaketa. Ez dago horretarako justifikazio taxuzkorik, eta lizitazioetarako sarbide askearen printzipioaren aurkako irizpide bat da. Horregatik proposatzen da, zuzentarauaren ildo beretik, denbora-murriztapen hori bertan behera uztea.

19. ZUZENKETA

GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA, ETA PODEMOS-AHAL DUGU TALDE PARLAMENTARIOEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

17. artikuluko 2. apartatuari beste letra bat gehitzeko zuzenketa.

17. artikulua. Lizitatzailaren kaudimen tekniko edo profesionala.

“I bis) Hornidura-kontratueta zilegi izanen da enpresei kaudimen tekniko zehatz bat eskatzea, hornidura-katearen kudeaketa-sistemen trazabilitatea ziurtatzekoa, halatan bermatzearen bete egiten direla Lanaren Nazioarteko Erakundearen oinarriko konbentzioak eta giza eskubideak. Horren ziurtapena exigitu ahalko da bai produktu teknologikoen erosketan, bai bidezko merkataritzaren merkatuan alternatiba bat daukaten produktuen erosketan”.

Zioak: Asmoa da berariaz seinalatzea administrazio publikoek duten betebeharra, giza eskubideak eta Lanaren Nazioarteko Erakundearen konbentzioak zorrotz errespetatuz ekoiztu edo fabrikatu diren hornidurak erostekoa; eta proposatzen da berariaz aipa daitezen bi alor zehatz: batetik, gatazkarik gabeko produktu teknologikoak, eta, bestetik, produktu jakin batzuen hornidura, halakoak non badauzkaten alternatibak eta egiaztagiriak, haien trazabilitatea eta baldintza duinetan ekoiztuak izana bermatzen dutenak, nola baitira bidezko merkataritzako produktuak.

Ohartarazi beharrekoa da aukera hori jadanik berariaz aintzat hartu dela estatu mailan, sektore publikoko kontratuei buruzko lege onetsi berriaren 89. artikuluan (kaudimen tekniko hornidura-kontratuetan).

20. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

17. artikuluko 2. apartatuko lehenengo paragrafoa aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“2. Lizitatzaillearen kaudimen tekniko edo profesionala frogatzeko...”

Zioak: Zuzenketa teknikoak.

21. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

22. artikuluko 1. apartatuaren b) letra aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko da:

“b) Zehapen irmoa jaso izana beren zintotasuna zalantzan jartzen duen arau-hauste astuna egiteagatik, honako gaietan: arlo profesionala, merkaturako diziplina, lehia faltsutzea, laneratztea, aukera berdintasuna, desgaituen diskriminazio eza edo atzerritarrei buruzko araudia. Edo arau-hauste oso astuna egiteagatik ingurumen, gizarte edo lan arloan, edo sexu jazarpenagatik edo sexuagatik jazarpenagatik, araudi indardunean ezarritakoarekin bat; edo arau-hauste oso astuna egiteagatik ingurumen arloan, araudi indardunean ezarritakoarekin bat, edo arau-hauste oso astuna egiteagatik gizarte edo lan arloan, abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Lan-arloko Arau-hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateginean ezarritakoaren arabera, bai eta aipatu testuaren

22.2 artikuluan aurreikusitako arau-hauste larriagatik ere”.

Zioak: Estatuko legearen testua hartu dugu, egokiagoa baita edukia ulertzeko, eta, gainera, kontratatzeko debekua ezartzen die bere zerbitzura lanean hasten diren langileen hasierako afiliazioa edo alta behar den moduan eta garaian eskatzeagatik zigortutako enpresei. Hala, ulertuko da arau-hauste bat egon dela ukitutako langile bakoitzagatik, abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren 22.2 artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

22. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

22. artikuluko 1. apartatuaren e) letra aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko da:

“e) Eguneraturik ez egotea indarreko xedapek ezartzen dituzten zerga arloko edo Gizarte Segurantzako betebeharretan, erregelamenduz ezartzen den moduan; 50 langile edo gehiagoko enpresen kasuan, langileen gutxienez ehuneko 2 ez izatea ezgaitasuna zuten pertsonak, azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak, Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haiek gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onesten duenak, 42. artikuluko 1. apartatuan ezarritakoaren arabera, erregelamenduz ezartzen den moduan; edota, 250 langile baino gehiagoko enpresen kasuan, ez betetzea Gizonen eta Emakumeen Berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoko 45. artikuluen araberrako berdintasun plan bat edukitzearen betebeharra”.

Zioak: Estatuko legearen testua hartu dugu, egokiagoa baita edukia ulertzeko.

23. ZUZENKETA

GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA, ETA PODEMOS-AHAL DUGU TALDE PARLAMENTARIOEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

22. artikuluko 1. apartatuko g) letra aldatzeko zuzenketa.

22. artikulua. Kontratatzeko debekuak.

“g) Kontratatu diren pertsonen buruz Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu izana Estatuko

Administrazio Orokorreko Goi Karguen Jardunari buruzko martxoaren 30eko 3/2015 Legearen 15.1 artikulua edo autonomia erkidegoetako kasuan kasuko arauak aipatzen duten urraketa, bete zuten karguaren eskumenekin zuzeneko zerikusia duten enpresa edo sozietate pribatuetan zerbitzuak ematen hasi direlako kargua utzi zuten egunaren ondoko bi urteetan. Kontratatzekeo debekuak iraunen du kontratatutako pertsona enpresaren antolaketaren barrenean dagoen bitartean, bi urtez gehienez, goi kargua uzten duenetik kontaktzen hasita”.

Zioak: Arau-erreferentziaren eguneraketa.

24. ZUZENKETA

GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA, ETA PODEMOS-AHAL DUGU TALDE PARLAMENTARIOEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

22. artikuluko 1. apartatuari beste letra bat, l bis), gehitzeko zuzenketa.

22. artikulua. Kontratatzekeo debekuak.

“l bis) 250 langile baino gehiagoko enpresen kasuan, ez betetzea Gizonen eta Emakumeen berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoko 45. artikulua araberako berdintasun plan bat edukitzearen betebeharra.

Zioak: Sektore Publikoko Kontratuari buruzko 9/2017 Legearen 71. artikuluan jasota.

25. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

23. artikuluari beste apartatu bat –5 bis– gehitzeko zuzenketa.

“5. bis. Kontratazio-organoek neurri egokiak hartu beharko dituzte iruzurraren, faboritismoaren eta ustelkeriaren aurka borrokatzekeo, eta lizitazio-prozeduretan sor litezkeen interes-gatazkak prebenitu, detektatu eta eraginkortasunez konpontzekeo, halatan saihestearren edozein lehia-distortsio, eta horrez gain, bermatzearen prozeduraren gardentasuna eta hautagai eta lizitazio-tzaile guztien tratu-berdintasuna.

Illo horretan, interes-gatazkaren kontzeptuak barnean hartuko du, gutxienez ere, edozein egoera zeinetan kontratazio-organoaren zerbitzuko langileek, lizitazio-prozeduraren garapenean ere

parte hartzen dutelarik edo prozedura horren emaitzan eragin dezaketelarik, zuzenean nahiz zeharka interes finantzario, ekonomiko edo pertsonal bat baitaukate, pentsaraz dezakeena arriskuan jartzen duela haien jokabide inpartzial eta lokabea lizitazio-prozeduraren testuinguruan.

Balitzko interes-gatazka baten berri duten pertsonak edo entitateek berehala jakinarazi beharko diote kontratazio-organoari”.

Zioak: Faboritismoaren aurkako neurriak hobetzea eta “interes gatazka” kontzeptua gehitzea.

26. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

28. artikulua aldatzeko zuzenketa. 28. artikuluko 2. apartatuaren amaieran esaldi bat gehitzea:

“ondasun higiezin bat xede duena”

Zioak: Testua bat dator Sektore Publikoko Kontratuari buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 16. artikuluan jasotako “obra-kontratuaren” definizioarekin. Lege horren bidez Espainiako ordenamendu juridikora aldatzen baitira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/UE eta 2014/24/EB Zuzentarauak, 2014ko otsailaren 26koak.

27. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

29. artikulua aldatzeko zuzenketa. 29. artikulua 1. apartatuari “edo ondasun higigarriak”:

“1. Hornidura-kontratua xede hau duena da: produktuak edo ondasun higigarriak erostea, haien errentamendu finantzarioa, haien epekako errentamendu edo salmenta, erosteko aukerarekin nahiz gabe. Era berean, hornidura-kontratutzat hartuko da xede bezala duena produktuen edo ondasun higigarrien hornidura eta, osagarri gisa, muntatze- eta instalatze-obra egitea.

Zioak: Testua bat dator Sektore Publikoko Kontratuari buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 16. artikuluan jasotako “hornidura-kontratuaren” definizioarekin. Lege horren bidez Espainiako ordenamendu juridikora aldatzen baitira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/UE eta 2014/24/EB Zuzentarauak, 2014ko otsailaren 26koak.

28. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

29.2. artikuluari testua gehitzeko zuzenketa. Letra berri bat erantsi da:

“d) Xedetzat lehen mailako energia edo energia eraldatua eskuratzea daukatenak”.

Zioak: Proiektuak ez du hornidura-kontratuaren xedetzat jasotzen energiaren eskuratzea. 2. apartatuari d) letra gehitzen zaio.

29. ZUZENKETA**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

31. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

“1. Herri-lanak emateko kontratua obra kontratuaren xede bera duena da, baina honela ordaintzen dena: obra ustiatzeko eskubidearekin soilik, edo eskubide hori gehi prezio bat emanez.

2. Horretaz gain, kontratuak ondoko edukia izan ahalko du:

a) Obraren egokitzapena, zaharberritzea eta modernizazioa zerbitzuak behar bezala emateko behar diren ezaugarri tekniko eta funtzionaletara egokitzeko edota bertan egiten diren jarduera ekonomikoen euskarri material izateko.

b) Behar diren berriztapenak eta konponketa handiak egitea, obra bakoitzak betiere elementu egokiak eduki ditzan bertan egiten diren zerbitzu eta jarduerak behar bezala bete ahal izateko, eskakizun ekonomikoen eta gizarteko eskarien arabera.

3. Obrak emateko kontratuak aurreikusi ahalko du, halaber, emakidadunak betebeharra izatea obra nagusiaren osagarri diren edo harekin lotura duten obrak proiektatu, exekutatu, mantendu, ordeztu eta konpontzeko, beharrezkoak badira obra nagusiak bere eraikuntzaren xede erabakigarria betetzeko eta funtzionamendu eta ustiapen hobea ahalbidetzeko, bai eta aurreikusten diren eta obra horiekin zerikusia duten ingurumen alorreko jarduketak egiteko ere. Lotura duten obrak edo obra osagarriak ustiatu eta haietatik aprobezkatu ekonomikoa atera ahal izatekotan, horiek emakidadunari egokituko zaizkio obra nagusiaren ustiapenarekin batera, kasuko pleguek zehazturiko moduan.

4. Artikulu honetako lehen apartatuan aipatzen den obren ustiapenerako eskubideak ekarri behar du emakidadunari eragiketa-arriskuaren transferentzia egitea obren ustiapenean. Eragiketa-arriskuak bere baitan hartzen ditu eskari-arriskua eta hornidura-arriskua, edo biak batera. Eskari-arriskua da kontratuaren xede diren obren edo zerbitzuen eskari errealetik datorrena, eta hornidura-arriskua da kontratuaren xede obren edo zerbitzuen hornidurari buruzkoa, bereziki zerbitzuen prestazioa eskariari ez egokitzeko arriskua.

Ulerituko da emakidadun batek eragiketa-arrisku bat bere gain hartzen duela bermatuta ez dagoenean, funtzionamendu baldintza normaletan, emakidaren xede diren obren ustiapenaren ondorioz egindako inbertsioak berreskuratuko dituenik ez eta egindako gastuak estaliko dituenik. Emakidadunari transferitutako arriskuen zatiak merkatuko ziurgabetasun errealean eraginpean jartzeari ekarri behar du eta, hala, emakidadunak izan dezakeen balizko galera oro ez da besterik gabe izenezkoa edo baztergarria izanen”.

Zioak: Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 14. artikuluan jasotako obrak emateko kontratuaren definizioarekin bat dator; definizio hori askoz ere osatuagoa da, eta gainera bertan adierazten da zer diren eskari-arriskua eta eragiketa-arriskua”.

30. ZUZENKETA**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

32. artikulua aldatzeko zuzenketa. 32. artikuluko paragrafoaren amaieran esaldi bat gehitzea:

“... aurreko artikulua 4. apartatuan adierazitako moduan”:

Zioak: “Eragiketa-arrisku”aren definizioa 31. artikuluan jasotzea onartzen bada, Nafarroako Alderdi Sozialistak aurkeztutako zuzenketari jarraituz.

31. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

35. artikuluari testua gehitzeko zuzenketa. 5. apartatu gisa honako hau txertatu:

Baldin eta 4.1 e) artikuluko lehen erregelaren zentzuan administrazio publikoei lotuak edo haien mendekoak diren entitateek eginiko jarduerak badira, administrazio-bidean aurkaratu ahalko dira

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoari jarraikiz, entitate kontratatzailea atxikita dagoen edota haren zaintza dagokion departamentu, organo, ente edo erakundearen titularraren aurrean. Entitate kontratatzailea administrazio bati baino gehiagori lotuta badago, organo eskuduna izanen da kontrolaren edo partaidetzaren gehien-goia duenarena.

Zioak: Asmoa da administrazioarekiko auzien jurisdikziorako sarbidea ezartzea entitate instrumentalen kasuan, halako moldez non herritarrek berme hori eskura izanen duten, baita entitate instrumentalen kasuan ere. Gainera, era horretan proiektua egokitu egiten da administrazio-prozedura erkidearen gaineko oinarritzko eskumenera.

32. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI POPULARREKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

36. artikuluko 4. eta 5. idatz-zatiak kentzeko zuzenketa.

Zioak: Foru legeak taxuz susta dezake arrazoi sozialengatiko enplegua, baina ez "hilik jaiotzen" diren xedapenen bitartez, zeren eta bete ezinokoa baitira praktikan. Foru legearen aurreproiektuan jasotzen den % 6aren erreserba jaso da jadanik zenbait plegutan gaur egungo arauarekin, eta problematika handiak sortu ditu, praktikan aplikazina izateagatik.

Kontratazio Batzordeak berak halaxe adierazi du, eta haren proposamenari ez zaio jaramonik egin.

33. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

36. artikulua aldatzeko zuzenketa. 36. artikuluko 1. apartatuaren bigarren lerrokadaren amaieran esaldi bat gehitzea:

"Halaber, haien estatutuetan edo fundatze-erabakietan behartuko da, entitatea desegitearen kasurako, hartzekodunentzako likidazioaren ondorengo gerakina gizarte-helburuetarako izan dadin".

Zioak: Arrazoi sozialengatik erreserbatutako kontratuak direnez, beharrezkotzat jotzen da enplegu zentro berezien estatutu edo fundazio-akordioetan jasotzea irabaziak oso-osorik bideratuko direla desgaitasuna duen pertsonentzako lan-

aukerak sortzera eta entitatearen etekin edo gerakin oro enplegu zentro bereziaren berariazko xedeetarako erabiliko dela.

34. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

36. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

"36. artikulua. Arrazoi sozialengatik erreserbatutako kontratuak.

1. Adjudikazio botereek gizarte-ekimeneko enplegu zentro bereziei edo laneratze-enpresei erreserbatu beharko diete zerbitzuetarako, obretarako, horniduretarako eta zerbitzu-emakidarako kontratuen adjudikaziorako prozeduretan parte hartzeko aukera.

Foru lege honen aplikazioaren ondorioetarako, ekimen sozialeko enplegu zentro berezizat jotzen dira irabazi-asmorik gabeko entitate baten edo batzuen (elkartek, fundazioak edo ekonomia sozialeko bestelako entitateak) zuzeneko partaidetza edo sustapena %90etik gorakoa dutenak, zeinek betebeharrak gisa beren gain hartu baitute, estatutuetan edo fundatze-erabakietan, beren etekin guztiak berrinbertitzea desgaitasuna dutenentzako enplegu-aukerak sortzeko.

2. Zilegi izanen da erreserbak kontratuaren xede osoari eragitea nahiz haren sorta bati edo batzuei bakarrik. Betiere beharrezkoa izanen da prestazioak entitate horien berezitasunei egokitzeta.

Erreserba egin ahalko da 1. apartatuko entitate-tipologia guztietarako nahiz haietako baten baterako.

3. Kontratazio zentralizatuaren xede diren sektoreetan, kontratazio organoek horretatik kanpo kontratatzen ahalko dute, kontratua erreserbatzeko hautua egiten badute, baldin eta kontratazio zentralizatuko prozedurako pleguetan salbuespen hori aurreikusit baldin bada.

4. Erreserbatutako kontratuen zenbatekoa aurreko aurrekontu-ekitaldian adjudikaturiko kontratuen zenbatekoaren % 7tik % 10era bitartekoa izanen da, gutxienez ere.

5. Foru lege honen mendeko entitate guztiek ezarri eta argitaratu beharko dute zein diren erreserbako % 7tik % 10erainoko betetzera iristeko baldintzak, ekitaldi bakoitzean adjudikatzeko aurreikuspena duten kontratuekin, eta sortaka banatuz erreserbatzeko aukera aztertu ondoren.

Betetze hori ezin erdietsiko dela aurreikusten bada, erreserba horien berariazko helburuak lortzeko alternatibak ezarri beharko dituzte. Horrez gain, urtero argitaratu beharko dute erreserbatu ziren kontratu adjudikatuen guztizko zenbatekoa.

Alternatiben artean, zilegi izanen da kontratista nagusiari honako baldintzetako bat exigitzea, erreserba egiterik ez dagoen kontratuetan:

– Gizarte-ekimeneko enplegu-zentro berezi batekin edo laneratze-enpresa batekin azpikontrata ditzala horrelako enpresek ematen dituzten zerbitzu osagarriak.

– Langileak ordeztzeko edo langile gehiago kontratatzeko beharra egonez gero, froga dezala enplegu-zerbitzuei eta/edo enplegu-agentziei edo Gizarte Eskubideetako Departamentuari enplegu-eskaintza bidali diela, lanpostu horiek pertsona desgaituekin edo gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonekin betetzeko, gizarte-ekimeneko enplegu-zentro berezia edo laneratze-enpresa izatearen arabera.

– Desgaituentzako edo gizarte-bazterketako egoeran daudenentzako lan-praktikaldiak antola ditzala.

6. Lizitazio-iragarkian aipatu beharko da artikuluhonetan jasotzen den gizarte-arrazoiengatik kontratu-erreserba.

7. Baldin eta, kontratu erreserbatu baten prozedura bete ondoren, inolako eskaintzarik aurkeztu ez bada, edo eskaintzak egokiak ez badira, kontratua berriz lizitatzen ahalko da hasieran aurreikusitako erreserba egin gabe, ez badira funtsean aldatzen kontratuaren hasierako baldintzak. Dena den, kontratu horren zenbatekoa aintzat hartuko da artikuluhonen 4. apartatuan ezarritako portzentajea osatzeari dagokionez”.

Zioak: 1. puntuaren testutik kentzea irabazi asmorik gabeko enplegu-zentro berezientzako erreserba, halako moduz non erreserba hori gizarte-ekimeneko enplegu-zentro berezietarako edo laneratze-enpresetarako baizik izanen ez den, jotzen baita ezen gizarte-ekimeneko enplegu-zentro berezien definizioan bertan, idatzirik dagoen bezala, jadanik bermatzen dela irabazi-asmorik eza, horrela ziurtatuz bai izaera soziala, bai enplegu-zentro berezien irabazirik eza. Eta hori ez da gertatzen irabazi-asmorik ezaren beharra baizik ez bada adierazten. Irabazi-asmorik gabeko enplegu-zentro bereziei dagokien aldaketa hori 5. puntuaren ere egin beharra dago.

4. puntuaren, kontratu erreserbatuen zenbatekoa aldatzea, % 6koa izan ordez % 7tik % 10erainokoa izateko gutxienez ere, Sektore Publikoko Kon-

tratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeari egokitzeko. Portzentaje hori 5. puntuaren ere aldatu beharko da.

35. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

36. artikulua aldatzeko zuzenketa. 1. apartatu-ko lehen paragrafoari honakoa gehitzea:

“Horretarako baldintza izanen da enplegu zentro berezietako edo laneratze-enpresetako langile desgaituen edo gizarte-bazterketako egoeran dauden langileen portzentajea izatea haien erreferentziazko araudian jasota dagoena, eta, betiere, 100eko 30ekoa, gutxienez”.

Zioak: Gizarte ekimeneko zentroeiei, enplegu zentro bereziei edo laneratze enpresei erreserbatutako kontratuen desitxuratzea ekiditearren, proposatzen da beharrezkoa izan dadila gutxienez ere haien langileen %30ek izaera hori edukitzea.

36. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

36.1. artikulua aldatzeko zuzenketa. 36. artikuluko 1. puntuaren amaieran esaldi bat gehitzea:

36. artikulua. Arrazoi sozialengatik erreserbatutako kontratuak.

1. Adjudikazio botereek irabazi-asmorik gabeko enplegu-zentro bereziei edo gizarte-ekimeneko enplegu zentro bereziei edo laneratze-enpresei erreserbatu beharko diete zerbitzuetarako, obretarako, horniduretarako eta zerbitzu-emakidarako kontratuen adjudikaziorako prozeduretan parte hartzeko aukera.

Foru lege honen aplikazioaren ondorioetarako, ekimen sozialeko enplegu zentro berezizat jotzen dira irabazi-asmorik gabeko entitate pribatu baten edo batzuen (elkartek, fundazioak edo ekonomia sozialeko bestelako entitateak) zuzeneko partaidetza edo sustapena %90 baino gehiagokoa dutenak, zeinek betebeharrak gisa beren gain hartu baitute, estatutuaren edo fundatze-erabakietan, beren etekin guztiak berrinbertitzea desgaitasuna dutenentzako enplegu-aukerak sortzeko. “Halaber, haien estatutuaren edo fundatze-erabakietan behartuko da, entitatea desgaitasun kasurako, hartzekodunentzako likidazioaren ondorengo gerakina gizarte-helburuetarako izan dadin”.

Zioak: Desgaitasunaren inguruan lanean diharduten kolektiboek planteaturiko aldaketa-proposamena entzun ondoren, interesekotzat jotzen dugu azken esaldi hori gehitzea”.

37. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

36. artikuluari beste hiru apartatu berri gehitzeko zuzenketa.

36. artikulua. Arrazoi sozialengatik erreserbatutako kontratuak.

“8. Kontratu erreserbatuetan, non eta salbuespen justifikaturik ez dagoen, behin-behineko eta behin betiko bermeak eratzetik salbuetsiko da.

9. Foru Komunitateko sektore publikoaren parte diren entitate guztiak behartuta egonen dira urtero argitaratzera enplegu zentro bereziei eta laneratze enpresei erreserbatutako kontratuen zerrenda eta kontratu horien gutzizko zenbatekoa.

10. Enplegu zentro bereziei eta laneratze enpresei erreserbatutako kontratuen izaeragatik eta helburuagatik, baimendutako gehieneko azpikontratazioa kontratuaren prezioaren % 20koa izanen da”.

Zioak: 8. apartatu berriarekin, halaber proposatzen da bertan behera uztea, kontratu erreserbatutako lizitatu eta adjudikatzeko prozeduretan, behin-behineko eta behin betiko bermeak eratzearen betebeharrak. Asmoa da arau hori orokor moduan ezartzea erreserbatutako kontratuetarako, haiek dauzkaten ezaugarri bereziengatik eta entitate onuradunengatik. Lege proiektuak jadanik modu orokorrean aurreikusten du, 67.1 artikuluan, behin-behineko bermeetarako, eta posibilitate modura, 67.2 artikuluan, behin betiko bermeetarako.

Neurri hori kontsekuentea da entitate horien helburu sozialarekin eta kontratuaren ez-betezteagatik balizko erantzukizunei dagokien kontratu horiek dakarten arrisku deusezarekin. Asmoa da, azken batean, entitate horiei kontratazioak eskuratzeko bidea erraztea, haien helburua eta onura soziala indartzea, eta haien zama finantzario bat edo gastu eragingabea bat saihestea.

9. apartatu berria uztarturik dago lege proiektuaren 36.5 artikuluekin, zeinean betebeharrak

jakin batzuk ezartzen baitira, hala nola “ezarri eta argitaratu beharko dute zein diren erreserbako %6 hori betetzera iristeko baldintzak, ekitaldi bakoitzean adjudikatzeko aurreikuspena duten kontratuekin, eta sortaka banatuz erreserbatzeko aukera aztertu ondoren”. Hala ere, askoz ere praktikoa-koa eta eraginkorra izanen litzateke horrez gain Foru Komunitateko sektore publikoko entitate guztiari betebeharrak bezala exigitzea urtero argitara ditzaten kontratu erreserbatuen bidez adjudikatutako zerrenda eta zenbatekoa. Nabarmengarria da foru legeak berak exigitzen duela % 6ko erreserba, baina ez dagoela daturik (ez fidagarririk, ez fidagaitzik) entitate publiko bakoitzak egiazki adjudikatzen duen erreserbari buruz. Beraz, proposatzen dugu betebeharrak gisa ezar dadila urtero zenbatu eta argitaratzea kontratu erreserbatuen zerrenda eta aurrekontu-bolumena, ezen neurri hori bai, oso eraginkorra izanen baita, eta, gainera, modua emanen digu kontratu erreserbatuen garrantzia ebaluatzeko, etengabeko hobekuntzako neurriak ezartzeko eta haien iraunkortasuna bermatzeko.

10. apartatu berriari dagokionez, helburua da enplegu zentro berezi edo laneratze enpresa ez diren entitate edo enpresekiko azpikontratazioa eragozteko.

Egoera hori (irabazi-asmodun merkataritza-enpresa batekin kontratu erreserbatu baten portzentaje handi bat azpikontratatzea) jadanik gertatua da kontratazio publiko batzuetan, eta kontratu erreserbatuaren izaera bera hutsaldu egiten du, ezen kontratua exekutatu edo gauzatu behar duten pertsonak betiere izan behar dute desgaituak, edo bazterketa-egoera nahiz -arriskuan dauden pertsonak, kontuan harturik nola dauden lege definituta eta ezaugarrituta entitate horiek.

38. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

37 eta 38. artikuluen ordena aldatzeko zuzenketa, halako moduz non honela agertuko baitira:

– 37 artikulua. Osasungintzaren, gizartearen, kulturaren eta hezkuntzaren arloetan erreserbatutako kontratuak.

– 38 artikulua. Arau bereziak, osasungintzaren, gizartearen, kulturaren eta hezkuntzaren arloetan erreserbatutako kontratuetarakoak.

Zioak: Arrazoizkoagoa dirudi artikuluen ordena aldatzea, halako moduz non lehenbizi adieraziko baita zer kontratu mota gorde daitezke-

en aipatu alorretan eta ondoren ezarriko baitira adjudikazio-arauak.

39. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

38. artikuluari bi apartatu berri gehitzeko zuzenketa.

38. artikulua. Osasungintzaren, gizartearen, kulturaren eta hezkuntzaren arloetan erreserbatu-riko kontratuak.

“4. Osasungintzaren, gizartearen, kulturaren eta hezkuntzaren arloetan erreserbatu-riko kontratuen zenbatekoa, gutxienez ere, aurreko aurrekontu-ekitaldian adjudikaturiko kontratuen zenbatekoaren % 1ekoa izanen da, gutxienez ere.

5. Artikulu honi jarraiturik erreserbatu-riko kontratuen onuradun izan beharko dute gizarte ekonomiko, ekonomia solidarioko eta irabazi asmorik gabeko entitateek, baldin eta sarturik badaude honako lege hauetan adierazitako figura juridiko sozial edo sozietarioren batean: 5/2011 Legea, martxoaren 29koa, Ekonomia Sozialari buruzkoa; 2/2011 Legea, martxoaren 4koa, Ekonomia Iraunkorrari buruzkoa; 1/2002 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, elkartzeko eskubidea arautzen duena; edo 50/2002 Legea, abenduaren 26koa, Fundazioei buruzkoa”.

Zioak: Lehenik eta behin, proposatzen da aipaturiko arloetan kontratu erreserbatuen gutxieneko portzentaje bat finkatzea, ezarritako baldintzak betetzen dituzten entitateentzat. Horrela, xedapena bete dadin lortu nahi da, eta enplegu zentro berezietan eta laneratze enpresei erreserbatu-riko kontratuekin gertatzen den bezala, gutxieneko zenbateko bat finkatu, baxua eta erlatiboa kasu honetan, baina agindu argi bat paratzen duena, bai eta helburu neurgarriak ere.

Artikuluaren tituluak iradokitzen du kontratu-xedearen arlo sektoriala edo jarduera-arloa dela muntadunena, baina ez da hala: esanguratsuena, eta lege honen berritasun garrantzitsuetako bat, irabazi-asmorik gabekoak eta ekonomia sozial eta solidariokoak diren entitateentzako erreserba da, eta zabalagotu egiten da erreserba-posibilitatea bestelako entitate batzuetara, jadanik klasikoa den enplegu zentro berezientzako eta laneratze enpresentzako erreserbaz gain. Xedapen honek

jaso egiten du 2014/24/EB Zuzentarauko 77. artikuluan eta estatuko Sektore Publikoko Kontratuen Lege berria jadanik ezarritakoa.

Zuzentarauaz eginiko aipu hau ez da kasualitatezkoa; izan ere, 2014an onetsi zenetik, administrazio publiko askok aplikatu dute erreserba-forma hau. Baina praktikak erakutsi digu zalantza asko daudela entitate potentzialki onuradunak zein diren zehazterakoan. Horrenbestez, oinarritzakoa da kontratazio-organoei bermea eta ziurtasun juridikoa ematea.

Hori horrela, oso egoki eta argigarri deritzogu kontratu-erreserba horren entitate onuradun potentzialen tipologia zein diren zehaztu, esplizitatu eta argitzeari, kontratazio-teknikariei horren aplikazioa erraztuz eta ez dudak sortuz, edo okerragoa litzatekeena saihestuz: hori ez aplikatzea ezjakintasunagatik edo errekurtsoen beldur.

40. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

38. bis artikulua berri bat gehitzeko zuzenketa.

“38. bis artikulua. Gizarte zerbitzuen kontratuak.

1. Gizarte-zerbitzuen adjudikazioa egin ahalko da kontratu publikoei buruzko araudi honi jarraituz edo kontratu-izaeraz bestelako sistemen bitartez.

2. Haien adjudikazioa kontratazio publikoko prozeduraren bitartez egiten denean, adjudikazio-botereek aintzat hartuko dute solidaritate printzipioa eta, halaber, beharrezkoa dela bermatuta egon daitezen zerbitzuen kalitate, jarraitutasun, irisgarritasun, ordaingarritasun, eskuragarritasun eta erabatekotasuna, erabiltzaile-kategoria ezberdinen beharrezko zehatzak, talde beharrezkoak eta ahulek dituztenak barne, erabiltzaile eta langileen inplikazio eta partaidetza, eta berrikuntza. Horrez gain, xedatu ahalko dute zerbitzu-hornitzailea hauta dadila kalitate-prezio erlaziorik oneneko eskaintzan oinarriturik, eta gizarte-, kalitate- eta iraunkortasun-irizpideak kontuan harturik.

3. Zilegi izanen da ekonomia sozialeko, ekonomia solidarioko eta irabazi asmorik gabeko entitatei erreserbatzea gizarte-zerbitzuetarako edo horien sorta jakinetarako kontratu publikoen adjudikazioan parte hartzeko aukera, foru lege honetan

ko 37 eta 38. artikuluetan ezarritako prozedurei jarraikiz.

4. Gainera, botere publikoek zerbitzu horiek halako moduan antolatu ahalko dituzte non ez den beharrezkoa izanen kontratu publikoak egitea; adibidez, zerbitzu horien finantzaketa soilaren bitartez, irabazi asmorik gabeko eragile aurretiaz kreditatuekin berariaz itunduz, hitzarmen bitartez edo adjudikazio-botereak aurretiaz ezarritako baldintzak betetzen dituzten eragile ekonomikoei lizentziak edo baimenak emanaz”.

Zioak: Europako Batasuneko 2014/24/EB Zuzentarauaren transposizioa egitea proposatzen da, eta bertan gizarte-zerbitzuetarako kontratuei buruz egiten den arauketa berariazkoa txertatzea, bere horretan, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Foru Lege proiektuaren hutsune gisa har daitekeena betetzearren.

Egia izanik ere 7. artikuluko j) letrak adierazten duela kontratuei buruzko legearen aplikaziotik kanpo daudela “Nafarroako Administrazio Publikoek irabazi-asmorik gabeko entitateekin egiten dituzten itunak, zeharka kudeatzekoak pertsonentzako gizarte-, kultura-, hezkuntza- eta osasun-zerbitzuen ematea”, hori bezainbesteko egia da legearen aplikaziotik kanpo uzte hori itunetarako eta hitzarmenetarako adierazten dela soilik, eta ez Europar Batasuneko Zuzentaruari eta estatuko Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legean baiki jasota agertzen diren beste formula batzuetarako.

Kontratuei buruzko Foru Legearen proiektuak hutsune bat agertzen du gizarte-zerbitzuen kontratazioaren arauketan. Hutsune horrek esan nahi du bizkarra ematen zaiela 2014/24/EB Zuzentarauak aurreikusten dituen sistema berri ezberdinei. Horrez gain, kontuan hartu behar da Itun Sozialei buruzko Foru Legearen proiektua oso aurreratua dagoela, eta horri begira oinarrizkotzat jo litekeela kontratu publikoei buruzko foru lege honetan berariazko aipamen bat egitea, halatan zuzenbidezko berme eta estaldura handiagoa eskainiko bailizateke.

Horrela, bada, guztiz baitezpadakotzat jo behar da arauketa hori legearen testuan txertatzea, bai zuzentaruaren egiazko transposizioa egiteko, bai kontratazio-organoei bermeak eman eta beharrik gabeko ziurgabetasun juridiko bat saihesteko; bai eta gizarte-zerbitzuak emateko sistema ezberdinen arauketan sistema homogeneoak ezartzeko ere.

Aintzat harturik berrikuntza bat dela gizarte-zerbitzuen kontratuen berariazko arauketa, bai eta, are, sistema ezarriarekiko haustura halako

bat, laburki justifikatzera goaz zuzenketa honetan proposaturiko arauketa, ezen Europar Batasuneko zuzentaruak ahalbidetzen dute gizarte-zerbitzuak adjudikatu eta ematea kontratu publikorik egiteko beharrik gabe.

2014/24/EB Zuzentaruak 4.d) artikuluan arautzen du ezen gizarte-zerbitzuetarako kontratuak eta XIV. Eranskinean aipatutako berariazko beste batzuk, baldin eta balio zenbatetsia 750.000 euro baino gutxiagokoa badute, arauketa harmonizatuaren gutxienekoaren azpitik daudela. Eta horrek esan nahi du –Zuzentaruari berari jarraituz betiere– botere publikoak aske direla beren adjudikazio-sistema erabakitzeko, barne harturik ituntzea, baliabide berekien bidezko zerbitzu-ematea, erreserba, eta are kontratu publikoen araudiaren bazterketa bera ere.

2014/24/EB Zuzentaruak, bere III. tituluan (kontratazio-araubide partikularrak), I. kapituluan (gizarte-zerbitzuak eta bestelako zerbitzu zehatzak), 74. artikulutik 77.era bitartekoak darabiltza gizarte-zerbitzuetarako eta bestelako zerbitzu zehatz batzuetarako berariazko araubidea ezartzeko.

Zuzentaruak berak esplikatzeko du, bere “kontuan hartuzko” zenbaitetan, berariazko tratamendua eta horren oinarria:

“(6) Gogora ekarri behar da, halaber, estatu kideak zerbitzu-ematea antolatzeko aske direla; dela nahitaezko gizarte-zerbitzuen ematea, dela beste edozein zerbitzuren, hala nola posta-zerbitzuak, interes ekonomiko orokorreko zerbitzuak edo interes orokorreko zerbitzu ez-ekonomikoak; edo bien konbinazio batena. Komeni da argi uztea interes ekonomikoko zerbitzu ez-ekonomikoak zuzentaru honen aplikazio-esparrutik kanpo utzi behar direla”.

“(114) Zenbait zerbitzu-kategoriak, pertsonentzako zerbitzu gisa ezagunak direnek zehazki, hala nola zenbait gizarte-, osasungintza- eta hezkuntza-zerbitzuk, beren izaera bera dela-eta, mugaz gaindiko irismen urrikoak izaten segitzen dute. Zerbitzu horiek eman ohi dira estatu kide batetik bestera tradizio kultural ezberdinengatik asko aldatzen den testuinguru berezi batean. Araubide berezi bat ezarri behar da zerbitzu horietarako kontratu publikoetarako, beste zerbitzu batzuei aplikatzen zaiena baino altuagoa den gutxieneko batekin”.

Pertsonentzako zerbitzuek, gutxieneko horren azpiko balioak dauzkatenean, normalki ez dute interesik izaten beste estatu kide batzuetako hornitzaileentzat, non eta kontrakoaren zantzu zehatzik ez dagoen, hala nola Europar Batasunak

mugaz gaindiko proiektuak finantzatzen dituenen.

Estatu kideek eta botere publikoek aske izaten segitzen dute beraiek zerbitzu horiek emateko edo gizarte-zerbitzuak halako moduan antolatzeke non ez den beharrezkoa izanen kontratu publikorik egitea; adibidez, zerbitzu horien finantzaketa hutsaren bidez edo adjudikazio-botereak aurretiaz ezarritako baldintzak betetzen dituzten eragile ekonomiko guztiei lizentziak edo baimenak emanaz, mugarik eta kuotarik gabe, baldin eta, betiere, sistema horrek bermatu egiten badu behar adinako publizitatea, eta gardentasun eta diskriminaziorik ezaren printzipioen arabera bada.

Halatan, estatu kideentzako ahalmen espres bat tankeratzen da, halako araubide bat ezartzekoak non bermatuko baitira zerbitzu horiek berezkoak dituzten balioak (kalitatea, jarraitutasuna, irisgarritasuna, ordaingarritasuna, eskuragarritasuna eta erabatekotasuna), eta horrez gain xedatu ahalko da zerbitzu-hornitzailearen hautaketa egiteko irizpideak izan daitezela kalitatea, iraunkortasuna, sozialak edo elkartasunekoak, eta are zilegi izanen da irabazi-asmorik gabeko eragileak besterik ez hautatzea ere.

Horrela proposatzen da adjudikazio-botereek aukeratu eta arautu dezatela zerbitzu horiek antolatu eta emateko modua, kontratuzkoa nahiz ez kontratuzkoa. Baina, azken kasu horretan ere, eta begi-bistakoa izanik gardentasunaren, diskriminaziorik ezaren eta publizitatearen printzipioak errespetatzearen betebeharra, posible da, halaber, arauari loturiko kontratazio-araubide berezi bat taxutzea, eskusiboa izanen dena irabazi-asmorik gabeko eragileentzat, elkartasunaren printzipioa aintzat harturik, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 1997ko ekainaren 17ko epaiari jarraikiz (C-70/95 afera), zeinak lehia askearen printzipioari salbuespenak egitea ametitzen baitu, gizarte segurantzaren sistemaren esparruan irabazi-asmorik gabeko entitateen alde eginiko kontratuen kasuan. Eta orobat posible da prozedura murriztuak edo kontratu-erreserba bera erabiltzea, irabazi-asmorik gabeko eragileentzako aukera guzti hauetan soilik.

Gogoan izan dezagun, gainera, arlo honetan (gizarte-zerbitzuak) eskudun autonomia erkidegoak direla, zerbitzu horien arauaketa eta kudeaketarako gaikuntza konstituzionala daukatenez gero. Beraz, posible da gizarte zerbitzuetarako kontratuen eta kontratu berezien gaineko berariazko arauaketa bat egitea. Eta, horrela, Espainian badaude oso argiak diren aurrekari batzuk, zeren eta gizarte-zerbitzuei buruzko lege autonomiko

ugarik jadanik ezarrita baitauzkate irabazi-asmorik gabeko entitateentzako ituntze-sistema berezi eta eskusiboa. Haiek guztiek oniritzia –eta babeseman diote irabazi-asmorik gabeko eragileek kontratazioarako lehentasuna izateari.

Nafarroan tramitazio-bidean dago itun sozialei buruzko legea, baina Aragoik jadanik onetsi du lehenbiziko lege autonomikoa itun soziala kontratazio publikotik bereizitako figura gisa arautzen duena eta itun sozialari kategoria juridiko berekia ematen diona, legezkotasun osokoa, zuzentzauek ematen duten gaikuntzaren eta Europar Batasuneko jurisprudentziaren arabera. Hori egin da pertsonen gizarte- eta osasungintza-izaerako zerbitzuak emateko itun bidezko ekintzari buruzko abenduaren 15eko 11/2016 Legearen bitartez.

41. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

40. artikulua aldatzeko zuzenketa. 40. artikuluko hirugarren esaldiari hitz berri bat gehitzen zaio:

Bideragarritasun azterlanean baloratuko dira, besteak beste, inbertsioaren iraunkortasuna eta errentagarritasun ekonomikoa, finantzarioa eta soziala, eta bereziki genero eragina.

Zioak: Gure ustez, kontzeptu garrantzitsua da, kontuan hartu beharrekoa.

42. ZUZENKETA

GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA, ETA PODEMOS-AHAL DUGU TALDE PARLAMENTARIOEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

41. artikulua 1. apartatua aldatzeko zuzenketa.

41. artikulua. Sortak diseinatzea.

“1. Oro har, kontratuak sortatan banatuko dira. Kontratazio organoak erabakitzen duenean kontratuaren xedea sortatan ez banatzea, edo sorta bakar bat ere erreserbatu gisa ez kalifikatzea erabakitzen duenean, arrazoitu egin beharko du”.

Zioak: Zuzenketa honen bidez proposatzen da administrazio publikoek eta adjudikazio-botereek betiere kontuan izatea sortetako baten bat enplegu zentro berezietarako eta laneratzearako erreserbatutako kontratu gisa sailkatzearen aukera. Alegia, kontratua oro har

sortatan banatzera behartuta dauden bezalaxe, horrez gain behartuta daude aztertzea ea sortaren bat erreserbatu gisa sailka ote daitekeen.

Era horretan, lortuko da kontratazio-organo guztiek kontratu erreserbatuen figura ezagutzea, eta kontratu etako sortak erreserbatzea nahitaezkoa izatea; eta bide diskretu bat erabiliz inposatzen zaie erka ditzaten kontratu-xedeak eta entitate horiek diharduteneko jarduera-sektoreak, azken batean argitze aldera ea pertinentea den sortaren bat erreserbatu gisa sailkatzea, edo, kontrako kasuan, hori arazoitze aldera.

43. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

41. artikuluko 4. apartatuari puntu berri bat gehitzeko zuzenketa.

41. artikulua. Sortak diseinatzea.

“c) Sorta bat edo batzuk gizarte-ekimeneko enplegu zentro berezietarako eta laneratze enpresetarako erreserbatzea”.

Zioak: Zuzenketa honen bidez proposatzen da administrazio publikoek eta adjudikazio-botereek betiere kontuan izatea sortetako baten bat enplegu zentro berezietarako eta laneratze-enpresetarako erreserbatutako kontratu gisa sailkatzearen aukera. Alegia, kontratua oro har sortatan banatzera behartuta dauden bezalaxe, horrez gain behartuta daude aztertzea ea sortaren bat erreserbatu gisa sailka ote daitekeen.

Era horretan, lortuko da kontratazio-organo guztiek kontratu erreserbatuen figura ezagutzea, eta kontratu etako sortak erreserbatzea nahitaezkoa izatea; eta bide diskretu bat erabiliz inposatzen zaie erka ditzaten kontratu-xedeak eta entitate horiek diharduteneko jarduera-sektoreak, azken batean argitze aldera ea pertinentea den sortaren bat erreserbatu gisa sailkatzea, edo, kontrako kasuan, hori arazoitze aldera.

44. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

41. artikuluan apartatu berri bat –bat bis– gehitzeko zuzenketa.

“1. bis. Lotekako banaketa egiten denean, lote edo prestazio bereizi bakoitzaren adjudikazioari aplikatu behar zaizkion prozedurazko eta publikitate arauak zehaztuko dira multzoaren balio meta-tuaren arabera, ezarritako moduan kalkulaturik, 7. artikuluan aurreikusitako salbuespenen bat gertatzen denean izan ezik”.

Zioak: Proiektuan ez da proposamen hori jasotzen, eta beharrezkoa iruditzen zaigu.

45. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

41. artikulua aldatzeko zuzenketa. 3.a) apartatuari gehitzea:

“Irizpide hau aplikatzeko, kontratazio-organoak aurretiazko txostena eskatu beharko dio kasuko lehia-defentsako agintaritzari, inguruabar hori gertatzeari buruzko iritzia eman dezan”.

Zioak: Proiektuak modua ematen du sortatan ez banatzeko, baldin eta banaketak arriskua bada-kan lehia murriztekoa. Irizpide hori gehiegikeriaz eta enpresa txiki eta ertainen kaltetan erabiltzea ekiditeko, proposatzen da lehiaren defentsako agintaritzak izatea irizpena emanen duena.

Era berean, eta enpresa txiki eta ertainen mesedetan ere, behartzen da bigarren irizpidearen (zailtasun teknikoaren) aplikazioarako nahitaezkoa izan dadila, mendeko entitateei dagokienez, administrazio nagusiak emaniko aurretiazko txostena.

46. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

41. artikulua aldatzeko zuzenketa. 3 b) apartatuari honakoa gehitzea:

“Irizpide hau aplikatzeko, eta adjudikazio boterea 4. 1 e) artikuluan jasotako entitate etako bat baldin bada, zer administrazio publikoren mendean dagoen, administrazio horri aurretiazko txostena eskatu beharko dio”.

Zioak: Era berean, eta enpresa txiki eta ertainen mesedetan ere, behartzen da bigarren irizpidearen (zailtasun teknikoaren) aplikazioarako nahitaezkoa izan dadila, mendeko entitateei dagokienez, administrazio nagusiak emaniko aurretiazko txostena.

47. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

Gehitzeko zuzenketea 42. artikuluko 2. aparta-
tuko a) letran.

42. artikulua. Kontratu publikoen, esparru-akor-
dioen eta erosketarako sistema dinamikoen balio
zenbatetsia kalkulatzeko metodoa.

“a) Litzitazioaren zenbatekoa, zeinak, gutxienez
ere, indarreko lan-araudien aplikaziotik eratorrita-
ko kostuez gain, barrenean hartuko baititu zerbi-
tzuen exekuzio materialetik eratorritako beste
kostu batzuk, egitura-gastu orokorrak eta onura
industrialia”.

Zioak: Sektore Publikoko Kontratuei buruzko
9/2017 Legearen 100. artikuluan jasota.

48. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

42. artikuluko 2. apartatuaren lehen paragrafo-
ari beste esaldi bat gehitzeko zuzenketa. Hona
testua:

“2. Balio zenbatetsiaren kalkuluan kontuan har-
tuko dira, gutxienez ere, aplikatzekoak diren hit-
zarmen kolektibo sektorialen eta indarreko lan-
araudien aplikaziotik eratorritako kostuez gain,
zerbitzuen exekuzio materialetik eratorritako beste
kostu batzuk, egitura-gastu orokorrak eta onura
industrialia. Halaber, kontuan hartuko dira:”

Zioak: Beharrezkoa iruditzen zaigu kostuen
azterketa bat egitea, bai eskulanarenak bai exeku-
zio materialarenak eta kontratua betetzetik erato-
ritakoak, haren prezio erreala izateko.

49. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

42. artikulua. Kontratu publikoen, esparru-akor-
dioen eta erosketarako sistema dinamikoen balio
zenbatetsia kalkulatzeko metodoa.

42. artikulua. Kontratu publikoen, esparru-akor-
dioen eta erosketarako sistema dinamikoen balio
zenbatetsia kalkulatzeko metodoa.

“Baldin eta kontratu batean haren exekuziora-
ko enplegatutako pertsonen soldataren kostua
kontratuaren guztizko prezioaren parte bada, lizi-
taziorako oinarrizko aurrekontuak xeheki eta
genero eta lanbide-kategoria bereizirik adieraziko
ditu soldata-kostu zenbatetsiak, erreferentziatzko
lan-hitzarmenetik abiatuta”.

Zioak: Sektore Publikoko Kontratuei buruzko
9/2017 Legearen 100. artikuluan jasota.

50. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

42. artikulua. Kontratu publikoen, esparru-akor-
dioen eta erosketarako sistema dinamikoen balio
zenbatetsia kalkulatzeko metodoa.

“Litzitazioaren balio zenbatetsiaren kalkulua
xehakatu da eta administrazio klausula partiku-
larren pleguan edo litzitazioa arautzen duen doku-
mentuan adieraziko dira kostu zuzenak eta zehar-
kakoak eta hura zehazteko kalkulatuak balizko
beste gastu batzuk ere. “Baldin eta kontratu bate-
an haren exekuziorako enplegatutako pertsonen
soldataren kostua kontratuaren guztizko prezioa-
ren parte bada, litzitaziorako oinarrizko aurrekon-
tuak xeheki eta genero eta lanbide-kategoria
bereizirik adieraziko ditu soldata-kostu zenbate-
tsiak, erreferentziatzko lan-hitzarmenetik abiatuta”.

Zioak: Sektore Publikoko Kontratuei buruzko
azaroaren 8ko 9/2017 Legearekin bat dator, horre-
tan kontuan hartu baitira kontzeptu horiek kontratu
publikoen balio zenbatetsia kalkulatzeko.

51. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

42. artikulua. Kontratu publikoen, esparru-akor-
dioen eta erosketarako sistema dinamikoen balio
zenbatetsia kalkulatzeko metodoa.

“5. bis. Aurreko apartatuan aurreikusitakoaz
gain, obra- eta zerbitzu-emakidetak kontratuen
balio zenbatetsiaren kalkuluan kontuan hartuko
dira ondoko kontzeptuak, bidezkoa denean:

a) Obra eta zerbitzuen erabiltzaileek ordaindu-
tako tasa eta isunetatik eratorritako errenta, adju-
dikazio-boterearen izenean bildutakoetatik desber-
dinak badira.

b) Adjudikazio-botereak edo beste edozein agintaritza publikok emakida-hartzaileari emandako ordainketa edo abantaila finantzarioak, edozein forma dutela ere, zerbitzu publikoko betebeharren bat betetzeagatiko konpentsazioa eta inbertsio publikorako diru-laguntzak barne.

c) Emakida exekutatzearen truke hirugarrenek emandako subsidio edo abantaila finantzarioen balioa, edozein forma dutela ere.

d) Emakidaren zati den edozein aktiboren salmentaren prezioa.

e) Adjudikazio-botereak emakida-hartzailearen esku jarritako hornidura eta zerbitzu guztien balioa, beharrezkoak badira obren exekuziorako edo zerbitzuak emateko”.

Zioak: Kontratuen balio zenbatetsiaren kalkulua hobetzen du, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean ere islatzen den moduan.

52. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

43. artikulua. Kontratuen prezioa eta finantzaketa.

43. artikulua. Kontratuen prezioa eta finantzaketa.

“Kontratazio-organoek zainduko dute prezioa egokia izan dadila kontratua egiazki betetzeko, lizitaziorako oinarritzko aurrekontua finkatzean merkatu-prezio orokorra aintzat harturik haren zenbatekoa egokiro zenbatetsiz; eta, kasua bada, balio anormalak edo neurrigabeak dituzten eskaintzei buruzko arauak aplikatuz.

Kostu ekonomiko nagusi gisa lan-kostuak dauzkaten zerbitzuetan, aplikatzekoak diren hitzarmen kolektiboetako baldintza ekonomikoak hartu beharko dira kontuan”.

Zioak: Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 102.3. artikuluan jasota.

53. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

43. artikuluari beste apartatu bat –4 bis– gehitzeko zuzenketa.

“4. bis. Kontratazio-organoek zainduko dute prezioa egokia izan dadila kontratua egiazki betetzeko, lizitaziorako oinarritzko aurrekontua finkatzean merkatu-prezio orokorra aintzat harturik haren zenbatekoa egokiro zenbatetsiz; eta, kasua bada, balio anormalak edo neurrigabeak dituzten eskaintzei buruzko arauak aplikatuz.

Lan-kostuak kalkulatu behar diren adjudikazioetan, aplikatzekoak diren hitzarmen kolektibo sektorialen baldintza ekonomikoak aintzat hartu behar dira, eta, zehazki, esparru apalagoko sektore-hitzarmen kolektiboan Nafarroako Foru Komunitatean ezarritakoa jaso beharko da, hura izanen baita aplikatzekoa”.

Zioak: Enpresa lizitatzailen artean hitzarmen kolektibo desberdinak aplikagarri izateagatik gerta litezkeen disfuntzioak saihestea; izan ere, horren ondorioz desberdintasun handiak sor litezke sektore bereko lan baldintzen artean.

54. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

44. artikulua. Kontratuen prezioa eta finantzaketa.

44. artikulua. Kontratuaren gutxieneko edukia.

“c) Kontratuaren xedearen eta motaren definizioa, xedearen definizioan kontuan harturik gizarte-, ingurumen- eta berrikuntza-arloetako jakingarriak”.

Zioak: Testu horrekin, 2. artikuluan ezarritakoaren ildotik (kontratazio publikoaren printzipioak), asmoa da kontratu-xedearen definizioan ere argi eta garbi aintzat har daitezela gizarte-, ingurumen- eta berrikuntza-arloetako jakingarriak.

55. ZUZENKETA**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

1. artikuluko 44. apartatuko j) letra aldatzeko zuzenketa.

“j) Kontratu-baliogabetasunaren arrazoiak”.

Zioak: Bat dator foru lege proiektuaren 107. artikuluan erabilitako terminoekin.

56. ZUZENKETA**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

44. artikuluko 1. apartatuaren e) letrari beste esaldi bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“e) Kontratua osatzen duten dokumentuen zerrenda. Hala adierazten bada kontratuan, zerrenda hori hierarkiaren arabera izanen ahal da, aldean artean adostutako lehentasunen hurrenkeraren arabera. Kasu horretan, eta akats nabarmenik ez bada behintzat, hitzartutako hurrenkera erabiliko da bakoitzaren prebalentzia zehazteko, dokumentuen artean kontraesanik izanez gero”.

Zioak: Testua hobetzen du eta bat dator Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearekin, zeinaren bidez Espainiako ordenamendu juridikora aldatzen baitira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/UE eta 2014/24/EB Zuzentarauak, 2014ko otsailaren 26koak.

57. ZUZENKETA**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

44. artikuluko 1. apartatuari beste letra bat, II bis), gehitzeko zuzenketa.

“I bis) Aldaketa beharrezkoa den kasuetan, kasua bada”.

Zioak: Proiektuaren j) letran zehazten da aipatu behar dela zein kasutan den bidezkoa kontratua suntsiaraztea, baina ez dira aipatzen kontratu-aldaketarako kasuak, proiektu beraren 105. artikuluan jasotzen badira ere.

58. ZUZENKETA**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

44. artikuluko 1. apartatuari beste letra bat, j bis), gehitzeko zuzenketa.

“j bis) Aurrekontu-kreditua edo programa edo kontabilitate-errubrika, zeinaren kontura ordainduko baita prezioa, kasua bada”.

Zioak: Testua eta gardentasuna hobetzen ditu.

59. ZUZENKETA**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

44. artikuluko 1. apartatuari beste letra bat, I bis), gehitzeko zuzenketa.

44. artikulua. Kontratuaren gutxieneko edukia.

“I bis. Kontratista den enpresa behartuta egoitea, kontratuaren exekuzio-aldi osoan zehar, aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboan ezarritako arau eta baldintzak betetzera”.

Zioak: Ebidentea dela pentsa litekeen arren, batzuetan gaiari buruzko desadostasunak sortzen dira; batez ere, kontratuaren exekuzio-aldian zehar hitzarmen kolektiboaren edukiak aldatzen direnean.

60. ZUZENKETA**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

44. artikuluko 1. apartatuari beste letra bat, I bis), gehitzeko zuzenketa.

“I bis) Kontratista den enpresa behartuta egoitea, kontratuaren exekuzio-aldi osoan zehar, aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboan ezarritako arau eta baldintzak betetzera”.

Zioak: Langileen babesa islatzea Kontratu Publikoei buruzko Foru Legean.

61. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

44. artikuluari testua gehitzeko zuzenketa. Apartatu berri bat gehitzen da, l) (eta l apartatuak behar du izan proiektuan):

“Kontratista den enpresa behartuta egotea, kontratuaren exekuzio-aldi osoan zehar, aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboan ezarritako arau eta baldintzak betetzera”.

Zioak: Proiektuan ez da kontratuaren gutxieneko eduki gisa agertzen indarreko hitzarmen kolektiboa bete beharra.

62. ZUZENKETA**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

45. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

“45. artikulua. Kontratuen iraunaldia.

1. Sektore publikoko kontratuen iraunaldia zehazterakoan, kontuan hartu beharko dira presazioak zer-nolakoak

diren eta finantzaketa nolakoa izango den, eta aldian-aldian prestazio horiek lehia bidez eman beharra ere bai,

kontratu jakin batzuei aplikatzekoak diren arau bereziak eragotzi gabe.

2. Kontratuan luzapen bat edo gehiago aurrekusi ahalko dira, betiere bere ezaugarriak ez badira aldatzen horiek irauten duten bitartean, ezertan galarazi gabe foru lege honen 105. artikuluan ezarritakoaren arabera sar daitezkeen aldaketak.

Luzapena kontratazio-organoak erabakiko du eta nahitaez bete beharrekoa izanen da enpresaburuarentzat, betiere aurreabisua kontratuaren iraunaldia amaitu baino bi hilabete lehenago egiten bada gutxienez, kontratua arautzen duen pleguan epe luzeagoa ez bada ezartzen. Bi hilabetekoa baino iraunaldi laburragoa duten kontratuetan ez da aurreabisu-betebeharririk izanen.

Luzapena ez da inoiz izanen aldean baimen tazituaren ondorioz.

3. Enpresaburua berandutzen denean prestazioa gauzatzen, kontratazio-organoak exekuzio-epea luzatu ahalko du, kasu horretan bidezkoak diren zigorrak ezertan galarazi gabe.

4. Hornidura-kontratuen eta zerbitzuak era jarraituan emateko kontratuen iraunaldia bost urtekoa izanen da gehienez ere, artikulua honen bigarren apartatua aplikatuta kontratazio-organoak adosten dituen balizko luzapenak barne, betiere errespetatuta entitate kontratatzaileari aplikagarri zaizkion aurrekontu-arauetan ezarritako baldintzak eta mugak.

Salbuespen bezala, zerbitzu-kontratueta zilegi izanen da aurreko paragrafoan ezarritakoa baino iraunaldi luzeagoa ezartzea, kontratuarekin zerikusi zuzena duten inbertsioak berreskuratzeko epeak horretara behartu eta inbertsio horiek ez direnean kontratistaren gainerako ekoizpen-jardueran erabiltzeko modukoak, edo horien erabilera antiekonomikoa izanen balitz; betiere, inbertsio horien amortizazioa kostu muntaduna denean zerbitzu-ematean. Inguruabar horiek kontratazio-espeditentean justifikatu beharko dira, adieraziz zein inbertsiori buruz ari den eta zein den horien berreskuratze-epea. Zerbitzu-ematearen kostu muntadunaren kontzeptua erregelamendu bidez garatuko da.

Mantendu beharreko ondasunaren erosketarekin batera hitzartzen den mantentze-zerbitzuetarako kontratuak, baldin eta mantentze hori, eskusibotasun-arrazoia tarteko, ondasun hura hornitu zuen enpresak bakarrik egin badezake, iraupen-epe gisa eduki ahalko du eskuratutako produktuaren bizitza baliagarria adinakoa.

Halaber, pertsonentzako zerbitzuei buruzko zerbitzu-kontratueta zilegi izanen da iraupen-epe luzeago bat ezartzea, hori beharrezkoa denean erabiltzaileen tratamenduen jarraitutasunerako, zerbitzu-emailea aldatzeak tratamendu horietan eragin negatiboa izanez gero.

Aurreko apartatuetan ezarritakoa ezertan galarazi gabe, baldin eta kontratu baten mugaeguneratzean ez bada sinatu kontratistak eman beharreko prestazioaren jarraitutasuna bermatuko duen kontratu berri bat, adjudikazio-prozeduran kontratazio-organoarentzat ezin aurreikusizkoak ziren gertakarien ondoriozko gorabeherak direla-eta, eta prestazioa ez eteteko interes publiko arrazoiak egonik, zilegi izanen da jatorrizko kontratua luzatzea harik eta kontratu berriaren exekuzioa hasten den arte, eta, betiere, bederatz hilabeteko gehiengo epe batez, kontratuaren gainerako baldintzak aldatu gabe, baldin eta kontratu berriaren lizitazioari buruzko iragarpena gutxienez ere hiru hilabete lehenago argitaratu bada jatorrizko kontratuaren amaiera-data baino.

5. Ondasun higigarrien errentamendurako kontratuen iraunaldia bost urtekoa izanen da, gehie-

nez ere, artikuluko honen bigarren apartatua aplikatuta kontratazio-organoak adosten dituen balizko luzapenak barne.

6. Obren kontzesio-kontratuen eta zerbitzuen kontzesio-kontratuek iraunaldi mugatua izanen dute, zeina kalkulatu baina haren xede diren obra eta zerbitzuen arabera. Iraunaldia administrazio klausula partikularren pleguan adieraziko da.

Obren edo zerbitzuen kontzesioak bost urteko epea gaindituko balu, emakidaren gehieneko iraunaldiak ezin izanen du gainditu arrazoizkotzat jotzen den denbora kontzesio-hartzaileak obra edo zerbitzuen ustiapenerako eginiko inbertsioak berreskuratzeko, inbertitutako kapitalaren gaineko errendimendu batez gain, kontuan hartuta kontratuaren berariazko xedeak lortzeko beharrezko inbertsioak.

Kalkulu hori egiteko kontuan hartzen diren inbertsioetan sartuko dira bai hasierako inbertsioak bai emakidaren iraunaldian egindakoak.

Edonola ere, apartatu honen bigarren paragrafoan aipatu obren kontzesio-kontratuen edo zerbitzuen kontzesio-kontratuen iraunaldiak, balizko luzapenak kontuan hartuta, ezin izanen du gainditu:

a) Berrogei urte, obren kontzesio-kontratu edo zerbitzuen kontzesio-kontratueterako, obrak egitea eta zerbitzua ustiatzea hartzen badute.

b) Hogeita bost urte, osasun zerbitzuak ematearekin zerikusirik ez duen zerbitzu baten ustiapenari buruzko zerbitzuen kontzesio-kontratueterako.

c) Hamar urte, osasun zerbitzuak emateko xedea duen zerbitzu baten ustiapenari buruzko zerbitzuen kontzesio-kontratueterako, betiere ez badira sartzen a) letrako kontratueteran.

Baldintza-pleguetan ezarritako epeak hasierako iraupenaren ehuneko 15 bakarrik luzatu ahalko dira kontratuaren oreka ekonomikoa berrezartzeko, 190. artikuluan aurreikusitako inguruabarretan.

Kontzesioaren iraunaldiaren epe-zenbaketaren ondorioetarako eta obren exekuziorako ezarritako epe-zenbaketarako ez dira kontuan hartuko lanak eten behar diren aldiak, administrazio kontzesioemaileari egotzi ahal zaion arrazoi batengatik edota ezinbesteko arrazoiengatik eteten badira. Emakida-hartzailea bada obren exekuzioaren atzerapenaren arduraduna, administrazio klausula partikularren pleguan jasotako zigor araubidean

eta lege honetan ezarritakoari jarraituko zaio, eta ezin izanen da emakidaren iraunaldia luzatu.

7. Arestian ezarritakoa gorabehera, beste obra- edo zerbitzu-kontratu batzuen osagarri diren zerbitzu-kontratuen indarraldia 4. apartatuan ezarritakoa baino luzeagoa izan ahalko da. Hala ere, horien iraunaldia ez da inoiz izanen kontratu nagusiarena baino luzeagoa, kontratu nagusiaren likidazioarekin zerikusia duten lanetarako kontratuen kasuan izan ezik; izan ere, horien iraupenak nagusiarena gaindituko du lan horiek egiteko beharrezkoa den denboran. Apartatu honetan aipatu kontratu osagarriaren hasiera etenda geratuko da dagokion kontratu nagusiaren exekuzioa hasi arte, haren xede eta edukitik eratorritako arrazoi justifikaturik izan ezean.

Ulertuko da kontratu osagarriak direla beste batekin, kontratu nagusiarekin alegia, menpekotasun harremana dutenak eta aipatu kontratu nagusian jasotako prestazioa edo prestazioak behar bezala gauzatzeko beharrezkotzat jotzen den xedea dutenak.

8. 78. artikuluan definituriko zenbateko txikiko kontratuek ezin izanen dute urtebete baino gehiagoko iraupenik eduki, eta ezin izanen dira luzatu.

9. Artikulu honen 4. eta 6. apartatueteran aipatzen den inbertsioa berreskuratzeko aldia kalkulatu da Espainiako Ekonomiaren Desindexazioari buruzko 2/2015 Legearen 4. eta 5. artikuluetan aipatzen den errege dekretuan ezarritakoari jarraituz.

Zioak: Askoz egokiagoa iruditzen zaigu Estatu-ko legedia hartzea erreferentzia gisa, foru lege proiektuak baino kasu gehiago hartzen dituelako kontuan eta, oinarrizko legedia izanik, errespetatu beharrezkoa delako.

63. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

45. artikulua aldatzeko zuzenketa. 2. apartatu-ko lehen lerrokadako azken partea ordeztan da:

“Salbuespen bezala, zerbitzu-kontratueteran zilegi izanen da aurreko paragrafoan ezarritakoa baino iraunaldi luzeagoa ezartzea, kontratuarekin zerikusi zuzena duten inbertsioak berreskuratzeko epeak horretara behartu eta inbertsio horiek ez direnean kontratistaren gainerako ekoizpen-jardueran erabiltzeko modukoak, edo horien erabilera antiekonomikoa izanen balitz; betiere, inbertsio horien amortizazioa kostu muntaduna denean zerbitzu-ematean. Inguruabar horiek kontratazio-

espedientean justifikatu beharko dira, adieraziz zein inbertsiori buruz ari den eta zein den horien berreskuratze-epea.

Mantendu beharreko ondasunaren erosketarekin batera hitzartzen den mantentze-zerbitzuetarako kontratuak, baldin eta mantentze hori, eskusibotasun-arrazoiak tarteko, ondasun hura hornitu zuen enpresak bakarrik egin badezake, iraupen-epe gisa eduki ahalko du eskuratutako produktuaren bizitza baliagarria adinakoa”.

Zioak: Proiektuak epe-muga bat ezartzen du hornidura- eta zerbitzu-kontratuarentzako, baina modua ematen du hura luzatzeko, zehazten ez diren “salubrespeneko arrazoiak” tarteko. Arbitrarotasuna ekiditeko, eta bi kontratuen izaera aintzat harturik.

Halaber, pertsonentzako zerbitzuei buruzko zerbitzu-kontratuaren zilegi izanen da iraupen-epe luzeago bat ezartzea, hori beharrezkoa denean erabilzaileen tratamenduen jarraitutasunerako, zerbitzu-emailea aldatzeak tratamendu horietan eragin negatiboa izanez gero.

64. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

45. artikuluari 3.bis apartatu berria gehitzeko zuzenketa.

45. artikulua. Kontratuen iraunaldia.

“3. bis. Baldin eta, adjudikazio-prozeduran kontratazio-organoarentzat ezin aurreikusizkoak ziren gertakarien ondoriozko gorabeherak direla-eta, kontratu baten mugaeguneratzean ez bada sinatu kontratu berri bat, kontratistak eman beharreko prestazioaren jarraitutasuna bermatuko duena, eta prestazioa ez eteteko interes publikoko arrazoiak egonik, zilegi izanen da jatorrizko kontratua luzatzea harik eta kontratu berriaren exekuzioa hasten den arte, eta, betiere, bederatzirako hilabeteko gehieneko epe batez, kontratuaren gainerako baldintzak aldatu gabe, baldin eta, betiere, kontratu berriaren lizitazioari buruzko iragarpena gutxienez ere hiru hilabete lehenago argitaratu bada jatorrizko kontratuaren amaiera-data baino”.

Zioak: Hobekuntza teknikoa, saihestekoa ezustekoak agertu izateagatik adjudikazioa atzeratu eta, halatan, premiazko zerbitzu bat ematen ezin

segitzearen ondorioz interes publikoa kalteturik suertatzearen egoerak.

65. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

45. artikuluari testua gehitzeko zuzenketa. 7. apartatu bat gehitzen zaio:

“78. artikuluan definituriko zenbateko txikiko kontratuek ezin izanen dute urtebete baino gehiagoko iraupenik eduki, eta ezin izanen dira luzatu. Era berean, zenbateko txikiko kontratuak ezin erabiliko dira aldiroko beharrianak edo aurreikusitako ahal direnak asetzeko”.

Zioak: Proiektuan ez da agertzen zenbateko txikiko kontratuen epea, eta hori ezartzea baitezpadakoa da kontratu horien desitxuratzeko ekiditeko. Era berean, beharrianak esporadikoetara mugatu behar da.

66. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

45. artikuluari testua gehitzeko zuzenketa. 7. apartatu bat gehitzen zaio:

“Aurreko apartatuaren ezarritakoa ezertan galarazi gabe, baldin eta kontratu baten mugaeguneratzean ez bada sinatu kontratistak eman beharreko prestazioaren jarraitutasuna bermatuko duen kontratu berri bat, adjudikazio-prozeduran kontratazio-organoarentzat ezin aurreikusizkoak ziren gertakarien ondoriozko gorabeherak direla-eta, eta prestazioa ez eteteko interes publikoko arrazoiak egonik, zilegi izanen da jatorrizko kontratua luzatzea harik eta kontratu berriaren exekuzioa hasten den arte, eta, betiere, bederatzirako hilabeteko gehieneko epe batez, kontratuaren gainerako baldintzak aldatu gabe, baldin eta kontratu berriaren lizitazioari buruzko iragarpena gutxienez ere hiru hilabete lehenago argitaratu bada jatorrizko kontratuaren amaiera-data baino”.

Zioak: Proiektuak ez du aintzat hartzen zer problema sortzen den baldin eta kontratu bat azkentzen den unean kontratazio-organoak oraindik amaitu gabe badauka prestazioaren jarraitutasuna ekarriko duenaren adjudikazioa. Asmoa da, lehenik eta behin, egoera hori arautzea, eta, bigarrenik, gaur egun orokorra den isilbidezko luzapena mugatzea, halako moldez non kasu justifikatuetan eta denbora zehatzez aplikatuko baita.

67. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

48. artikularen 2. apartatua aldatzeko zuzenketa.

48. artikulua. Merkatuko aurrekontsultak.

“2. Merkatuko aurrekontsultak Kontratazio Atariaren bitartez eginen dira lehentasunez, lehia ez faltsutzeko edo diskriminazio ezaren eta gardentasunaren printzipioak ez urratzeko. Kontratazio Ataria ez erabiltzeko erabakia, halakorik hartuz gero, behar adina arrazoitu beharko da espedientean”.

Zioak: Testuaren hobekuntza teknikoa.

68. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

57. artikularen 2. apartatuko b) letrari paragrafo berri bat gehitzeko zuzenketa.

“Halaber, kaudimen-, adjudikazio- edo exekuzio-baldintza berezi gisa ezarriko diren gizarte-, lan- eta ingurumen-kontsiderazioak; kontratuko alderdien eskubide eta betebeharrak definitzen dituzten itun eta baldintzak; kontratu-lagapenaren aurreikuspena, lagapen hori posible ez den kasuetarako izan ezik; adjudikazio-hartzailea behartuta egotea langileen ordainsari-baldintzak betetzera, aplikatzeko den hitzarmen kolektibo sektorialari jarraikiz; eta foru lege honek eta honen garapen-arauek eskatutako gainontzeko aipamenak”.

Zioak: Bat dator Kontratu Publikoen Foru Lege proiektuaren 63. Artikuluaren garapenarekin.

69. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

57. artikuluko 2. apartatuari beste letra bat, c bis), gehitzeko zuzenketa.

57. artikulua. Baldintza partikularrak.

“c bis) Kontratuko kaudimen- eta adjudikazio-irizpideak; kaudimen-, adjudikazio- edo exekuzio-baldintza berezi gisa ezarriko diren gizarte-, lan- eta ingurumen-kontsiderazioak; kontratuko alderdien eskubide eta betebeharrak definitzen dituzten itun eta baldintzak; kontratu-lagapenaren aurreikuspena, lagapen hori 104. artikuluan ezarritakoari jarraikiz posible ez den kasuetarako izan ezik; adjudikazio-hartzailea behartuta egotea langileen ordainsari-baldintzak betetzera, aplikatzeko den hitzarmen kolektibo sektorialari jarraikiz; eta lege honek eta honen garapen-arauek eskatutako gainontzeko aipamenak. Kontratu mistoen kasuan, haien efektuei, betetzeari eta azkentzeari aplikatzeko zaien araubide juridikoa zehaztuko da, aintzat harturik haietan bat egiten duten presazio ezberdinei aplikatzekoak zaizkien arauak”.

70. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

58. artikularen 4. apartatua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Paragrafo hori kentzea proposatzen dugu, artikuluko berri baterako proposamena aurkeztu baitugu –“Agindu teknikoak ezartzeko arauak”–, Estatuko legediarekin bat datorrena, askoz garatuagoa eta 4. apartatua ordeztuko lukeena.

71. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

58. artikuluko 2. apartatua aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko da:

“2. Agindu teknikoak pertsona ororentzako irisgarritasun eta diseinu unibertsaleko irizpideak aintzat hartuta adierazi beharko dira, Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haiek gizarteratzeari buruzko lege orokorraren testu bategina onesten duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuari jarraikiz.

Zioak: Testuan araua betetzeko zenbait modalitate jasotzen dira; horietako bat da egungo idazketa, zeinaren 2.a) puntuak foru legearen seigarren xedapen gehigarri bidaltzen baitu. Baina hura begiratzean, ikusten da haren edukiak ez duela zerikusirik, bere izenburua baita “Eskaintza bat aurkezteko gonbidapenen edukia”. Beraz, ez du zentzurik 2.a) puntua mantentzea, ez eta 2.c),

aurrekora bidaltzen baitu, eta horrela puntu osoak zentzua galtzen baitu.

Hala, zentzurik ez duenez, arrazoizkoagoa iruditzen zaigu beste testu bat bilatzea, bermatuko duena, kontratazio publikoaren eremuan, desgaitasuna duten pertsonentzako irisgarritasuna, eta, hori dela eta, Desgaitasuna duten pertsonen esku-bideei eta haiek gizarteratzeari buruzko lege orokorraren testu bategina onesten duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua aipatzen dugu.

72. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

58. bis artikulua berri bat gehitzeko zuzenketa.

“58. bis artikulua. Agindu teknikoak ezartzeko arauak.

1. 58. artikuluan aipatzen diren agindu teknikoek ahalbidetuko dute enpresaburuek berdintasun baldintzetan parte hartu ahal izatea kontratazio-prozeduran, eta ezin izango da, horien ondorioz, kontratu publikoak lehia irekian jartzeko oztopo

bidegaberik sortu.

2. Agindu teknikoak izan ahalko dira eskatutako obrak, hornidurak edo zerbitzuak egin edo emateko prozesu edo modu zehatzari buruzkoak, edota haien bizitza-zikloko beste etapa baten prozesu zehatz bati buruzkoak, bai eta faktore horiek obra, hornidura edo zerbitzuen substantzia materialaren parte ez direnean ere, betiere loturarik badute kontratuaren xedearekin eta proportzioa gordetzen badute haren balio eta helburuekin.

3. Pertsona fisikoen erabilerarako kontratazio guztietan –jendea, oro har, edo administrazio publiko kontratatzaileko langileak–, agindu teknikoak idatziko dira, behar bezala justifikaturiko kasuetan izan ezik, halako moduz non kontuan hartuko baita Desgaitasuna duten pertsonen esku-bideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioa, bai eta pertsona ororentzako irisgarritasun eta diseinu unibertsaleko irizpideak ere, termino horiek azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuan, Desgaitasuna duten pertsonen esku-bideei eta haiek gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onesten duenean, definitzen diren moduan.

Ezinezkoa bada agindu teknikoak finkatzea pertsona ororentzako irisgarritasun eta diseinu unibertsaleko irizpideak aintzat hartuta, inguruabar

hori behar bezala justifikatu beharko da, foru lege honetan ezarritakoari jarraikiz.

Aurrekoa ezertan galarazi gabe, Europar Batasuneko egintza juridiko baten bidez onetsitako derrigorrezko irisgarritasun baldintzak daudenean, zehaztapen teknikoak arau horiei erreferentzia eginez zehaztuko dira desgaitasuna duten pertsonentzako irisgarritasun eta diseinu unibertsaleko irizpideei dagokienez.

4. Kontratuak ingurumenen eragina duenean edo izan dezakeenean, agindu teknikoak zehazteko iraukortasun eta ingurumenaren babesari buruzko irizpideak aplikatuko dira, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 3. eta 4. artikuluetan araututako definizio eta printzipioen arabera.

5. Derrigorrezkoak diren estatuko jarraibide eta erregelamendu teknikoak galarazi gabe, betiere Europar Batasuneko zuzenbidearekin bateragarriak badira, agindu teknikoak hauetako moduren batean adieraziko dira:

a) Errendimenduaren edo eskakizun funtzionalen terminoetan, ingurumen-ezaugarriak barne, betiere parametroak nahikoa zehatzak badira bidea emateko lizitatzaleei kontratuaren xedea zehazteko eta kontratazio-organoari kontratua adjudikatze;

b) Ondokoei erreferentzia eginez, lehenetsun hurrenkera honi jarraikiz: Europako arauak jasozten dituzten arau nazionaletan bildutako zehaztapen teknikoak, Europako ebaluazio teknikoak, zehaztapen tekniko komunak, nazioarteko arauak, normalizaziorako erakunde europarrek eginiko erreferentzia teknikoen bestelako sistemak, edo, halakorik ezean, arau nazionalak, egokitasun teknikoari buruzko dokumentu nazionalak edo obren proiektu, kalkulu eta exekuzioaren alorreko eta horniduren erabileraren alorreko zehaztapen teknikoak, erreferentzia bakoitzaren ondoan “edo antzeko” aipamena eginda;

c) Errendimenduaren edo eskakizun funtzionalen terminoetan, a) letran aipaturikoaren arabera, erreferentzia eginez, errendimendu- edo eskakizun funtzionalerako baldintzekiko adostasun-presuntzioaren baliabide gisa, b) letran jasotako zehaztapenei;

d) b) letran aipaturiko zehaztapen teknikoei erreferentzia eginez zenbait ezaugarrietarako, eta a) letran aipaturiko errendimenduari edo eskakizun funtzionalei beste batzuetarako.

6. Kontratuaren xedea justifikatu ezean, agindu teknikoetan ez da aipatuko fabrikazio edo jatorri zehatz bat, edota enpresaburu jakin batek

eskaintako produktu edo zerbitzuen ezaugarria den prozedura zehatz bat, ez eta markak, patenteak, motak edo jatorri edo ekoizpen jakin bat ere, enpresa jakin batuk edo produktu jakin batzuk faboratu edo kanpoan uzteko xedez. Salbuespen gisa, halako erreferentziak baimenduko dira ezinezkoa denean 5. apartatuan ezarritakoari jarraituz kontratuaren xedearen deskribapen behar bezain zehatz eta ulergarria egitea. Kasu horretan, erreferentziaren ondoan “edo antzekoa” aipamena jarriko da.

7. Kontratazio-organoek 5. apartatuko a) letran aurreikusitako aukera baliatzen dutenean, agindu teknikoak errendimenduaren edo eskakizun funtzionalen terminoetan adieraztekoa alegia, ezin izanen dute obren, horniduren edo zerbitzuen eskaintza bat baztertu eskaintza hori egokitzen bazaio arau europar bat aldatzen duen arau nazional bati, egokitasun teknikoari buruzko dokumentu europar bati, zehaztapen tekniko komun bati, nazioarteko arau bati edo normalizaziorako erakunde europarrek eginiko erreferentzia teknikoaren bestelako sistemaren bati, betiere agindu teknikoetan eskatutako errendimendu- edo eskakizun funtzionalerako baldintzak badira zehaztapen horien xede eta lizitatuak egokitzen jotzen den edozein bide erabiliz frogatzen badu arauaren arabera obra, hornidura edo zerbitzuak betetzen dituela kontratazio-organoak ezarritako errendimendu- edo eskakizun funtzionalerako baldintzak.

8. Kontratazio-organoek erabiltzen dutenean 5. apartatuko b) letran aurreikusitako zehaztapen teknikoari erreferentzia egiteko aukera, ezin izanen dute eskaintzarik baztertu esanda obrak, hornidurak edo zerbitzuak ez zaizkiela egokitzen aipaturiko zehaztapen teknikoari, lizitatuak egiaztatzen badu, egokitzen jotzen den edozein bide baliatuta, proposatzen dituen konponbideek modu parekideak betetzen dituztela kasuko zehaztapen teknikoetan eskatutako baldintzak”.

Zioak: Foru lege proiektuko 58. artikuluko 4. apartatua kentzeko proposatzean, hau da Estatu-ko legearekin bat datorren testua, askoz garatua goa, 4. paragrafoa ordezkatzeko lukeena. Baina testuaren luzera ikusirik, artikulua berri bat izatea proposatzen dugu.

73. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

61. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

“61. artikulua. Adjudikazio irizpideak

1. Kontratuak adjudikatzeko adjudikazio-irizpide ugari erabiliko dira, kalitate-prezio erlaziorik oneneko eskaintzan oinarriturik.

Espedientean alde aurretik justifikatuz gero, kontratuak adjudikatu ahalko dira kostuaren eta eraginkortasunaren arteko erlazio onenari erantzunen dion planteamendu batean oinarrituriko irizpideen arabera, hala nola bizitza zikloaren kostuaren kalkulua, 62. artikuluari jarraituz.

Eskaintza hori zein den ezartzeko baliatu beharreko irizpideak pleguetan ezarriko dira, eta betebeharrak hauek bete beharko dituzte:

a) Kontratuaren xedeari lotuta egonen dira.

b) Modu zehatz eta objektiboan adieraziko dira.

c) Benetako lehiarako baldintzetan ebaluatuko direla bermatuko dute.

2. Ulertuko da adjudikazio-irizpide bat kontratuaren xedeari lotuta dagoela haren xede diren prestaziorik buruzkoa denean, edozein ikuspegitik eta haien bizitza-zikloaren edozein etapatan, ondokoetan parte hartzen duten faktoreak barne:

a) Kasuko obren, horniduren edo zerbitzuen ekoizpen, prestazio-emate edo merkaturatzeko prozesu zehatzean, bereziki ingurumenerako edo sozialki jasagarri eta bidezkoak diren ekoizpen, prestazio- edo merkaturatze-moduak.

b) Haien bizitza-zikloko beste etapa baten prozesu zehatzean.

3. Kalitate-prezio erlaziorik onena zein den ebaluatzeko irizpide ekonomiko eta kualitatiboak erabiliko dira. Kontratazio-organoak kalitate-prezio erlaziorik onena zein den ebaluatzeko ezartzen dituen irizpide kualitatiboek kontratuaren xedeari loturiko ingurumen-alderdiak edo alderdi sozialak jaso ahalko dituzte, ondokoak besteak beste:

1. Kalitatea, balio teknikoak barne, ezaugarri estetiko eta funtzionalak, irisgarritasuna, diseinu unibertsala edo erabiltzaile guztientzako diseinua, ezaugarria sozialak, ingurumen arlokoak edo berritzaileak, eta merkaturatzea eta haren baldintzak.

2. Kontratuari atxikitako eta hura exekutatu behar duten langileen antolaketa, kualifikazioa eta esperientzia, betiere langile horien kalitateak eragin nabarmena izan badezake hobeki exekutatzeko.

3. Salmenta ondoko zerbitzua eta laguntza teknikoak eta entregarako baldintzak, adibidez, noiz egin behar den, entrega-prozesua eta entrega- edo exekuzio-epea, bai eta ordezkoko piezei eta

horniduraren segurtasunari buruzko konpromisoak ere.

Irizpide kualitatiboekin batera kostuei buruzko irizpide bat jasoko da. Irizpide hori kontratazio-organoak aukeratuko du eta prezioa izan ahalko da, edo errentagarritasunean oinarritutako planteamendu bat, hala nola hala nola bizitza zikloaren kostuaren kalkulua, 62. artikuluari jarraikiz.

4. Adjudikatzeko irizpide ugari erabiltzen direnean, puntuazioaren erdia gutxienez formula objektiboak aplikatuz kalkulatu beharko da; pleguetan ezarriko dira formula horiek, bakoitzaren haztapen erlatiboa ere adierazita. Prestazioek izaera artistikoa edo intelektuala dutenean, puntuazioaren %40 gutxienez formula objektiboan bitartez lortuko da. Haztapen hori adierazteko balio zerrenda bat finkatuko da, gehieneko zabale- ra egokiarekin.

Pleguek ezarriko dute irizpideetako bat funtsezkoa den, edo haietako batean gutxieneko puntuaziorik dagoen, lortu ezean eskaintza baztertea ekar dezakeena.

5. Hobekuntzak salbuespenez baizik ez dira erabiliko adjudikatzeko irizpide gisa, eta haien haztapena ez da izanen puntuazio osoaren %10etik gorakoa izanen. Hobekuntzat hartuko dira proiektuan edo agindu teknikoetan zehaztutako osagarri diren prestazioak, haien izaera inolaz ere aldatu ezin dutenak.

Edozein kasutan, pleguetan adjudikatzeko irizpide gisa hobekuntzak aurreikusten direnean, ezarri behar dira zein alderdiren ingurukoak izanen diren, betebeharrak eta haien ponderazioa.

6. Besteak beste, adjudikaziorako irizpide sozialak gehitzen ahalko dira, baldin eta kontratuaren xedearekin erlazioa badute, hala nola: desgaitasuna duten edo gizarte bazterketan egon edo horretarako arriskua duten pertsonen gizarteratzea eta laneratzea; gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna; lana, familia eta bizitza pertsonala uztartzea; lan eta soldata baldintzen hobekuntza; enplegu zentro bereziekin eta laneratze enpresekin azpikontratatzea; irizpide etikoak eta kontratuko prestazioari aplikatutako erantzukizun sozialekoak; prestazioa eman behar duten langileen prestakuntza, haien osasunaren babesa eta parte-hartzea; edo ildo bereko beste batzuk.

7. Nolanahi ere, adjudikazio-irizpide bat baino gehiago aplikatu ahalko da ondoko kontratuak adjudikatzeko:

a) Haien proiektu edo aurrekontuak ezin direnean alde zuzenetik ezarri eta hautagaiek edo lizitatzailleek aurkeztu behar dituzten.

b) Kontratazio-organoak erabakitzen duenean prestazioaren definizioa hobetu daitekeela bestelako konponbide teknikoaren bidez edo exekuzio-epea murriztuta.

c) Organo, erakunde edo entitate kontratazailleak materialak edo baliabide lagungarriak jartzten dituztenean kontratuaren exekuziorako eta haien erabilera egokiak eskatzen duenean kontratistek berme bereziak jartzea.

d) Teknologia bereziki aurreratuaren erabilera eskatzen dutenak edota exekuzio bereziki konplexua dutenak.

e) Obra-emakidetarako eta zerbitzu-emakidetarako kontratuak.

f) Hornidura-kontratuak, salbu erosi beharrezko produktuak erabat zehaztuta badaude eta ezinezkoa bada entrega-epeak aldatzea edo kontratuan inolako aldaketarik egitea eta, beraz, prezioa bada adjudikazioaren faktore erabakigarri bakarra.

g) Zerbitzu-kontratuak, ez bada erosi beharrezko produktuak erabat zehaztuta daudela eta ezinezkoa dela entrega-epeak aldatzea edo kontratuan inolako aldaketarik egitea eta, beraz, prezioa bada adjudikazioaren faktore erabakigarri bakarra.

Izaera intelektualeko prestazioak xedetzat dituzten zerbitzu-kontratuetan eta gizarte zerbitzuak emateko prestazio-kontratuetan, kontratu-exekuziorako izendaturiko pertsonen artean pertsona behartsuen edo talde ahuletako kideen gizarteratzea sustatzen badute, lan-merkatuan txertatzeko zailtasun bereziak dauzkaten pertsonen enplegua sustatzen badute, edo II.A eta II.B eranskinetan jasotako gizarte-, kultura-, hezkuntza- eta osasun-zerbitzuen emateko kontratuak direnean, prezioa ezin izanen da adjudikazioaren faktore erabakigarri bakarra. Era berean, segurtasun pribatuko zerbitzua emateko kontratuetan adjudikazio-irizpide bat baino gehiago aplikatuko dira.

Arkitektura-zerbitzuetako kontratuen adjudikazioan, adjudikazio-irizpideen guztizko portzentajearen % 80a hartuko dute kalitate arkitektonikoari eta horren balio tekniko, funtzional, kultural eta ingurumenekoei buruzko irizpideek. Eskaintza ekonomikoak aipaturiko guztizko portzentajearen % 20 eginen du.

h) Kontratuaren exekuzioak eragin esanguratsua izan ahal duenean ingurumenean. Halakoen adjudikazioan ingurumen-baldintza neurgarriak

baloratuko dira, hala nola ingurumen-inpaktu txikiena, ura eta energiaren eta materialen aurrezpena eta erabilera efizientea, bizitza zikloaren ingurumen-kostua, ekoizpen prozedura eta metodo ekologikoak, hondakinen sorrera eta kudeaketa edota material birziklatu, berrerabili edo ekologikoen erabilera.

8. Kontratazio-organoez zainduko dute kalitate handiko obra, hornidura eta zerbitzuak lortzea ahalbidetuko duten irizpideak ezartzen direla, haien beharrezkoen ahalik eta modu egokienean erantzunen dietenak; eta, bereziki, izaera intelektualeko prestazioak xedetzat dituzten kontratuen prozeduretan, hala nola ingeniariaritzaren eta arkitekturen zerbitzuak hartzea”.

Zioak: Aurkezten den ordezkotestuen erabat mantentzen da Kontratuei buruzko Foru Legearen jatorrizko testuen muina, baina asko hobetzen da, Estatuko legearen artikuluko gehiago sartzen baitira eta nabarmen hobetzen baitira zuzentzerak bilatzen dituen helburuak.

Hasteko, “eskaintza aldekoena” esapidea kentzea proposatzen dugu, nahasmendua bakarrik sor baitezake, eta haren ordezkotestuen egoki eta ulergarriagoak erabiltzea, hala nola “kalitate-prezio erlazioa”. Era esplizituan adierazten dira adjudikazio-irizpide bat baino gehiago kontuan hartu beharreko egoerak, halako moduz non ezabatzen baita adjudikazioa soil-soilik prezioaren arabera erabakitzen den egoera oro. Hala, kalitate handiko obra, hornidura eta zerbitzuak lortzeko aukera handiagoa da, zehazki kontratuari loturiko alderdi kualitatiboak, sozialak, ingurumen-alderdiak edo berrikuntzakoak sartuta.

74. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

61. artikuluko 6. apartatua aldatzeko zuzenketa.

61. artikulua. Adjudikazio irizpideak

“6. Adjudikazio irizpide sozialek guztizko puntuazioaren % 10eko ponderazioa eduki beharko dute gutxienez ere; eta, horretarako, zilegi izanen da kontratuaren xedearekin zerikusia daukaten aferak balioestea, hala nola desgaitasuna daukaten pertsonen edo gizarte-bazterketako egoeran nahiz arriskuan dauden pertsonen laneratze eta

gizarteratzea; emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna; lan, familia eta bizitza pertsonalaren uztartzea; lan- eta soldata-baldintzen hobekuntza; enplegu zentro berezietan eta laneratze enpreetan azpikontratatzeko; irizpide etikoak eta kontratu-prestazioari aplikaturiko erantzukizun sozialari dagozkionak; prestazioan diharduten langileen prestakuntza, haien osasunaren babesa edo parte-hartzea; edo ildo bereko beste batzuk”.

Zioak: Proposatzen da nahitaezkoa izan dadila adjudikazio-irizpide sozialek txertakuntza, eta gutxieneko eduki batzuk izan ditzatela. Halatan lortu nahi da kontratazio-organotestuen guztiek aintzat har ditzatela kontratazio publikoaren onurak eta inpaktu sozialak.

Halaber proposatzen da Kontratuei buruzko Foru Legeko bigarren artikuluko aginduari eragin-kortasuna ematea. Agindu hark gizarte-helburuak kontratazioaren printzipio zuzendari gisa ezartzen ditu.

75. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

61. artikuluko 1. eta 3. apartatuak aldatzeko zuzenketa.

Beharrezkoa da “ekonomikoki onuragarriena den” eskaintzaren ordezkotestuen kalitate-prezio erlaziorik onena agertzen duena jartzea, zuzentzerak xedatzen duen bezala:

1. apartatua:

“Kontratuak kalitate-prezio erlaziorik onena duen eskaintzari adjudikatuko zaizkio”.

3. apartatua:

“Kalitate-prezio erlaziorik onena duen eskaintzaren zehaztapena modu hauetako bat erabiliz eginen da:”

Zioak: Beharrezkoa da “ekonomikoki onuragarriena den” eskaintzaren ordezkotestuen kalitate-prezio erlaziorik onena agertzen duena jartzea, zuzentzerak xedatzen duen bezala.

76. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

6. artikuluari 6.bis apartatu berria gehitzeko zuzenketa.

61. artikulua. Adjudikazio irizpideak

“6. bis. Arkitektura-zerbitzuetako kontratuen adjudikazioan, adjudikazio-irizpideen guztizko portzentajearen % 80a hartuko dute kalitate arkitektonikoari eta horren balio tekniko, funtzional, kultural eta ingurumenekoei buruzko irizpideek. Eskaintza ekonomikoak aipaturiko guztizko portzentajearen % 20 eginen du”.

Zioak: Kontratazio publikoan kalitate arkitektonikoa sustatzea, 2014/24/EB Zuzentarauaren manuei jarraituz, zeinak baimena ematen baitu kontratu jakin batzuetan –eta arkitekturako zerbitzuenek horretarako justifikazioa badute– prezioaren edo kostu ekonomikoaren irizpidea murrizteko, adjudikazioan.

77. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

61. artikuluari testua gehitzeko zuzenketa.

“7. Arkitektura-zerbitzuetako kontratuen adjudikazioan, adjudikazio-irizpideen guztizko portzentajearen % 80a hartuko dute kalitate arkitektonikoari eta horren balio tekniko, funtzional, kultural eta ingurumenekoei buruzko irizpideek. Eskaintza ekonomikoak aipaturiko guztizko portzentajearen % 20 eginen du”.

Zioak: Kontratazio publikoan kalitate arkitektonikoa sustatzea, 2014/24/EB Zuzentarauaren manuei jarraituz, zeinak baimena ematen baitu kontratu jakin batzuetan –eta arkitekturako zerbitzuenek horretarako justifikazioa badute– prezioaren edo kostu ekonomikoaren irizpidea murrizteko, adjudikazioan.

78. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

61. bis artikulua berri bat gehitzeko zuzenketa.

“61. bis artikulua. Kontratazio publikoan genero-perspektiba txertatzea.

1. Kontratazio-organismoek gizonen eta emakumeen arteko berdintasun erreal eta benetakoaren lorpena sustatu beharko dute, kontratu publikoetan genero-perspektiba eraginkortasunez txertatuz, sexuagatiko de factoeko desberdinkeriak ezabatu edo murriztearren.

2. Horretarako, kontratuen adjudikazio-irizpideen eta/edo kontratuen exekuzio-baldintza sozialen artean sartu beharko dute genero-perspektiba, zeharkakotasunez.

3. Horretarako, honako baldintza hauek exigitu edo balioetsi ahalko dira: emakumeen kontratazioa; emakumeak erantzukizuneko postuetan kontratatzea; indarkeria matxistaren biktimak diren edo ahulezia pertsonal, sozial edo ekonomikoko egoeran dauden emakumeak kontratatzea; berdintasun-planak aplikatzea; lana, familia eta bizitza pertsonala uztartzeko neurriak; eskaintza teknikoan genero-perspektiba txertatzea; berdintasun-alorreko ziurtagiriren bat izatea; genero-inpaktuari buruzko oroitidazki bat aurkeztea; edo ildo bereko beste batzuk”.

Zioak: Proposatzen da izaera berariazkoa eta nabarmena ematea kontratazio publikoan genero-perspektiba txertatzeari. Proposatzen da emakumeek pairatzen duten diskriminazioaren izurri hori ikusgai egin eta salatzea, gure gizartetik oraindik erauzi ez dena. Proposatzen da esplizituki deskribatu daitezela kontratazio-pleguetan jasotzeko modukoak diren zenbait irizpide eta betekizun. Eta proposatzen da botere publiko guztiek beren gain har eta bete dezatela lege bidez ezarria den agindu bat (3/2007 Lege Organikoa, emakumeen eta gizonen egiazko berdintasunerakoa), nola baita botere publiko guztiek txertatu behar dutela genero-perspektiba beren politika eta ekintza guztietan, halako moldez non guzti haietan helburu orokor gisa ezarriko baitute emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeriak desagerrarazi eta berdintasuna sustatzea.

79. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

63. artikuluko 1. idatz-zatiko hirugarren paragrafoa aldatzeko zuzenketa.

63. artikulua. Kontratuak exekutatzeko bete beharreko eskakizun sozialak eta ingurumenaren eta genero berdintasunaren arloetakoak.

“Klausula sozialen artean sartuko dira desgaitasuna duten pertsonen kontratazioa sustatzen duten neurriak; esate baterako enplegu zentro bereziekin eta gizarteratze enprekin azpikontratatzeko; gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna; emakumeen kontratazioa; lana, familia eta bizitza pertsonala uztartzea; etorkinen integrazioa; bereziki gazte eta langabeentzako prestakuntza edo elikadura osasuntsua; langabeziari aurre egiteko neurriak, lan baldintza duinak eta oinarritzako lan eskubideen errespetua bermatzen dituztenak ekoizpen katean, Lanaren Nazioarteko Erakundearen oinarritzako konbentzioak bete daitezkeen exigituz, bidezko merkataritzako kontsiderazioak barne”.

Zioak: Beharrezkoa da pleguetan ingurumen-, gizarte- edo enplegu-arloetako klausulak sartzea.

80. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

63. artikuluko 1. apartatuko bigarren paragrafoa aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“Jaso daitezkeen ingurumenaren alorreko ezaugarriak hauek izanen dira, besteak beste: ontzi, bilgarri edo produktu erabiliak berreskuratu edo berriz erabiltzea; produktuak berriz erabil daitezkeen ontzietan ematea; kontratistaren kargura hondakinak edo produktu erabiliak jaso eta birziklatzea; negutegi-efektuko gasen emisioen murrizketa, Ekonomia Iraunkorrari buruzko martxoaren 4ko 2/2011 Legearen 88. artikuluan ezarritako helburura betetzen laguntzeko; uraren kudeaketa jasangarriagoa; aurrezteko eta efizientzia energetikorako neurriak baliatzea eta iturri berriztagarrietatik datorren energia erabiltzea kontratuaren exekuzioan; solteko produktu-banaketa-aren eta ekoizpen ekologikoaren bultzada; edota

kontratu-exekuzioaren ondorioz ukiturik gerta daitezkeen baliabide naturalen mantentzea edo hobekuntza”.

Zioak: Ingurumenaren arloko ezaugarrien edukia hobetzen da.

81. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

63. artikuluko 1. apartatuko hirugarren paragrafoa aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“Kontratuaren ezaugarri sozialak ondoko helburuei buruzkoak izanen dira, besteak beste: desgaitasuna duten pertsonen, pertsona behartsuen edo talde ahuletako kideen gizarteratzea sustatzea kontratu-exekuziorako izendaturiko pertsonen artean eta, oro har, desgaitasuna duten edo gizar-terte bazterketan egon edo horretarako arriskua duten pertsonen gizarteratzea eta laneratzea; enplegu zentro bereziekin eta laneratze enprekin azpikontratatzeko; langabezia borrokatzea, batez ere gazteena, emakumeena eta iraupen luzekoa; lantokian prestakuntza eman dadin sustatzea; kontratuaren exekuzioan aplikatzen diren genero berdintasunaren arloko planak eta, oro har, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna; lana, familia eta bizitza pertsonala uztartzea; lan eta soldata baldintzen hobekuntza; enpleguaren egonkortasuna; pertsona kopuru handiagoko kontratatu behar izatea kontratua exekutatzeko; langileen segurtasun eta osasuna babesteko behar besteko neurriak hartzea; laneko istripuak prebenitzeko neurriak; irizpide etikoak eta erantzukizun sozialeko irizpideak kontratu-prestazioari aplikatzea; edo kontratua exekutatzeko merkataritza ekitatiboan oinarritutako produktuen hornidurari edo erabilerari dagozkien irizpideak”.

Zioak: Ezaugarri sozialen edukia hobetzea.

82. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

63. artikuluko 3. apartatuko lehenengo paragrafoa aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“3. Nolanahi ere, pleguetan honakoei buruzko errekerimenduak jaso beharko dira:

Zioak: Egokiagoa iruditzen zaigu “ohartarazpen” hitza “errekerimendu” hitzarengatik ordezteak;

izan ere, lege testu batean kontzeptu hori derrigor-tasunarekin lotuta dago, ez ordea testuan proposatzen den termino.

83. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

63. artikularen 3. apartatuaren a) letra aldatzeko zuzenketa.

63. artikulua. Kontratuak exekutatzean bete beharreko eskakizun sozialak eta ingurumenaren eta genero berdintasunaren arloetakoak.

“a) Kontratuak errespetatu egin behar ditu lege-, erregelamendu- eta konbentzio-mailetako xedapenak, indarrean daudenak honakoei dago-kienez: fiskalitatea, Gizarte Segurantzza, ingurumenaren babesa, enpleguaren babesa, genero-berdintasuna, sexuagatiko jazarpena edo jazarpen sexuala, lan-baldintzak, laneko arriskuen prebentzioa eta gainerako lan-afarak, desgaitasuna duten pertsonen laneratze eta gizarteratzea, desgaitasuna duten pertsonen kopuru edo portzentaje zehatz bat kontratatzearen betebeharra, eta, batez ere, kontratatu beharreko jarduera kokaturik dagoen sektorean esparrurik baxueneko azken hitzarmenak ezarritako baldintzak”.

Zioak: Proiektuaren testuan jasotzen den oinarriari utsirik, gure ustez osoagoa da proposaturiko testua.

84. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

63. artikuluko 3. apartatuko b) letra aldatzeko zuzenketa.

63. artikulua. Kontratuak exekutatzean bete beharreko eskakizun sozialak eta ingurumenaren eta genero berdintasunaren arloetakoak.

“b) Eskaintza ekonomikoak egokia izan behar du adjudikazio-hartzaileak aurre egin ahal izateko kasuan kasuko hitzarmenaren aplikaziotik heldu den kostuari, gutxienez ere; aintzat harturiko sol-

daten orduko prezioak ezin izanen dira inolaz ere baxuagoak izan hitzarmeneko orduko prezioak gehi Gizarte Segurantzako kostuak baino”.

Zioak: Asmoa da apartatu hori Langileen Estatutuko 83.1 artikularen edukiarekin harmonizatzeta.

85. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

63. artikularen 3. apartatuko c) letra aldatzeko zuzenketa.

63. artikulua. Kontratuak exekutatzean bete beharreko eskakizun sozialak eta ingurumenaren eta genero berdintasunaren arloetakoak.

“c) Zerbitzu-kontratuaren eta zerbitzu-emakidako kontratuaren kasuan, kontratazioa egiten da, 64. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, langile guztien subrogazioa bermatzearen baldintzapean, beste enpresa batekoak izanagatik ere kontratuaren xede den jarduera egiten ari badira”.

86. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

63. artikularen 3. apartatuko c) letra aldatzeko zuzenketa.

63. artikulua. Kontratuak exekutatzean bete beharreko eskakizun sozialak eta ingurumenaren eta genero berdintasunaren arloetakoak.

“c) Kontratuak errespetatu egin behar ditu lege-, erregelamendu- eta konbentzio-mailetako xedapenak, indarrean daudenak honakoei dago-kienez: fiskalitatea, Gizarte Segurantzza, ingurumenaren babesa, enpleguaren babesa, genero-berdintasuna, sexuagatiko jazarpena edo jazarpen sexuala, lan-baldintzak, laneko arriskuen prebentzioa eta gainerako lan-afarak, desgaitasuna duten pertsonen laneratze eta gizarteratzea, desgaitasuna duten pertsonen kopuru edo portzentaje zehatz bat kontratatzearen betebeharra, eta,

batez ere, kontratatu beharreko jarduera kokaturik dagoen sektorean esparrurik baxueneko azken sektoreko hitzarmenak ezarritako baldintzak”.

Zioak: Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 141.1 eta 141.2. artikuluan jasota.

87. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

63. artikuluko 3. apartatuko b) letra aldatzeko zuzenketa. Hona gehitu beharreko testua: “gehi aplikatzekoa den hitzarmeneko orduko prezioari buruzko hobekuntzak”. Horrela geldituko da:

“b) Eskaintza ekonomikoak egokia izan behar du adjudikazio-hartzaileak aurre egin ahal izateko kasuan kasuko sektoreko hitzarmenaren aplikaziotik heldu den kostuari, gutxienez ere; aintzat harturiko soldaten orduko prezioak ezin izanen dira inolaz ere baxuagoak izan orduko prezioak, gehi aplikatzekoa den hitzarmeneko orduko prezioari buruzko hobekuntzak gehi Gizarte Segurantzako kostuak baino”.

Zioak: Testuan soilik aurreikusten dira langileen oinarritzko orduko prezioa gehi Gizarte Segurantzako kostuak, baina ahaztu dira aplikatzeak diren hitzarmen kolektiboetan adostutako zenbait hobekuntza, lansari-kostuaren orduko prezioa handitzen dutenak, hala nola laneko antzintasuna, zenbait egoeratan lan egiteagatik plusak (jaiegunak, gauak...). Ezinbestekoa da lansari kostuaren zenbatekoa kalkulatzeko kontuan hartzea kasuko hitzarmen kolektiboaren alderdi aplikagarri guztiak.

88. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI POPULARREKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

63. artikulua aldatzeko zuzenketa. Esaldi bat gehitzea 63. artikuluan 3. apartatuaren a) letrari. Honako eduki hau izanen du:

63. artikulua. Kontratuak exekutatzean bete beharreko eskakizun sozialak eta ingurumenaren eta genero berdintasunaren arloetakoak.

3. a) (...) kontratatu beharreko jarduerari dagoen sektoreko esparru baxuena duen azken hitzarmen kolektibo sektorialean ezarritako baldintzak. Lizitazio pleguan kontrol- eta

ikuskapen-tresna eraginkorrak ezarri beharko dira Nafarroako hitzarmen kolektiboak bete daitezen”.

Zioak: Zaindu behar da hitzarmen kolektibo sektorialen aplikazioa betetzen dela, betetze hori kontrolatuko duen organismo bat ezarri.

89. ZUZENKETA

GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA, ETA PODEMOS-AHAL DUGU TALDE PARLAMENTARIOEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

63. artikuluan 3. apartatua aldatzeko zuzenketa.

63. artikulua. Kontratuak exekutatzean bete beharreko eskakizun sozialak eta ingurumenaren eta genero berdintasunaren arloetakoak.

“Kontratazio organoek zilegi izanen dute exekuzio-baldintza bereziak ezartzea, enpresa adjudikazio-hartzailea behartzen dutenak ekitate- eta gardentasun fiskaleko irizpideekin exekutatzera kontratua, indarreko zerga-legeriari jarraikiz eta erori gabe kapitalen zurtzean, zerga iruzurrean, Ogasun Publikoaren aurkako delituan edo zerga-paradisuen erabileran. Ildo berberetik, enpresa adjudikazio-hartzailearengandik exigitu ahalko da kontratu publikotik heldutako diru-sarrera edo irabaziaz ez daitezen ezein kasutan erabil Ekonomia Lankidetzara eta Garapenerako Erakundeak, Espainiako Gobernuak edo Europako Batzordeak paradisu fiskalei buruz egindako zerrendan sartutako herrialderen batean eragiketarako egiteko, zuzenean nahiz enpresa filialen bitartez. Horretarako, zilegi izanen da lizitatzaileraren enpresa guztiei erantzukizunpeko adierazpen bat exigitzea, exekuzio-baldintza berezi hori betetzeko konpromisoa onartzekoa. Erantzukizunpeko adierazpen horiek publikoak izanen dira”.

Zioak: Zuzenketak exekuzio-baldintza berezi bat berme juridiko eta tekniko osoz ezartzea proposatzen du, zeinak kontratu publikoen enpresa adjudikazio-hartzaileei exigituko baitie paradisu fiskalak iruzurrez erabiltzea.

Horren legezkotasuna eratoritzen da ezarritako betebeharraren izaeratik beretik, ezen 63. artikuluan adibide gisara jadanik ezarritako kasuak gehitzera mugatzen da. Horrenbestez, zuzenketa hau bete-betean da lege proiektuaren beraren ildokoa, bai eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/24/EB Zuzentarauaren 70. artikuluan ildokoa ere.

Zuzentarau hori kontratazio publikoari buruzkoa da, eta 2004/18/EE Zuzentaru indargabetzen du. Ohartarazi beharrekoa da kontratazio publikoari buruzko araudia eraentzen duten printzipioekiko begirune zorrotza, ezen proposaturiko testua kontratuaren exekuzio-fasera mugatzen da, kontratuko prestazioaren esparrura hertsiki-hertsiki, eta ez da inola ere planteatzen enpresaren politika orokorrari buruz, ez eta kontratuaren exekuzioari berari arrotz zaizkion beste afera edo alderdi batzuei buruz ere.

90. ZUZENKETA

GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA, ETA PODEMOS-AHAL DUGU TALDE PARLAMENTARIOEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

64. artikulua ordeztuko zuzenketa.

64. artikulua. Lan kontratuetan subrogazioa egiteko baldintzei buruzko informazioa.

“1. Subrogazio-baldintzak izanen dira kontratuaren xede den jardueraren hitzarmen kolektibo sektorialean ezarritakoak, halako hitzarmena egonez gero, edo aurreko kontratuan aplikatzen ari zirenak, halakorik ez badago.

Kontratazio-organoak kontratua berriro lizitatzeko asmoaren berri eman beharko dio lantokiko ordezkari sindikalari, horrek gehienez ere hamabost eguneko epean informatu ahal izan dezan ezen, aplikatzekoa den hitzarmen kolektibo sektoriala egonik, subrogatu beharreko langileei lantokian aplikatu beharreko lan-baldintzak altuagoak direla. Ordezkaritza sindikalak aplikatu behar diren baldintzei buruzko txostena eman ondoren, baldintza horiek pleguan jaso beharko dira.

2. Enpresa berria subrogatu eginen da aurrekoak zeuzkan lan-eskubide eta -betebeharretan, bai eta Gizarte Segurantzarekikoetan, pentsio-konpromisoak barne, haien berariazko araudiak ezarritakoari jarraikiz, bai eta, oro har, hartuak leuzkakeen babes sozial osagarriaren arloko betebehar guztietan. Kontratuaren enpresa adjudikazio-hartzaileak kontratuaren zati bat besteren esku uzteko aukera dagoela aurreikusiz gero, bigarren enpresa horrek jarduera hori egiten zuten langile guztiak subrogatu beharra daukala jasoko da; enpresa berria aurrekoaren eskubide eta betebehar laboraletan eta Gizarte Segurantzarekikoetan subrogatuta geratzen da, pentsio konpromisoak barne, araudi espezifikoan aurreikusitakoaren arabera, eta, oro har, gizarte-babes osagarriaren

arloan bere gain hartutako betebehar guztiei dagokienez.

Kontratazio-organoaren mendeko zerbitzuek pleguan bertan lizitatzaileri behar den informazioa eman beharko diete subrogazioak ukitzen dituen langileen kontratuak baldintzei buruz, neurri horrek ekarriko dituen lan-kostuen ebaluazio zehatza egin ahal izateko. Halaber, adierazita utzi beharko da informazio hori ematen dela artikulua honetan ezarritakoa betez.

Ondorio hauetarako, adjudikatu beharreko kontratuaren xede den prestazioa ematen ari zen enpresa, ukitutako langileen enplagatzaile izaera duenean, behartuta egonen da aipaturiko informazioa kontratazio-organoari ematera, horrek eskaturik. Informazio horren zati bezala, betiere aurkeztu beharko dira subrogatuko diren langileen zerrendak, honakoak adierazita: aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboa eta langile bakoitzaren kategoria, kontratu-mota, lanaldia, antzinatea, data, kontratuaren muga-eguna eta urteko soldata gordina, bai eta subrogazioak ukitzen dituen langile guztiei aplikatzekoak diren indarreko itun guztiak. Administrazioak enpresaburu berriari jakinaraziko dio aurreko kontratistak eman dion edonolako informazioa.

3. Artikulu honetan langile-subrogazioari buruz xedaturikoa halaber izanen zaie aplikagarri kooperatibetako bazkide langileei, atxikita daudenean subrogatu den zerbitzu edo jarduerara.

4. Baldin eta administrazio publiko batek erabakitzen badu zuzenean ematea kasuan kasuko egunera arte eragile ekonomiko batek emana zen zerbitzu bat, behartuta egonen da zerbitzu hori ematen ari ziren langileak subrogatzera, eta lanpostuan mantenduko dira harik eta lanpostuak berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioekin bat oposizio-lehiaketa bidez betetzen diren arte. Baldin eta adjudikatu beharreko kontratuaren xede den prestazioa ematen aritu den enpresa enplegu zentro berezi bat bada, adjudikazio-hartzaile suertatzen den enpresa behartuta egonen da aipaturiko kontratuaren exekuzioan ziharduten pertsona desgaitu guztien enplegatzaile gisa subrogatzera.

5. Administrazio klausula partikularren pleguak nahitaez jasoko du kontratistari zigorak ezartzea, 139. artikuluan adierazitako mugapean, kontratistak artikulu horretan ezartzen den betebeharra urratzearen kasuan.

6. Baldin eta, behin subrogazioa gauzaturik, lan-kostuak handiagoak izanen balira aurreko kontratistak kontratazio-organoari emandako informazioetik ondorioztatzen direnak baino, kontratistak

zuzeneko akzioa izanen du aurreko kontratistaren aurka.

7. Era berean, eta ezertan ukatu gabe kasua bada aplikatzea urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 44. artikuluan ezarritakoa, administrazio klausula partikularren pleguan beti xedatu beharko da kontratistaren betebeharra dela subrogazioak ukitutako langileei ordaindu gabeko soldaten erantzule izatea, bai eta sortutako Gizarte Segurantzarako kotizazioena ere, are kontratua suntsitu eta kontratista berriak langile haiek subrogatzen dituenean, betebeharrak hori kontratista berriarena inola ere izan gabe. Kasu horretan, behin soldata horiek ordaindu gabe daudela frogatuta egon ondoren, Administrazioak kontratistari zor zaizkion kopuruak atxikiko ditu, soldata horien ordainketa bermatzeko, eta ez du behin betiko bermea itzuliko harik eta soldata horien ordainketa frogatzen den arte.

8. Pleguetan aurreikusten bada adjudikazio-hartzaileari zenbait lan harremanetan enplegu emaile gisa subrogatzeko betebeharra ezartzea, kontratazio organoak lizitatzaileri kontratuen baldintzei buruzko informazioa eman beharko die pleguan bertan, neurri horrek ekarriko dituen lan kostuen ebaluazio zehatza egiteko behar dena.

Ondorio hauetarako, adjudikatu beharreko kontratuaren xede den prestazioa ematen ari zen enpresa, ukitutako langileen enplegatzaile izatera duenean, behartuta egonen da aipaturiko informazioa kontratazio-organuari ematera, horrek eskatzen duenetik hamar eguneko gehieneko epean. Betebeharrak hori ez betetzeak zigorra ezartzea ekarriko du, adjudikazioaren prezioaren %0,1 adinakoa informazioa aurkezteko eguna atzeratzen den egun bakoitzeko, betebeharra bete arte”.

Zioak: Testu honekin problema bat saihesten da, sor daitekeena administrazio klausulen pleguek ez dutenean jasotzen legedian, hitzarmenean edo akordio batean aintzat hartzen diren langileen subrogazioa nahitaezkoa izaterik.

91. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

64. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

“64. artikulua. Lan kontratuetan subrogazioa egiteko baldintzei buruzko informazioa.

1. Arauren batean, hitzarmen kolektibo batean edo negoziazio kolektiboaren ondoriozko eragin

orokorreko erabakiren batean aurreikusten bada adjudikazio-hartzaileari zenbait lan harremanetan enplegu emaile gisa subrogatzeko betebeharra ezartzea, kontratazio-organoren mendeko zerbitzuek pleguan bertan lizitatzaileri behar den informazioa eman beharko diete subrogazioak ukitzen dituen langileen kontratuetako baldintzei buruz, neurri horrek ekarriko dituen lan-kostuen ebaluazio zehatza egin ahal izateko. Halaber, adierazita utzi beharko da informazio hori ematen dela artikuluko honetan ezarritakoa betez.

Ondorio hauetarako, adjudikatu beharreko kontratuaren xede den prestazioa ematen ari zen enpresa, ukitutako langileen enplegatzaile izatera duenean, behartuta egonen da aipaturiko informazioa kontratazio-organuari ematera, horrek eskatzen duenetik hamar eguneko gehieneko epean. Informazio horren zati bezala, betiere aurkeztu beharko dira subrogatuko diren langileen zerrendak, honakoak adierazita: aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboa eta langile bakoitzaren kategoria, kontratu-mota, lanaldia, antzinatasun-data, kontratuaren muga-eguna eta urteko soldata gordina, bai eta subrogazioak ukitzen dituen langile guztiei aplikatzekoak diren indarreko itun guztiak. Administrazioak kontratua amaitzen duen enpresak emandako informazioa egiaztatuko du kontratua arautzen duten pleguetan jaso baino lehen, eta enpresaburu berriari jakinaraziko dio aurreko kontratistak emandako informazioa. Betebeharrak hori ez betetzeak zigorra ezartzea ekarriko du, adjudikazioaren prezioaren %0,1 adinakoa informazioa aurkezteko eguna atzeratzen den egun bakoitzeko, betebeharra bete arte.

2. Artikulu honetan langile-subrogazioari buruz xedaturikoa halaber izanen zaie aplikagarri kooperatibetako bazkide langileei, atxikita daudenean subrogatu den zerbitzu edo jarduerara.

Baldin eta adjudikatu beharreko kontratuaren xede den prestazioa ematen aritu den enpresa enplegu zentro berezi bat bada, adjudikazio-hartzaile suertatzen den enpresa behartuta egonen da aipaturiko kontratuaren exekuzioan ziharduten pertsona desgaitu guztien enplegatzaile gisa subrogatzera.

3. Baldin eta administrazio publiko batek erabakitzen badu kasuan kasuko egunera arte eragile ekonomiko batek emana zen zerbitzu bat zuzenean ematea, behartuta egonen da zerbitzu hori ematen ari ziren langileak subrogatzera, hala ezartzen bada arau, hitzarmen kolektibo edo negoziazio kolektiboaren ondoriozko eragin orokorreko erabakiren batean.

4. Administrazio klausula partikularren pleguak nahitaez jasoko du kontratistari zigorrak ezartzea, foru lege honetan adierazitako mugapean, kontratistak artikuluko horretan ezartzen den betebeharra urratzearen kasuan.

5. Baldin eta, behin subrogazioa gauzaturik, lan-kostuak handiagoak izanen balira aurreko kontratistak kontratazio-organoari emandako informazioetik ondorioztatzen direnak baino, kontratistak zuzeneko akzioa izanen du aurreko kontratistaren aurka.

6. Era berean, eta ezertan ukatu gabe kasua bada aplikatzea urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 44. artikuluan ezarritakoa, administrazio klausula partikularren pleguan beti xedatu beharko da kontratistaren betebeharra dela subrogazioak ukitutako langileei ordaindu gabeko soldaten erantzule izatea, bai eta sortutako Gizarte Segurantzarako kotizazioena ere, are kontratua suntsitu eta kontratista berriak langile haiek subrogatzen dituenean, betebehara hori kontratista berriarena inola ere izan gabe. Kasu horretan, behin soldata horiek ordaindu gabe daudela frogatuta egon ondoren, Administrazioak kontratistari zor zaizkion kopuruak atxikiko ditu, soldata horien ordainketa bermatzeko, eta ez du behin betiko bermea itzuliko harik eta soldata horien ordainketa frogatzen den arte”.

Zioak: Uste dugu ezinbestekoa dela subrogatuko diren langileen lan baldintzen kalitatea bermatzeko; hori dela eta, Estatuko legearen testua aurkezten dugu.

92. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

65. artikuluko 2. apartatuko lehen paragrafoa aldatzeko zuzenketa.

“65. artikulua. Etiketak.

2. Kontratazio organoen asmoa denean ingurumen-, gizarte- edo beste arlo bateko ezaugarri bereziak dituzten obrak, hornidurak edo zerbitzuak kontratatzea, berriazko etiketa bat exigitu behar dute agindu teknikoetan, adjudikazio-irizpideetan edo kontratuaren exekuzio-baldintzetan, kasuko obrek, zerbitzuek edo hornidurek ezarri diren baldintzak betetzen dituztelako frogabide gisa;

adibidez, etiketa ekologikoak, bidezko merkataritza-erantzukizun sozialekoak, genero-berdintasunekoak, edo Lanaren Nazioarteko Erakundearen oinarritzko konbentzioen betetzea bermatzen dutenak; betiere, honako baldintza hauek betetzen badituzte:”.

Zioak: Lege proiektuko 65. artikulua eraentzen ditu kontratazio-organoek etiketak exigitzearen nondik norakoak, eta zuzenketaren asmoa da gizarte- eta ingurumen-arloetako etiketatze zehatz batzuen adibideak zerrendatzea, kontratazio organoei aukera hori argitu eta bermatzeko aldera.

Hori dela-eta, gogorarazteko modukoa da kontratu-xedearekiko lotura zehaztu eta argitu dela, eta, araudi berrian, hark barnean hartzen duela kontratu horren ondorioz egin beharreko prestazioekin zerikusia duen edo haiek biltzen dituen oro, edozein ikuspegitatik eta haien bizitza-zikloaren edozein etapatan. Barne hartzen dira kasuko obren, horniduren edo zerbitzuen ekoizpen, prestazio-emate edo merkaturatzeko prozesu zehatzean parte hartzen duten faktoreak, bai eta haien bizitza-zikloko beste etapa baten prozesu zehatzean parte hartzen dutenak ere, are faktore horiek haien substantzia materialaren parte ez direnean.

Aurrekoari gehitu behar zaio ezen, adjudikazio-irizpideen eta exekuzio-baldintzen artean, berriazko aipamenak egiten direla genero-berdintasunaz, ingurumenaz, irizpide etikoez eta kontratu-prestazioari aplikaturiko erantzukizun sozialeko irizpideez, edo Lanaren Nazioarteko Erakundearen oinarritzko konbentzioez. Ildo horretatik, asko dira, eta ugarituz doaz, gizarte- eta ingurumen-kalitatea bermatzeko ekimen, ziurtapen eta sistemak, gizarte- eta ingurumen-etiketatzeko kontuetan lanean dihardutenak; horregatik, kontratazio publikoak abagune ezin hobea eskaintzen du haiek balioan jarri eta erabiltzeko, egiaztatze-baliabide objektiboak, arautuak eta berme osokoak eskaintzen baitituzte.

Beraz, puntu zehatz bat erantsi nahi da berriaz, gizarte- eta ingurumen-arloetako etiketak espresuki adierazi eta adibide gisa jasoko dituenak; are gehiago, kontuan harturik ezarritako berme eta betekizunek lehia askea eta diskriminaziorik eza ziurtatzen dituztela; eta gainera, azken buruan baimena ematen da etiketa “baliokide” bat ezartzeko edo zehaztapen teknikoaren betetzea zuzenbidez onartutako beste edozein frogabidez egiaztatzeko.

Halatan, tenore onekoa da gizarte- eta ingurumen-arloetako etiketatze guztia esplizitatzea eta

hari behar duen garrantzia ematea, kontratu-presazioan onura sozial eta ekologiko gehigarri bat ahalbidetuz, tratu-berdintasuna bermatuz eta kontratazio-organoentzat argiro ezarriz zilegi dutela etiketa horiei erreferentzia egiten dieten agindu teknikoak, adjudikazio-irizpideak edo kontratu-exekuziorako baldintzak ezartzea.

93. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

65. artikuluko 2. apartatuan e bis) letra berri bat gehitzeko zuzenketa.

“e bis) Etiketen erreferentziak ez dezatela berrikuntza murriztu”.

Zioak: Testua hobetzen da, Estatuko legean jasota baitago.

94. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

66. artikuluari beste apartatu bat –bi bis– gehitzeko zuzenketa.

“2. bis. Kontratazio-neurriek egoki diren neurriak hartuko dituzte, xedatze aldera kontratuen exekuzioan kontratistek bete egiten dituztela ingurumenaren, gizartearen edo lanaren arloetan aplikatzeak diren betebeharrak, ezarrita datozenak Europar Batasunaren zuzenbidean, zuzenbide nazionalan, hitzarmen kolektiboetan edo Estatuarentzat lotesleak diren ingurumen-, gizarte- eta lan-arloetako nazioarteko zuzenbideko xedapenetan; bereziki, foru lege honetan jasotakoetan.

Aurreko paragrafoan adierazitakoa ezartzen da ezertan kaltetu gabe kontratazio-organoen boterea, egoki diren neurriak hartzekoa hautagaiek eta lizitatzailleek paragrafo horretan jasotzen diren betebeharrak bete egiten dituztela lizitazio-prozeduran zehar egiaztatzeko.

Lehen paragrafoan jasotako betebeharren urraketak eta, batez ere, soldaten ordainketan gertaturiko urraketa edo atzerapen errepikatuek edo soldata-baldintza baxuagoak aplikatzeak hitzarmen kolektiboetatik eratorriak direnak baino, astuna eta dolozkoa denean, erakarriko dute pleguak aipatu beharreko zigorrak ezartzea”.

Zioak: Foru lege proiektuaren 134 eta 139. artikuluetan adierazten den moduan, kontratua kudeatzen duen unitateak emandako aginduak bete ezean zigorrak ezarriko dira. Pleguan zigor

horiek aurreikusi behar dira. Testu hori gehitzeak kontrol espezifikoa dakar pleguko konpromisoak behar bezala betetzen direla zaintzeko.

95. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

67. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Proposatzen dugu artikulua hori kentzea eta Nafarroako Alderdi Sozialistak ondoren aurkezten duen zuzenketarekin ordeztzea, administrazio publikoaren oinarriko araubide juridikoaren baldintzen homogeneotasuna gordetze aldera.

96. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Zenbait artikulua gehitzeko zuzenketa, 67.etik hasita.

“67. artikulua. Behin-behineko bermea eskatzea eta haren araubidea.

1. Kontratazio-prozeduran ez da eskatuko behin-behineko bermerik, salbu eta salbuespeneko kasu batean, alegia, kontratazio-organoak, interes publikoko arrazoiengatik, beharrezkotzat jotzen duenean eta espedientean era arrazoituan justifikatzen badu. Kasu horretan, lizitatzailleei eskatuko ahalko zaie alde zuzenetik berme bat jaritzeko, kontratua gauzatu arte eskaintzak mantenduko direla ziurtatzeko.

2. Kontratazio-organoak behin-behineko bermea eskatzea erabakitzen duenean, administrazio klausula partikularren pleguetan zehaztuko da berme horren zenbatekoa, zeina ezin izanen baina kontratuaren lizitazio-oinarriaren ehuneko 2 baina handiagoa izan, Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta hura itzultzeko araubidea kontuan hartu gabe. Behin-behineko bermea 67 bis artikuluen 1. apartatuan aurreikusitako moduetako batean emanen da.

Sortakako banaketa egonez gero, behin-behineko bermea zehaztuko da kontuan hartuta soilik lizitatzailleak zer sortatarako eskaintza aurkeztu, horien zenbatekoa, eta ez kontratuaren osoko aurrekontuaren zenbatekoa.

Esparru-akordioetan eta erosketarako sistema dinamikoetan, behin-behineko bermerik eskatzen bada, haren zenbatekoa osotasunaren gaineko kopuru bat izanen da eta Administrazio Publikoak ezarriko du, baina ezin izanen du inolaz ere kon-

tratuaren balio zenbatetsiaren ehuneko 2 baino handiagoa izan.

3. Behin-behineko bermeak eskatzen direnean, hauek foru lege honetan garapen-arauek ezarritako baldintzetan gordailutuko dira, honako moduan:

a) Entitate kontratatzaileak kontratazio-plegua ezarritako organoaren aurrean.

b) Kontratazio-organoaren aurrean, ibilgutuen ziurtagiriak direnean.

4. Behin-behineko bermea automatikoki iraugiko da eta lizitatzaileri itzuliko zaie kontratua gauzatu eta berehala. Edonola ere, behin-behineko bermea itzuliko zaio adjudikazio-hartzaile gisa hautatutako lizitatzaileri behin betiko bermea erazten duenean. Horretarako, behin-behineko bermearen zenbatekoa aplikatu ahalko dio behin betikoari, edota berritik eratu ahalko du behin betiko bermea.

67. bis artikulua. Behin betiko bermea eskatzea.

“1. Administrazio publikoek egiten dituzten kontratuen lizitazioetan 63. artikuluan ezarritakoari jarraikiz eskaintza onenak aurkezten dituzten lizitatzailerek kontratazio-organoari eman beharko diote hark eskaintako azken prezioaren ehuneko 4ko bermea, Balio Erantsiaren gaineko Zerga kanpoan dela. 43. artikuluan 7. apartatua aipatu behin-behineko prezioa duten kontratuen kasuan, ehunekoa kalkulatu da finkatutako gehienezko prezioa kontuan hartuta, Balio Erantsiaren gaineko Zerga kanpoan dela.

Hala ere, kontratuaren inguruabarrak kontuan hartuta, kontratazio-organoak behin betiko bermea eratzeko betebeharretik salbuetsi ahalko du adjudikazio-hartzailea, administrazio klausula partikularren pleguan behar bezala justifikatuta; bereziki, prezioa ordaindu baino lehen eman eta jaso beharreko ondasun kontsumigarriak hornitzeko kontratuetan eta zerbitzu sozialen prestazioa edo gizarte-bazterketaren arriskuan daude taldeetako pertsonen gizarteratzea edo laneratzea xedetzat duten kontratuetan. Obra-kontratuetan eta herri-lanen kontzesioko kontratuetan ezin izango da horrelako salbuespenik egin.

2. Zenbait kasu berezitan, aurreko paragrafoan zehaztutako bermeaz gainera beste berme osagarri bat ere aurkeztu behar dela ezarri ahal izango du pleguan kontratazio-organoak; berme hori izanen da 63. artikuluan ezarritakoari jarraikiz eskaintza onena aurkeztu duen lizitatzailerek eskaintako azken prezioaren ehuneko 4ra artekoa, Balio Erantsiaren gaineko Zerga kanpoan dela, eta berme osoak aipatu prezioaren ehuneko 10 egin dezake.

Ondorio horietarako, ulertuko da kasu bereziak direla zenbait kontratu, zeinetan, kontratazio-organoak bere gain hartzen duen arriskuagatik, kontratuaren izaera, ordainketa-araubide edo kontratua betetzeko baldintza bereziak tarteko, gomendagarria baita aurreko apartatua aipatzen den ohiko behin betiko bermearen zenbatekoa handitzea, erabaki arrazoitu baten bidez. Bereziki, aurrekusi ahal izanen da berme osagarri hori eskatzea adjudikazio-hartzailearen eskaintzak hasiera batean baxuegitasun-presuntzioa baldin bazuen.

3. Kontratuaren zenbatekoa unitateko prezioen arabera zehazten denean, eratu beharreko bermearen zenbatekoa lizitazioaren oinarri gisa ezarritako aurrekontuaren arabera izango da, BEZik gabe.

4. Obren emakidetan eta zerbitzuen emakidetan, kontratazio-organoak kasu bakoitzean zehaztuko du behin betiko bermearen zenbatekoa administrazio-klausula partikularren pleguan, kasuko emakidaren izaera, garrantzia eta iraupenaren arabera.

5. Esparru-akordioak eta erosketarako sistema dinamikoak arautzen dituzten pleguetan ezarriko da behin betiko bermea Administrazioak gutxi gorabehera finkatuko duen edota kontratu bakoitzerako ezartzen den, adjudikazio-zenbatekoaren arabera.

Esparru-akordioaren edo erosketarako sistema dinamikoaren behin betiko berme orokor bat eratzeko hautua egiten bada, Administrazioak gutxi gorabehera finkatutakoa, esparru-akordioan eta erosketarako sistema dinamikoan oinarritutako kontratuen zenbatekoen batura, BEZik gabe, behin betiko bermearen zenbatekoa ehuneko 4an kapitalizatzearen ondoriozko zenbatekoaren bikoitza baino handiago denean, bermeri halako zenbatekoa gehitu beharko zaio.

Aurreko paragrafoetan aipaturiko behin betiko bermearekin erantzunen zaie esparru-akordioaren eta erosketarako sistema dinamikoaren urraketei, bai eta horietatik eratorritako kontratuen edo berarizkoen urraketei ere.

67. bis (2) artikulua. Behin betiko berme onargarriak.

1. Administrazio publikoekin eginiko kontratuetan eskatutako behin betiko bermeak ondoko moduetako batean eratu ahalko dira:

a) Eskudirutan.

b) Espainian jarduteko baimena duten banku, aurrezki kutxa, kreditu kooperatiba eta elkarren

bermerako sozietateek lehenengo errekerimenduan emandako abala.

c) Kauzioaren alorrean jarduteko baimena duen aseguru-entitate batekin eginiko kauzio-aseguruaren kontratu baten bidez.

2. Hala aurreikusten denean administrazio klausula partikularren pleguetan, behin betiko bermea prezioaren atxikipena eginez eratu ahalko da obretarako kontratueta eta hornidura eta zerbitzu kontratueta, bai eta zerbitzuen kontzesioetarako kontratueta, administrazio kontratatzailea bada tarifak ordaintzen dituen. Administrazio klausula partikularren pleguetan ezarriko da atxikipena egiteko modua eta baldintzak.

3. Behin betiko bermea eratu izanari buruzko ziurtagiria bide elektronikoen bitartez egin ahalko da.

67. bis (3) artikulua. Bermeak eratzea, berrezartzea eta birdoitzea.

1. 63. artikuluan ezarritakoari jarraikiz eskaintza onena aurkeztu duen lizitatzailerak behin betiko bermea eratu izana ziurtatu beharko du hamar egun baldioduneko epean. Baldintza hori ez badu betetzen berari egozten ahal zaizkion arrazoiak tarteko, administrazioak ez dio adjudikaziorik emanen.

2. Behin betiko bermearen gainean gauzatzen badira kontratistari eskatu ahal zaizkion zigorrak edo kalte-ordainak, hark bermea berrezarri edo handitu beharko du dagokion kopuruan, exekutatu eta hamabost eguneko epean. Hala ez badu egiten, kontratua suntsiarazteko kausa izanen da.

3. Kontratuan aldaketaren bat egitearen ondorioz haren prezioa aldatzen bada, bermea birdoitu beharko da, prezio aldatu berriarekin beharrezkoa den proportzioa gorde dezan, aldaketaren erabakia enpresaburuari jakinarazten zaion egunetik hasi eta hamabost eguneko epean.

4. Behin betiko bermea kauzio-aseguruaren kontratu bidez eratzen denean eta kontratuaren iraupena bost urtetik gorakoa bada, kontratistak behin betiko berme gisa aurkeztu ahalko du kontratuaren iraupena baino iraupen laburragoa duen kauzio-aseguruaren kontratu bat. Kasu horretan, kauzio-aseguruaren kontratua mugaeguneratu baino bi hilabete lehenago, gutxienez, berme berri bat jarri beharko du edota kauzio-aseguruaren kontratua luzatu, eta kontratazio-organoari jakinarazi beharko dio. Bestela, behin betiko bermea bahituko da, 67 bis (4) c) artikulua aplikazioaren ondorioz.

67. bis (4) artikulua. Bermeari loturiko erantzukizunak.

Behin betiko bermeak soilik ondoko kontzeptuengatik erantzungo du:

a) Kontratua epe barruan formalizatzeko betebeharra.

b) Kontratistari ezarritako zigorrak.

c) Kontratuan jasotako prestazioak behar bezala gauzatzea, kontratistak eskaini eta kontratazio-organoak onartutako hobekuntzak barne, kontratistak bere betebeharrak berandu betetzeagatik administrazioari sorturiko gastuak, eta kontratuaren exekuzioa dela-eta edo hura ez betetzeagatik Administrazioari sorturiko kalte eta galerak, kontratua suntsiaraztea bidezkoa ez denean.

d) Kontratua suntsiarazten den kasuetan ezar daitekeen bahiketa, kontratuan edo foru lege honetan ezarritakoari jarraikiz.

e) Gainera, obra-, zerbitzu- eta hornidura-kontratueta, behin betiko bermeak erantzunen du eraikitako edo hornitutako ondasunen edota emandako zerbitzuen akats edo gabeziengatik kontratuan aurreikusitako berme-epean.

67. bis (5) artikulua. Behin betiko bermeen itzulketa eta ezereztea.

1. Bermea ez da itzuli edo ezereztuko berme-epea amaitu arte eta kasuko kontratua behar bezala bete arte, edota haren baliogabetzea, kontratistaren errurik gabea, deklaratu arte.

2. Kontratuaren likidazioa onartu eta berme-epea igarotakoan, erantzukizunik ez badago, eraturitako bermea itzuliko da edo abala edo kauzio-aseguru deuseztatuko da.

Berme-epea amaitu eta bi hilabeteko epean itzulketarako erabakia hartu eta jakinaraziko beharko zaio interesdunari. Epe hori amaiturik, administrazioak ordaindu beharko dio kontratistari zor dion zenbatekoa gehi epe horren amaieratik berme itzultzen denera arteko aldian diruak izandako legezko interesa, itzulketa ez bada gauzatu administrazioari egozten ahal zaion arrazoiengatik.

3. Onarpen partzialeko kasuetan, kontratistak soilik eskatu ahalko du bermearen zati proportzionala itzultzea edo ezerezte espresuki baimentzen denean administrazio klausula partikularren pleguan.

4. Kontratuen lagapen kasuetan, lagatzaileak emandako bermea ez da itzuliko edo ezereztuko lagapen-hartzailearena formalki eratuta egon arte.

5. Kontratu amaitu eta urtebetera, eta berme-epa amaituta, onartze formala eta likidazioa ez badira egin kontratistari egotzi ahal ezin zaizkion arrazoiengatik, gehiago luzatu gabe itzuli edo ezeztuko dira bermeak, 67 bis (4) artikuluan aipatu erantzukizunak argitu ondoren.

Kontratuaren balio zenbatetsia milioi bat euro baino gutxiagokoa denean, obra-kontratuaren kasuan, edo 100.000 eurotik beherakoa, gainerako kontratuetan, edota enpresa lizitatzailerik enpresa txiki eta ertainen baldintzak betetzen dituztenean, Europako Batzordearen 2008ko abuztuaren 6ko 800/2008(EB) Erregelamenduan ezarritakoaren arabera –horren bidez, merkatu komunarekin bateragarriak diren zenbait laguntza-kategoria deklaratzeko, Europar Batasunaren funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikuluen aplikazioan– eta baldintza horiek betetzen ez dituen enpresa baten kontrolpean ez daudenean, zuzenean edo zeharka, epea sei hilabetera murriztuko da.

67. bis (6) artikulua. Hirugarrenek utzitako bermeen araubidea.

1. Kontratista izan gabe haren alde bermeak uzten dituzten ez diren pertsona edo entitateek ezin izanen dute baliatu Kode Zibileko 1.830. artikuluan eta eta horrekin lotutakoetan aurreikusitako eskusio-onura.

2. Abal-emailea edo aseguratzailea alde interesatutzat hartuko da utzitako bermeari eragiten dioten prozeduretan, administrazio-prozedura erkidearen alorrean indarrean dagoen legedian aurreikusitako moduan.

3. Kauzio-aseguratuaren kontratuan ondoko arauak aplikatuko dira:

a) Aseguru-hartzailea izatera izanen du kontratistak eta aseguruaren, berriz, administrazio kontratatzaileak.

b) Prima ez ordaintzeak –bakarra, lehenbizikoa edo hurrengoak izanda ere– ez dio eskubiderik emanen aseguratzaileari kontratua suntsiarazteko, eta ez du asegurua iraungiko, ez estaldura etengo ere. Halaber, ez du aseguratzailea bere betebeharretik liberatuko, bermea gauzatu behar izanez gero.

c) Aseguratzaileak ez izan izanen dizkio jarri aseguruari aseguru-hartzailearen aurka legozkiokeen salbuespenak.

67. bis (7) artikulua. Lehentasun bermeen exekuzioan.

1. Bai behin-behineko bermeak bai behin betikoak gauzatzeko, administrazio kontratatzaileak

lehentasuna izanen du beste hartzekodun oren aurretik, edozein dela ere haren izaera eta bere kredituaren sorburu den titulua.

2. Bermea nahikoa ez denean hari loturiko erantzukizunak estaltzeko, administrazioak aldea kobratuko du premiamendu-prozedura administrazioaren bidez, diru-bilketari buruzko arauetan ezarritakoari jarraikiz.

3. Konkurtsoei buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen 90. artikuluan ezarritakoa galarazi gabe, konkurtso egoeretan ex lege betebeharretatik eratorritako kredituak edo administrazio-egintzen ondorioz sorturikoak lehentasun orokorreko kreditutzat hartuko dira, 22/2003 Legearen 91.4 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

67. bis (8) artikulua. Sektore publikoko beste kontratu batzuetan eska daitezkeen bermeak. Kasuak eta araubidea.

1. Administrazio publiko izaera ez duten sektore publikoko entitateek egiten dituzten kontratuetan, kontratazio-organoek berme bat emateko eskatu ahal diete lizitatzailerik edo hautagaierik, adjudikaziora arte eta, kasua bada, kontratua formalizatu arte eskaintzak mantentzen direla ziurtatzeko, bai eta adjudikazio-hartzaileei ere, prestazioa modu egokian gauzatzeko dela ziurtatzeko.

2. Bermea 67 bis artikuluan aurreikusitako moduetako batean emanen da, eta haren zenbatekoa eta itzulketaren eta ezereztearen araubidea kontratazio-organoak ezarriko ditu, kontratuaren inguruabarrak eta ezaugarriak kontuan hartuta. Hala ere, ezin izanen dira gainditu 67.2 eta 67 bis.2 artikuluetan ezarritako mugak, kasuaren arabera”.

Zioak: Xedea da Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen IV. titulua –”Sektore publikoko kontratuetan eska daitezkeen bermeak”– aldatzea, 67. artikulua kentzeko aurkeztutako zuzenketaren ondorioz, betiere foru lege proiektuak aurkeztutako ehunekoak errespetatuz; izan ere, uste dugu beharrezkoa dela administrazio publikoen oinarritzeko araubide juridikoaren baldintzen homogeneotasuna izatea.

97. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

70. artikulua aldatzeko zuzenketa. 2. apartatua ordeztu egiten da:

“2. “Kontratazio-organoak adieraziko du prozeduran parte hartzera gonbidatuko dituen enpresaburuen gutxieneko kopurua, zeina ez baita bost baino gutxiagokoa izanen. Hautaketa-irizpideak betetzen dituzten hautagaien kopurua gutxieneko kopuru hori baino baxuagoa denean, kontratazio-organoak zilegi izanen du prozedura jarraitzea eskaturiko baldintzak betetzen dituztenekin, eta debeku izanen da prozeduran parte hartzea eskatu ez duten enpresaburuei horretara gonbita egitea, edo baldintza horiek betetzen ez dituzten hautagai”.

Zioak: Gonbidapenen gutxieneko kopurua 3tik 5era igotzea proposatzen da, hiru gutxiegi direlako. Gainera, komeni da babes-neurri bat ezartzea, prozedura ez dadin bidegabeki erabil; halatan, beharrezkoa da gonbidatu gehiagoren parte-hartzea edo gonbidapenen baldintzen aldaketa eragozte.

98. ZUZENKETA

GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA, ETA PODEMOS-AHAL DUGU TALDE PARLAMENTARIOEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

76. artikularen 1. apartatua aldatzeko zuzenketa.

76. artikulua. Proiektuen lehiaketa.

“1. Plan edo proiektuak egiteko eta obra-zuzendaritzarako, bereziki lurralde antolamenduarien, hirigintzaren, arkitekturaren, ingeniariaren eta datu-prozesatzearen arloetan, kontratazio-organoak proiektuen lehiaketa erabiliko du, zeinaren ezaugarri baita parte-hartzaileekin loturarik ez duten pertsona fisikoek bakarrik osatutako epaimahai batek esku hartzen duela”.

Zioak: Foru lege proiektuaren testua zeharo murriztailea da, lehiaketa-mota horretarako baldintza gisa jartzen baitu proiektuaren berezitasuna; hots, edozein interpretazio izan dezakeen kontzeptu lauso eta abstraktua, duen zehazgabetasunarengatik diskrezionaltasunerako bide nabarmena ematen duena.

Sorkari arkitektonikoaren eta eraikuntzaren kalitatea bermatzeko, bai eta proiektuaren egilearen jabetza intelektualerako eskubideak ere, beharrezko gertatzen da –arau orokor gisa, eta salbuespena izanik kontratazio-organoak faseka egitea adjudikazioa eta horren justifikazioa ematea– adjudikazioak barne har dezan hala proiektua

nola obra-zuzendaritza; gainera, zenbait prozedura saihesten dira, kostuak aurrezten, eta ziurtatzen ezen proiektua egin duen –eta, beraz, horren gaineko ezagutza osoa duen– profesionala dela obra-zuzendaritza bere gain hartuko duena.

99. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

76. artikuluko 1. apartatua aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko da:

“1. Plan edo proiektuak egiteko eta obra-zuzendaritzarako, bereziki lurralde antolamenduarien, hirigintzaren, arkitekturaren, ingeniariaren eta datu-prozesatzearen arloetan, kontratazio-organoak proiektuen lehiaketa erabiliko du, zeinaren ezaugarri baita parte-hartzaileekin loturarik ez duten pertsona fisikoek bakarrik osatutako epaimahai batek esku hartzen duela”.

Zioak: Foru lege proiektuaren testua zeharo murriztailea da, lehiaketa-mota horretarako baldintza gisa jartzen baitu proiektuaren berezitasuna; hots, edozein interpretazio izan dezakeen kontzeptu lauso eta abstraktua, duen zehazgabetasunarengatik diskrezionaltasunerako bide nabarmena ematen duena.

Sorkari arkitektonikoaren eta eraikuntzaren kalitatea bermatzeko, bai eta proiektuaren egilearen jabetza intelektualerako eskubideak ere, beharrezko gertatzen da –arau orokor gisa, eta salbuespena izanik kontratazio-organoak faseka egitea adjudikazioa eta horren justifikazioa ematea– adjudikazioak barne har dezan hala proiektua nola obra-zuzendaritza; gainera, zenbait prozedura saihesten dira, kostuak aurrezten, eta ziurtatzen ezen proiektua egin duen –eta, beraz, horren gaineko ezagutza osoa duen– profesionala dela obra-zuzendaritza bere gain hartuko duena.

100. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI POPULARREKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

76. artikuluko 1. apartatua aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

76. artikulua. Proiektuen lehiaketa

“1. Plan edo proiektuak egiteko eta obra-zuzendaritzarako, bereziki lurralde antolamenduarien, hirigintzaren, arkitekturaren, ingeniariaren eta datu-prozesatzearen arloetan, kontratazio-

organoak proiektuen lehiaketa erabiliko du, zeinaren ezaugarri baita parte-hartzaileekin loturarik ez duten pertsona fisikoek bakarrik osatutako epaimahai batek esku hartzen duela”.

Zioak: Foru lege proiektuaren testua zeharo murriztailea da, lehiaketa-mota horretarako baldintza gisa jartzen baitu proiektuaren berezitasuna; hots, edozein interpretazio izan dezakeen kontzeptu lauso eta abstraktua, duen zehazgabetasunarengatik diskrezionaltasunerako bide nabarmena ematen duena.

Gainera, sorkari arkitektonikoaren eta eraikuntzaren kalitatea bermatzeko, bai eta proiektuaren egilearen jabetza intelektualerako eskubideak ere, beharrezko gertatzen da –arau orokor gisa, eta salbuespena izanik kontratazio-organoak faseka egitea adjudikazioa eta horren justifikazioa ematea– adjudikazioak barne har dezan hala proiektua nola obra-zuzendaritza; gainera, zenbait prozedura saihesten dira, kostuak aurrezten, eta ziurtatzen ezen proiektua egin duen –eta, beraz, horren gaineko ezagutza osoa duen– profesionala dela obra-zuzendaritza bere gain hartuko duena.

101. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

76. artikuluko 1. apartatua aldatzeko zuzenketa.

“1. Plan edo proiektuak egiteko eta obra-zuzendaritzarako, bereziki lurralde antolamendua-
ren, hirigintzaren, arkitekturaren, ingeniartzaren eta datu-prozesatzearen arloetan, kontratazio-organoak proiektuen lehiaketa erabiliko du, zeinaren ezaugarri baita parte-hartzaileekin loturarik ez duten pertsona fisikoek bakarrik osatutako epaimahai batek esku hartzen duela”.

Zioak: Foru lege proiektuaren testua zeharo murriztailea da, lehiaketa-mota horretarako baldintza gisa jartzen baitu proiektuaren berezitasuna; hots, edozein interpretazio izan dezakeen kontzeptu lauso eta abstraktua, duen zehazgabetasunarengatik diskrezionaltasunerako bide nabarmena ematen duena.

Eraikuntzaren sorkari arkitektonikoaren kalitatea bermatzeko, bai eta proiektuaren egilearen jabetza intelektualerako eskubideak ere, beharrezko gertatzen da –arau orokor gisa, eta salbuespena izanik kontratazio-organoak faseka egitea adjudikazioa eta horren justifikazioa ematea– adjudikazioak barne har dezan hala proiektua nola obra-zuzendaritza; gainera, zenbait prozedura sai-

hesten dira, kostuak aurrezten, eta ziurtatzen ezen proiektua egin duen –eta, beraz, horren gaineko ezagutza osoa duen– profesionala dela obra-zuzendaritza bere gain hartuko duena.

102. ZUZENKETA

GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA, ETA PODEMOS-AHAL DUGU TALDE PARLAMENTARIOEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

76. artikulua 2. apartatuari paragrafo berri bat gehitzeko zuzenketa.

76. artikulua. Proiektuen lehiaketa.

“Saririk edo ordainketarik onartuz gero, lehiaketako oinarrietan zehaztu beharko da, kasuaren arabera, sari gisa ordainduko den kopuru finkoa. Proiektuen lehiaketetan parte-hartzaile direnek eskubidea izanen dute kasuko ordain ekonomikoa jasotzeko, aurkezten dituzten lanengatikoa, prozeduren bigarren fasean; prozedura irekia nahiz murriztua denean”.

Zioak: Foru lege proiektuko 76. artikulua 2. apartatuaren testua aurrerapauso bat da, dudarik gabe, proiektuen lehiaketetan parte-hartzaileek ordaina jasotzeko duten eskubidea aitortzeko bidean; izan ere, lan bat egin dute eta denbora dezente eskaini diote lehiaketa horietara aurkezten diren proposamen teknikoak prestatzeari.

Orain arte ez zen ordain hori aitortzen, eta, zentzu horretan, testua aurrerapauso bat da. Hala eta guztiz ere, aitorten hori derrigorrezko izaeraz ezarri beharrezkoa da, kasu guztietan, ekitateari lotuta dagoen arrazoi aipatuarengatik.

Eginiko esfortzua eta lana lehiaketa horietara egiten den ekarpen bat dira, eta taxuzko eta bidezko ordaina merezi dute.

103. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

76. artikulua 2. apartatuari paragrafo berri bat gehitzeko zuzenketa.

Saririk edo ordainketarik onartuz gero, lehiaketako oinarrietan zehaztu beharko da, kasuaren arabera, sari gisa ordainduko den kopuru finkoa. Proiektuen lehiaketetan parte-hartzaile direnek eskubidea izanen dute kasuko ordain ekonomikoa jasotzeko, aurkezten dituzten lanengatikoa, proze-

duren bigarren fasean; prozedura irekia nahiz murriztua denean.

Zioak: 2. apartatuaren testua aurrerapauso bat da, dudarik gabe, proiektuen lehiaketetan parte-hartzaileek ordaina jasotzeko duten eskubidea aitortzeko bidean; izan ere, lan bat egin dute eta denbora dezente eskaini diote lehiaketa horietara aurkezten diren proposamen teknikoak prestatzeari. Orain arte ez zen ordain hori aitortzen, eta, zentzu horretan, testua aurrerapauso bat da. Hala eta guztiz ere, aitorten hori derrigorrezko izaeraz ezarri beharrekoa da, kasu guztietan, ekitateari lotuta dagoen arrazoi aipatuarengatik. Eginiko esfortzua eta lana lehiaketa horietara egiten den ekarpen bat dira, eta taxuzko eta bidezko ordaina merezi dute.

104. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

76. artikulua. 2. paragrafoari testua gehitzeko zuzenketa.

“Saririk edo ordainketarik onartuz gero, lehiaketako oinarrietan zehaztu beharko da, kasuaren arabera, sari gisa ordainduko den kopuru finkoa. Proiektuen lehiaketetan parte-hartzaile direnek eskubidea izanen dute kasuko ordain ekonomikoa jasotzeko, aurkezten dituzten lanengatikoa, prozeduren bigarren fasean; prozedura irekia nahiz murriztua denean”.

Zioak: Foru lege proiektuko 76. artikulua 2. apartatuaren testua aurrerapauso bat da, dudarik gabe, proiektuen lehiaketetan parte-hartzaileek ordaina jasotzeko duten eskubidea aitortzeko bidean; izan ere, lan bat egin dute eta denbora dezente eskaini diote lehiaketa horietara aurkezten diren proposamen teknikoak prestatzeari.

Orain arte ez zen ordain hori aitortzen, eta, zentzu horretan, testua aurrerapauso bat da. Hala eta guztiz ere, aitorten hori derrigorrezko izaeraz ezarri beharrekoa da, kasu guztietan, ekitateari lotuta dagoen arrazoi aipatuarengatik.

Eginiko esfortzua eta lana lehiaketa horietara egiten den ekarpen bat dira, eta taxuzko eta bidezko ordaina merezi dute.

105. ZUZENKETA

GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA, ETA PODEMOS-AHAL DUGU TALDE PARLAMENTARIOEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

76. artikulua 2.bis apartatu berria gehitzeko zuzenketa.

76. artikulua. Proiektuen lehiaketa.

“2. bis. Proiektuen lehiaketetan, kontratua adjudikatzeko eta proposamenak balioesteko irizpideak proposamenen kalitateari buruzkoak izanen dira, bai eta haien balio tekniko, funtzional, arkitektoniko, kultural eta ingurumenekoei buruzkoak ere. Adjudikazioan ez da eskaintza ekonomikoa aintzat hartuko, lizitazio-prezio finko baten formaren pean egiten baita”.

Zioak: Proiektuen lehiaketen xedea da “proiektu bakoitzaren merezimenduak” hautatzea, kasuko lizitazioaren ondoren. Prezioa edo kostu ekonomikoa ez da aipatzen. 2014/24/EB Europar Batasuneko Zuzentarauak berak adierazten du eragile ekonomikoak kalitate-irizpideen arabera soilik lehia daitezkeela, eta kostuaren faktoreak prezio edo kostu finko baten forma behar duela hartu. Hortaz, zuzenketa koherentea da proiektuen lehiaketaren xedearekin, eta Europar Batasuneko zuzentarauaren araberrakoa.

106. ZUZENKETA

GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA, ETA PODEMOS-AHAL DUGU TALDE PARLAMENTARIOEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

76. artikulua 3. apartatua aldatzeko zuzenketa. Hurrengo testu honekin ordeztuko da:

76. artikulua. Proiektuen lehiaketa.

“3. Proiektuen lehiaketak prozedura irekiaren edo prozedura murriztuaren bitartez antolatu ahalko dira.

a) Prozedura irekian: hasierako fase bat izanen du, zeinean ideia labur bat aurkeztuko baita lehiaketaren xedeari buruz. Bigarren fase bat ere izanen du, hautaturiko lehiatzaileekin; horiek proiektu-garapenerako proposamen bat aurkeztuko dute, eta bertan adjudikazioari buruz erabakiko da.

b) Prozedura murriztuan: lehen fase batean, gonbidaturiko lehiatzaileak hautatzea; eta bigarren fasean, hautaturik suertatu diren lehiatzaileek proiektu-mailako proposamen teknikoa aurkeztuko dute, eta adjudikazioari buruzko erabakia hartuko da.

Lehiaketa murriztua aukeratzen denean, hautaketa-irizpideek argiak, objektiboak eta ez-diskriminatzaileak beharko dute izan. Lehiaketako arauetan ezarriko da zenbat hautagai gonbidatuko diren proiektua aurkeztera. Puntuaziorik onenak lortzen dituzten bost hautagaiak gonbidatu beharko dira, gutxienez ere.

Zioak: Badirudi beharrezkoa dela proiektuen lehiaketan aplika daitezkeen bi prozedura-motak zehaztea: irekia eta murriztua. Eta, bi prozedura horietan, bi fase edo bi aldi ezartzea; horrela, batetik bermatu egiten da lizitazioetan libreki parte hartzearen printzipioa, eta, bestetik, azkartu egiten da prozedura, eta proposamen teknikorik onenaren adjudikazioa bigarren fasean zehazten da.

107. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

76. artikuluko 3. apartatua aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko da:

“3. Proiektuen lehiaketak prozedura irekiaren edo prozedura murriztuaren bitartez antolatu ahaliko dira:

a) Prozedura irekian: hasierako fase bat izanen du, zeinean ideia labur bat aurkeztuko baita lehiaketaren xedeari buruz. Bigarren fase bat ere izanen du, hautaturiko lehiatzaileekin; horiek proiektu-garapenerako proposamen bat aurkeztuko dute, eta bertan adjudikazioari buruz erabakiko da.

b) Prozedura murriztuan: lehen fase batean, gonbidaturiko lehiatzaileak hautatzea; eta bigarren fasean, hautaturik suertatu diren lehiatzaileek proiektu-mailako proposamen teknikoa aurkeztuko dute, eta adjudikazioari buruzko erabakia hartuko da.

Lehiaketa murriztua aukeratzen denean, hautaketa-irizpideek argiak, objektiboak eta ez-diskriminatzaileak beharko dute izan. Lehiaketako arauetan ezarriko da zenbat hautagai gonbidatuko diren proiektua aurkeztera. Puntuaziorik onenak lortzen dituzten bost hautagaiak gonbidatu beharko dira, gutxienez ere.

Zioak: Badirudi beharrezkoa dela proiektuen lehiaketan aplika daitezkeen bi prozedura-motak zehaztea: irekia eta murriztua. Eta, bi prozedura horietan, bi fase edo bi aldi ezartzea; horrela, batetik bermatu egiten da lizitazioetan libreki parte hartzearen printzipioa, eta, bestetik, azkartu egiten da prozedura, eta proposamen teknikorik onenaren adjudikazioa bigarren fasean zehazten da.

108. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI POPULARREKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

76. artikuluko 3. apartatua aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

76. artikulua. Proiektuen lehiaketa

“3. Proiektuen lehiaketak prozedura irekiaren edo prozedura murriztuaren bitartez antolatu ahaliko dira.

a) Prozedura irekian: hasierako fase bat izanen du, zeinean ideia labur bat aurkeztuko baita lehiaketaren xedeari buruz. Bigarren fase bat ere izanen du, hautaturiko lehiatzaileekin; horiek proiektu-garapenerako proposamen bat aurkeztuko dute, eta bertan adjudikazioari buruz erabakiko da.

b) Prozedura murriztuan: lehen fase batean, gonbidaturiko lehiatzaileak hautatzea; eta bigarren fasean, hautaturik suertatu diren lehiatzaileek proiektu-mailako proposamen teknikoa aurkeztuko dute, eta adjudikazioari buruzko erabakia hartuko da.

Lehiaketa murriztua aukeratzen denean, hautaketa-irizpideek argiak, objektiboak eta ez-diskriminatzaileak beharko dute izan. Lehiaketako arauetan ezarriko da zenbat hautagai gonbidatuko diren proiektua aurkeztera. Puntuaziorik onenak lortzen dituzten bost hautagaiak gonbidatu beharko dira, gutxienez ere.

Zioak: Badirudi beharrezkoa dela proiektuen lehiaketan aplika daitezkeen bi prozedura-motak zehaztea: irekia eta murriztua. Eta, bi prozedura horietan, bi fase edo bi aldi ezartzea; horrela, batetik bermatu egiten da lizitazioetan libreki parte hartzearen printzipioa, eta, bestetik, azkartu egiten da prozedura, eta proposamen teknikorik onenaren adjudikazioa bigarren fasean zehazten da.

109. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

76. artikuluko 3. apartatua aldatzeko zuzenketa.

Proiektuen lehiaketak prozedura irekiaren edo prozedura murriztuaren bitartez antolatu ahalko dira:

a) Prozedura irekian: hasierako fase bat izanen du, zeinean ideia labur bat aurkeztuko baita lehiaketaren xedeari buruz. Bigarren fase bat ere izanen du, hautaturiko lehiatzaileekin; horiek proiektu-garapenerako proposamen bat aurkeztuko dute, eta bertan adjudikazioari buruz erabakiko da.

b) Prozedura murriztuan: lehen fase batean, gonbidaturiko lehiatzaileak hautatzea; eta bigarren fasean, hautaturik suertatu diren lehiatzaileek proiektu-mailako proposamen teknikoa aurkeztuko dute, eta adjudikazioari buruzko erabakia hartuko da.

Lehiaketa murriztua aukeratzen denean, hautaketa-irizpideek argiak, objektiboak eta ez-diskriminatzaileak beharko dute izan. Lehiaketako arauetan ezarriko da zenbat hautagai gonbidatuko diren proiektua aurkeztera. Puntuaziorik onenak lortzen dituzten bost hautagaiak gonbidatu beharko dira, gutxienez ere.

Zioak: Badirudi beharrezkoa dela proiektuen lehiaketan aplika daitezkeen bi prozedura-motak zehaztea: irekia eta murriztua. Eta, bi prozedura horietan, bi fase edo bi aldi ezartzea; horrela, batetik bermatu egiten da lizitazioetan libreki parte hartzearen printzipioa, eta, bestetik, azkartu egiten da prozedura, eta proposamen teknikorik onenaren adjudikazioa bigarren fasean zehazten da.

110. ZUZENKETA**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

76. artikuluko 3. apartatuari paragrafo berri bat gehitzeko zuzenketa.

“Proiektuen lehiaketetan, kontratua adjudikatzeko eta proposamenak balioesteko irizpideak proposamenen kalitateari buruzkoak izanen dira, bai eta haien balio tekniko, funtzional, arkitektoniko, kultural eta ingurumenekoei buruzkoak ere. Adjudikazioan ez da eskaintza ekonomikoa aintzat hartuko, lizitazio-prezio finko baten formaren pean eginen baita”.

Zioak: Proiektuen lehiaketaren xedea da “proiektu bakoitzaren merezimenduak” hautatzea, kasuko lizitazioaren ondoren. Prezioa edo kostu ekonomikoa ez da aipatzen. 2014/24/EB Europar Batasuneko Zuzentarauak berak adierazten du eragile ekonomikoa kalitate-irizpideen arabera soilik lehia daitezkeela, eta kostuaren faktoreak prezio edo kostu finko baten forma behar duela hartu. Hortaz, zuzenketa koherentea da proiektuen lehiaketaren xedearekin, eta Europar Batasuneko zuzentarauaren arabera.

111. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

76. artikuluko 3. apartatua aldatzeko zuzenketa.

Proiektuen lehiaketetan, kontratua adjudikatzeko eta proposamenak balioesteko irizpideak proposamenen kalitateari buruzkoak izanen dira, bai eta haien balio tekniko, funtzional, arkitektoniko, kultural eta/edo ingurumenekoei buruzkoak ere. Adjudikazioan ez da eskaintza ekonomikoa aintzat hartuko, lizitazio-prezio finko baten formaren pean eginen baita”.

Zioak: Proiektuen lehiaketaren xedea da “proiektu bakoitzaren merezimenduak” hautatzea, kasuko lizitazioaren ondoren. Prezioa edo kostu ekonomikoa ez da aipatzen. 2014/24/EB Europar Batasuneko Zuzentarauak berak adierazten du eragile ekonomikoa kalitate-irizpideen arabera soilik lehia daitezkeela, eta kostuaren faktoreak prezio edo kostu finko baten forma behar duela hartu. Halatan, zuzenketa hau koherentea da proiektuen lehiaketaren xedearekin eta Europar Batasuneko zuzentarauarekin.

112. ZUZENKETA**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

76. artikuluko 5. apartatuko lehen paragrafoa aldatzeko zuzenketa.

76. artikulua. Proiektuen lehiaketa.

Epaimahaiak lokabetasun osoz emanen ditu bere erabaki edo irizpenak, eta lehiaketaren deialdiari buruzko iragarkian adierazitako irizpideak baizik ez du erabiliko. Hala ere, proiektuen lehia-

keta batean parte hartu ahal izateko lanbide-kualifikazio berezi bat eskatzen denean, epaimahaikideen bi herenek gutxienez beharko dute kualifikazio hori edo baliokidea den beste bat eduki. Epaimahaikide horien erdiak hautatu beharko dira obra exekutatzen den lurraldeari dagozkion lanbide-elkargoetan horretarako dauden profesional-zerrenda froga-emaileetatik”.

Zioak: Helburua da epaimahaiaren osaeran espezialitate-printzipioa indartzea eta zeharo bermatzea, halako moldez non epaimahaikideen gehiengo esanguratsu batek kide kualifikatuena izan beharko baitu. Haren eginkizuna hertsiki teknikoa eta espezializatua izateagatik, hain zuzen ere. Profesionalen parte-hartzea erraztea, lanbide-elkargoek izan ohi dituzten zerrenda froga-emaileen bitartez.

113. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

76. artikuluko 5. apartatua aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko da:

“5. Proiektuen lehiaketa batean parte hartu ahal izateko lanbide-kualifikazio berezi bat eskatzen denean, epaimahaikideen bi herenek gutxienez beharko dute kualifikazio hori edo baliokidea den beste bat eduki. Epaimahaikide horien erdiak hautatu beharko dira obra exekutatzen den lurraldeari dagozkion lanbide-elkargoetan horretarako dauden profesional-zerrenda froga-emaileetatik”.

Zioak: Helburua da epaimahaiaren osaeran espezialitate-printzipioa indartzea eta zeharo bermatzea, halako moldez non epaimahaikideen gehiengo esanguratsu batek kide kualifikatuena izan beharko baitu. Haren eginkizuna hertsiki teknikoa eta espezializatua izateagatik, hain zuzen ere. Profesionalen parte-hartzea erraztea, lanbide-elkargoek izan ohi dituzten zerrenda froga-emaileen bitartez.

114. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI POPULARREKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

76. artikuluko 5. apartatua aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko da:

76. artikulua. Proiektuen lehiaketa

“5. Epaimahaiak lokabetasun osoz emanen ditu bere erabaki edo irizpenak, eta lehiaketaren deialdiari buruzko iragarkian adierazitako irizpideak baizik ez du erabiliko. Proiektuen lehiaketa batean parte hartu ahal izateko lanbide-kualifikazio berezi bat eskatzen denean, epaimahaikideen bi herenek gutxienez beharko dute kualifikazio hori edo baliokidea den beste bat eduki. Epaimahaikide horien erdiak hautatu beharko dira obra exekutatzen den lurraldeari dagozkion lanbide-elkargoetan horretarako dauden profesional-zerrenda froga-emaileetatik”.

Zioak: Helburua da epaimahaiaren osaeran espezialitate-printzipioa indartzea eta zeharo bermatzea, halako moldez non epaimahaikideen gehiengo esanguratsu batek kide kualifikatuena izan beharko baitu. Haren eginkizuna hertsiki teknikoa eta espezializatua izateagatik, hain zuzen ere. Profesionalen parte-hartzea erraztea, lanbide-elkargoek izan ohi dituzten zerrenda froga-emaileen bitartez.

115. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

76. artikulua 5. apartatua aldatzeko zuzenketa.

“Proiektuen lehiaketa batean parte hartu ahal izateko lanbide-kualifikazio berezi bat eskatzen denean, epaimahaikide gehienek beharko dute kualifikazio hori edo baliokidea den beste bat eduki. Epaimahaikide horien erdiak hautatu beharko dira obra exekutatzen den lurraldeari dagozkion lanbide-elkargoetan horretarako dauden profesional-zerrenda froga-emaileetatik”.

Zioak: Helburua da epaimahaiaren osaeran espezialitate-printzipioa indartzea eta zeharo bermatzea, halako moldez non epaimahaikideen gehiengo esanguratsu batek kide kualifikatuena izan beharko baitu. Haren eginkizuna hertsiki teknikoa eta espezializatua izateagatik, hain zuzen ere. Profesionalen parte-hartzea erraztea, lanbide-elkargoek izan ohi dituzten zerrenda froga-emaileen bitartez.

116. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

76. artikulua. Proiektuen lehiaketa.

76. artikulua. Proiektuen lehiaketa.

“Epaimahaiaren erabaki edo irizpenaren berri izan ondoren, eta sailkapenaren eta aktaren edukia kontuan harturik, kontratazio-organoak proiektuen lehiaketaren adjudikazioa egingen du. Epaimahaiaren irizpena loteslea izanen da kontratazio-organoarentzat”.

Zioak: Helburua da lege proiektuaren 76. artikuluko honen beraren 1. apartatua aldarrikatzen den erabakitze-autonomia eta lokabetasuna bermatzea. Autonomia ez litzateke halakoa izanen baldin eta, gero, kontratazio-organoak modua izanen balu epaimahaiak hautaturikoaz bestelako proposamen bat adjudikatzeke.

117. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

76. artikulua. Proiektuen lehiaketa.

“Epaimahaiaren erabaki edo irizpenaren berri izan ondoren, eta sailkapenaren eta aktaren edukia kontuan harturik, kontratazio-organoak proiektuen lehiaketaren adjudikazioa egingen du. Epaimahaiaren irizpena loteslea izanen da kontratazio-organoarentzat”.

Zioak: Lege proiektuaren 76. artikuluko honen beraren 1. apartatua aldarrikatzen den erabakitze-autonomia eta lokabetasuna bermatzea. Autonomia ez litzateke halakoa izanen baldin eta, gero, kontratazio-organoak modua izanen balu epaimahaiak hautaturikoaz bestelako proposamen bat adjudikatzeke.

118. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

76. artikulua. Proiektuen lehiaketa.

“Epaimahaiaren erabaki edo irizpenaren berri izan ondoren, eta sailkapenaren eta aktaren edukia kontuan harturik, kontratazio-organoak proiektuen lehiaketaren adjudikazioa egingen du. Epaimahaiaren irizpena loteslea izanen da kontratazio-organoarentzat”.

Zioak: Helburua da lege proiektuaren 76. artikuluko honen beraren 1. apartatua aldarrikatzen den erabakitze-autonomia eta lokabetasuna bermatzea. Autonomia ez litzateke halakoa izanen baldin eta, gero, kontratazio-organoak modua izanen balu epaimahaiak hautaturikoaz bestelako proposamen bat adjudikatzeke.

119. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI POPULARREKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

76. artikulua. Proiektuen lehiaketa.

76. artikulua. Proiektuen lehiaketa

“8. Proiektuen lehiaketetan, kontratua adjudikatzeke eta proposamenak balioesteko irizpideak proposamenen kalitateari buruzkoak izanen dira, bai eta haien balio tekniko, funtzional, arkitektoniko, kultural eta/edo ingurumenekoei buruzkoak ere. Adjudikazioan ez da eskaintza ekonomikoa aintzat hartuko, lizitazio-prezio finko baten formapean egingen baita”.

Zioak: Proiektuen lehiaketen xedea da “proiektu bakoitzaren merezimenduak” hautatzea, kasuko lizitazioaren ondoren. Prezioa edo kostu ekonomikoa ez da aipatzen. 2014/24/EB Europar Batasuneko Zuzentarauak berak adierazten du eragile ekonomikoko kalitate-irizpideen arabera soilik lehia daitezkeela, eta kostuaren faktoreak prezio edo kostu finko baten forma behar duela hartu. Hortaz, zuzenketa koherentea da proiektuen lehiaketaren xedearekin, eta Europar Batasuneko zuzentarauaren arabera.

120. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

77. artikulua. Proiektuen lehiaketa.

77. artikulua. Prozedura erraztua.

“1. Prozedura erraztuan, kontratazio organoak eskaintzak eskatzen dizkie gaikuntza duten zenbait enpresa edo profesionali, eta kontratua arrazoiturik adjudikatzen du, baldin eta honako bi baldintza hauek betetzen badira:

a) Zerbitzu- eta hornidura-kontratuetan balio zenbatetsia 60.000 euro baino gutxiagokoa izatea, eta obra-kontratuetan balio zenbatetsia 200.000 euro baino gutxiagokoa izatea.

b) Pleguan jasotako adjudikazio-irizpideen artean ez egotea balio-judizio bidez haztatzeko moduko bat ere; edo, egonez gero, haren haztapanak ez gainditzea guztizkoaren % 25, salbu eta prestazio intelektualak direnean kontratuaren xede, hala nola ingeniari- eta arkitektura zerbitzuak, zeinen haztapanak ezin izanen baitu guztizkoaren % 45 gainditu”.

Zioak: Asmoa da Estatuko legean ezarritako baldintzetatik bigarrena jaso eta eranstea, mota horretako prozedura hautatu ahal izateko, zerbitzuak arkitekturakoak eta ingeniari- eta arkitektura-zerbitzuak.

121. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

77. artikulua aldatzeko zuzenketa. 77. artikuluen ordez bi prozedura jasotzen dituen beste bat ipintzea:

“1. Kontratazio-organoei zilegi izanen dute obra-, hornidura- eta zerbitzu-kontratuaren prozedura ireki erraztu bat erabil dadin erabakitzea, honako bi baldintza hauek betetzen direnean:

a) Balio zenbatetsia 2.000.000 eurokoa edo gutxiagokoa izatea obra-kontratuaren kasuan, eta, hornidura- nahiz zerbitzu-kontratuaren kasuan, haien balio zenbatetsia 100.000 eurokoa edo gutxiagokoa izatea.

b) Pleguan jasotako adjudikazio-irizpideen artean ez egotea balio-judizio bidez haztatzeko moduko bat ere; edo, egonez gero, haren haztapanak ez gainditzea guztizkoaren % 25, salbu eta prestazio intelektualak direnean kontratuaren xede, hala nola ingeniari- eta arkitektura-zerbitzuak, zeinen haztapanak ezin izanen baitu guztizkoaren % 45 gainditu”.

2. Kontratuaren lizitazio-iragarkia argitaratu beharko da kontratazio-organoen kontratatzaile-profilean eta Nafarroako Kontratazio Atarian. Eskaintza aurkezteko beharrezkoa den dokumen-

tazio guztiak baliabide elektronikoen bidez eskuragarri egon behar du iragarkiaren argitalpen-egunetik aurrera.

3. Proposamenak aurkezteko epea ez da hamabost egun baino gutxiagokoa izanen, kontratatzaile-profilean lizitazio-iragarkia argitaratu eta biharamunetik kontaktzen hasita. Obra-kontratuaren epea hogeit hamar eguneko izanen da, gutxienez ere.

4. Prozeduraren izapidetzeak honako berezitasun hauek izanen ditu:

a) Lizitatuak ez dute behin-behineko bermerik jarri beharko.

b) Proposamenak nahitaez eta soilik aurkeztuko dira lizitazio-iragarkian adierazitako erregistroan.

Eskaintza aurkezteko, beharrezkoa izanen da sinatzailearen erantzukizunpeko adierazpena, eskaintza aurkezteko duen sozietatearen ordezkari- tza edukitzeari buruz; egoki den kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo, kasua bada, beharrezko sailkapena izateari buruz; jardueran aritzeko beharrezkoak diren baimenak edukitzeari buruz; inolako kontratatze-debekurik ez izateari buruz; eta kanpo-bitarteko bidezko kaudimen- konpromisoa egoteari buruz. Horretarako, pleguaren eranskin gisa agertzen den eskaintza-ereduak jaso eginen du erantzukizunpeko adierazpen hori.

Horrez gain, baldin eta atzerrikoa bada kasuko enpresa, erantzukizunpeko adierazpenean jasoko da Espainiako foruari men egiten zaiola.

Baldin eta aldi baterako enpresaburu-elkarte batek aurkeztua bada eskaintza, horri gehitu beharko zaio elkartea eratzearen konpromisoa.

c) Eskaintza gutun-azal bakarrean aurkeztuko da, baldin eta prozeduran ez bada aintzat hartzen balio-judizio baten baitako zenbatespena eskatzen duen adjudikazio-irizpiderik. Bestela, bi gutun-azal- letan aurkeztuko da eskaintza.

Proposamena gordetzen duten gutun-azalak irekiko dira pleguetan ezarritako adjudikazio-irizpideak balioesteko aplikagarri den metodoaren arabera bidezkoa den hurrenkeran. Gutun-azalen irekitzea kontratazio-mahaiak egiten du, eta irekitze-ekitaldia betiere izanen da publikoa baldin eta gutunazalen edukia bada pleguetan ezarritako formulen besterik gabeko aplikazioaren bitartez zenbatespenak diren irizpideak erabiliz ebaluatzea den eskaintzaren parte. Horretarako, pleguaren eranskin gisa agertzen den eskaintza-ereduan puntu horiek jasoko dira.

d) Prozedurak aintzat hartzen dituen irizpideen zenbatespena balio-judizio baten baitan dagoenean, kontratazio-organoaren zerbitzu teknikoek proposamenen balioespena eginen dute zazpi egun baino gehiagokoa izanen ez den epean, eta balioespena sinatu beharko du hura egin duen teknikariak edo teknikari-multzoak.

e) Betiere, aurreko letrak aipatzen duen balioespenak egina egon beharko du formulak besterik gabe aplikatuz zenbatestekoak diren irizpideen bitartez ebaluatzekoa den eskaintza gordezten duen gutun-azalaren irekitze-ekitaldi publikoa baino lehen. Ekitaldi publiko horretan balioespen haren emaitza irakurriko da.

Ekitaldi publiko horren ondoren, bilkura berean, mahaiak honako hauek eginen ditu:

Lehen. Pleguko baldintzak betetzen ez dituzten eskaintzarik egonez gero horiek baztertu ondoren, eskaintzak ebaluatu eta sailkatzea.

Bigarrena. Puntuaziorik oneneko hautagaiaren aldeko adjudikazio-proposamena egitea.

Hirugarrena. Egiaztatzea ezen kasuko enpresa behar bezala dagoela eratu, proposamenaren sinatzaileek behar adinako ahala daukala eskaintza aurkezteko, kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko daukala edo, kasua bada, sailkapen egokia duela, eta ez daukala inolako kontratatze-debekurik.

Laugarrena. Puntuaziorik onena lortu duen enpresari komunikazio elektronikoa bidez eskatzea behin betiko bermea jartzeko, bai eta aurkez ditzan kanpo baliabideen bitartezko kaudimenaren konpromisoa eta kontratu-exekuziora bideratzera konprometitu zen bitartekoak egiazki daukala erakusten duten frogagiriak; hori guztia, komunikazioa bidaltzen denetik zenbatzen hasiko diren zazpi egun baliodunen epean.

Puntuaziorik onena lortu duen lizitatzailaren eskaintza baxuegia dela jotzen denean, 95. artikuluan jasotako kasuak gertatzeagatik, mahaiak, aurreko 1. eta 2. puntuetan jasotako ekintzak egin ondoren, artikuluko horretan ezarritako prozedura jarraituko du, nahiz eta lizitatzailak bere eskaintza justifikatzeko gehieneko epea ezin izanen den 5 egun baliodun baino gehiagokoa izan, kasuko komunikazioa bidali zenetik kontatzen hasita.

Behin betiko bermea jarriko eta, nahitaezkoa den kasuetan, Kontu-hartzailetzak 5 egun baino gehiagokoa ez den epean gastu-konpromisoa fiskalizatu ondoren, kontratua adjudikatuko da adjudikazio-hartzaile gisa proposaturiko lizitatzailaren alde. Adjudikazioa egin ondoren, kontratua sinatuko da.

Baldin eta, horretarako emaniko epean, adjudikazio-hartzaile gisa proposaturiko hautagaiak ez badu behin betiko bermea jartzen, puntuazioan hurrengo den hautagaiaren aldeko adjudikazio-proposamena eginen da, eta kasuko epea eman zaio aipaturiko behin betiko bermea jar dezan.

Baldin eta enpresaburuak nahitaezkoa izan daitekeen beste edozein dokumentazio aurkeztu behar badu, behin betiko bermea jartzeko ezarritako 7 egun baliodunen epearen barrenean aurkeztu beharko da dokumentazio hura.

f) Baldin eta lizitaziora aurkezten badira Europar Batasuneko kide den edo Europako Esparru Ekonomikoaren sinatzaile den estatu bateko enpresaburu atzerritarrak, haien gaitasuna, kaudimena eta debekurik eza frogatu ahal da bai kontsulta eginez estatu kide bateko eragile ekonomiko baimenduen zerrenda ofizialean, bai aipaturiko puntuak frogatzen dituen dokumentazioaren bidez, zeina aurkeztu beharko da behin betiko bermea jartzeko emaniko epean.

g) Artikulu honek aurreikusten ez duen orotan, prozedura irekiari aplikatzekoak zaizkion arau orokorrei jarraituko zaie.

6. 80.000 euro baino gutxiagoko balio zenbatesiko obra-kontratueta eta 35.000 euro baino gutxiagoko balio zenbatesiko hornidura- eta zerbitzu-kontratueta, salbu eta xedetzat prestazio intelektualak dauzkatenetan, ez baitzaie apartatu hau aplikatuko, prozedura ireki erraztuak honako izapidetze hau izan ahal da:

a) Proposamenak aurkezteko epea ez da hamar egun baliodun baino gutxiagokoa izanen, kontratatzaile-profilean lizitazio-iragarkia argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita. Aurrekoa gorabehera, merkatuan eskuragarri dauden ondatsunen erosketa arruntak direnean, epea 5 egun balioduneko izanen da.

b) Lizitatzailak salbuetsi egiten dira kaudimen ekonomiko eta finantzarioa nahiz tekniko edo profesionala frogatetik.

c) Eskaintza gutun-azal edo artxibo elektronikoa bakarrean entregatuko da, eta betiere ebaluatuko da pleguetan ezarritako formularen besterik gabeko aplikazioaren bidez zenbatesteko modukoak diren adjudikazio-irizpideei jarraikiz.

d) Eskaintzen balioespena automatikoki egin ahal da, gailu informatikoen bidez, edo kontratazio-organoari lagunduko dion unitate tekniko baten lankidetzarekin.

Gailu elektronikoa baten bitartez bermatuiko da proposamen-irekitzea ez dela egiten proposa-

men-aurkezpenerako epea bukatu arte; hori dela-eta, ez da haiek irekitzeko ekitaldi publikorik eginen.

e) Aurkeztutako eskaintzak eta haien balioespenari buruzko dokumentazioa modu irekian izanen dira eskuragarri, bitarteko informatikoen bidez, inolako murriztapenik gabe, kontratuaren adjudikazioa jakinarazten den unetik aurrera.

f) Ez da eskatuko behin betiko bermerik jarzterik.

g) Kontratua formalizatu ahalko da kontratistak adjudikazio-ebazpena onartzeko egiten duen sinadurarekin.

Apartatu honetan aurreikusten ez den orotan, artikulua honetan prozedura ireki erraztuaz jasozten den araubide orokorra aplikatuko da”.

Zioak: Asmoa da bermatzea ezen kontratu txikiagoa ez dadila ihesbide bihur prozedura irekia bete beharri itzurtzeko. Gainera, bi prozedura ireki ezartzen dira, erraztua eta oso erraztua, behar adinako azkartasuna ematen dutenak, hala-ko moldez non kontratu txikiak hondarreko izaera izan behar bitu.

Azken batean, oinarritzko legeak bermatu egiten ditu irizpide horiek; horrela, ba, hemen ere lizitazaileren berdintasuna eraginkor izan dadin, beharrezkoa da betekizun hauek ezartzea.

122. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

77. artikulua 1. epigrafeari honako testua gehitzeko zuzenketa:

“Pleguan jasotako adjudikazio-irizpideen artean ez egotea balio-judizio bidez haztatzeko moduko bat ere; edo, egonez gero, haren haztapanak ez gaintitzea guztizkoaren % 25, salbu eta prestazio intelektualak direnean kontratuaren xede, hala nola ingeniari eta arkitektura zerbitzuak, zeinen haztapanak ezin izanen baitu guztizkoaren % 45 gaintitu”.

Zioak: Asmoa da Estatuko legean ezarritako baldintzetatik bigarrena jaso eta eranstea, mota horretako prozedura hautatu ahal izateko, zerbitzuak arkitekturakoak eta ingeniariakoak direnean.

123. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

78. artikuluari (zenbateko txikiko kontratuak) aurkeztutako zuzenketa. Bigarren apartatua ordeztu da:

“Zenbateko txikiko kontratuetan, espedientea izapidetu ahal izateko beharrezkoa izanen da kontratazio-organoaren txostena, kontratuaren beharra arrazoitzen duena. Halaber eskatuko da gasua onartzea eta gasua kasuko fakturan sartzea.

Zenbateko txikiko obra-kontratuan obren aurrekontua ere gehitu beharko da, ezertan galarazi gabe kasuko proiektua existitu behar izatea berriazko arauak horretara behartzen dutenean. Orobat eskatu beharko da bulegoen edo gainbegiratzeko-unitateen txostena, lanak obraren egonkortasunari, segurtasunari edo estankotasunari eragiten dionean”.

Beste apartatu bat gehitzen da. Hona:

“3. Espedientean justifikatuko da ez dela kontratazio-erregela orokorren aplikazioa saihesteko egiten den kontratu-helburuaren aldaketa bat, eta kontratistak ez duela zenbateko txikiko kontratu gehiagorik sinatu, banaka nahiz besteekin batera gaintitzen duenik artikulua honen lehenengo apartatuan aipatzen den zenbatekoa. Kontratazio-organoak erregela hori betetzen dela egiaztatuko du. Proiektuak prozedura erraztua ezartzen du, zeina publizitaterik gabeko nolabaiteko prozedura negoziatua baita, eta hori, hasteko, kontraesanetan dago prozedura hori zenbatekoarengatik bertan behera uztearekin; eta, bigarrenik, lehia murrizten du, aurreiazko gonbidapenetan oinarritzen baita.

Gainera, bi arrazoi horiengatik, urratu egin ditzake zuzentaraua eta Estatuaren oinarritzko eskumena, prozedura hori ez baita araubide erkidegoko lege berriaren agertzen.

Horregatik, prozedura hori bertan behera utzi eta haren ordeztu beste bi ezartzen dira, izaeraz irekiak direnak; horietako bat, proiektuaren betekizun ia berberekin baina publizitate-bermearekin, eta bestea, hori ere irekia, baina exekutatzeko errazagoa.

4. Kontratu txikiak kontratatzailearen profileen ezarritako moduan argitaratuko dira, eta 99.3 artikuluan xedatuari jarraikiz”.

Zioak: Proiektuan, zenbateko txikiko kontratuak ia kontrolik gabe uzten dira, eta atea irekitzen zaio

haien aplikazio orokortuari. Beharrezkoa da mugak eta motibazioak ezartzea.

124. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI POPULARREKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

78. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko da testua:

“78. artikulua. Zenbateko txikiko kontratuen gaineko araubide berezia.

1. Zenbateko txikiko kontratuak dira balio zenbatetsia 15.000 euro baino gehiagokoa ez dutenak, hornidura edo zerbitzuen kasuan, edo 40.000 euro baino gehiagokoa ez dutenak, obra kontratuak direnean.

2. Zenbateko txikiagoko kontratuetan, espediente izapidetu ahal izateko beharrezkoa izan da kontratazio-organoaren txostena, kontratuaren beharra arrazoitzen duena. Halaber eskatuko da gastuaren onespena eta gastuari kasuko faktura gehitzea, zeinak bete beharko baititu Lege honen garapenerako arauak ezartzen dituzten betekizunak.

3. Espedientean justifikatuko da ez dela kontratazio-erregela orokorren aplikazioa saihesteko egiten den kontratu-helburuaren aldaketa bat, eta kontratistak ez duela zenbateko txikiko kontratu gehiagorik sinatu, banaka nahiz besteekin batera gainditzen duenik artikulua honen lehenengo apartatuan aipatzen den zenbatekoa. Kontratazio-organoak egiaztatu egingen du erregela hori betetzen dela. Salbuetsirik uzten dira 72.1 a), b), c), d), e) eta f) artikuluan jasotzen diren kasuak.

4. Zenbateko txikiko kontratuei buruzko informazioaren argitarapena hiru hilabete behin egin beharko da, gutxienez ere.

Zioak: Iritzia da zenbateko txikiagoko kontratuei dagokienez desabantaila bat sorrarazten dela Espainiaren gainekoarekin alderatuz gero, txikiagoak baitira hornidura edo zerbitzu kontratuen zenbatekoak. Helburua da gardentasun- eta kontrol-neurriak homogeneizatzea, eta horregatik proposatzen da 78. artikulua zuzentzea.

125. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

78. artikuluko 1. apartatua aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko da:

“1. Zenbateko txikiagoko kontratuak dira balio zenbatetsia 15.000 euro baino gehiagokoa ez dutenak, hornidura edo zerbitzuen kasuan, edo 40.000 euro baino gehiagokoa ez dutenak, obra kontratuak direnean”.

Zioak: Hornidura edo zerbitzu kontratuen zenbatekoa handitzea proposatzen dugu zenbateko txikiagoko kontratuetan administrazio-zama arintzeko; izan ere, testu berriarekin kontrol mekanismo nahikoak ezartzen dira edozein kontratazio mota saihesteko, gardentasun falta edo irregularitasuna alegatuta. Bestalde, ez du zentzurik Nafarroan Estatuan baino baldintza murriztaileagoak ezartzea.

126. ZUZENKETA

GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA, ETA PODEMOS-AHAL DUGU TALDE PARLAMENTARIOEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Honako artikuluetan aldaketak egiteko zuzenketa:

– 37.d) artikulua. Kontratu erreserbatuen sistemari buruz.

– 41.5. artikulua, bigarren paragrafoa. Sortei buruz.

– 61.1. eta 61.3. artikulua. Adjudikazio-irizpidei buruz.

– 84.4 artikulua. Norgehiagoka elektronikoari buruz.

Horietan guztietan proposatzen da “eskaintza ekonomikorik onena” espresioaren ordez “kalitate-prezio erlaziorik oneneko eskaintza” erabiltzea.

Zioak: Aurkezturiko zuzenketak ez du testuan zehaztapen edo hobekuntza bat soilik egiten, baizik eta errakuntza juridiko bat zuzentzen du; izan ere, “eskaintza ekonomikorik onena” espresioa ordeztu egin du kontratu publikoei buruzko egungo zuzentarauak, zeinaren transposizioa Kontratu Publikoei buruzko Foru Legean egin behar baita. Horrela, ba, proposatzen dugu ekidin dadila kontraesaneari sartzeari erabakigarria den kontzeptu

juridiko batekin, zeinak zeregin nagusi bat betetzen baitu lizitazio publikoaren prozesuan.

Argudio nagusi gisa, 2014/24/EB Zuzentarauaren 89. “kontuan hartuzko”ra jo daiteke, non zehazten baita ezen “eskaintza ekonomikorik onena” kontzeptua ez dagoela zaharkitua soilik baizik eta legegileak berak ere aitortzen duela nahasbidera eraman dezakeela, eta “kalitate-prezio erlaziorik onena” kontzeptuarekin ordeztu behar dela:

(89). “Adjudikazio-irizpide” nozioa giltzarria da zuzentarau honetan; horrenbestez, garrantzitsua da kasuko xedapenak ahalik eta modu sinpleen eta arrazionalen aurkeztea. Hori lor daiteke “eskaintza ekonomikorik onena” terminoa kontzeptu nagusi gisa erabiliz, zeren eta, azken batean, irabazle suertatzen diren eskaintza guztiek behar dute aukeratuak izan jasotakoen artean adjudikazio-boterearen aburuz ekonomikoki onena den soluzioaren arabera. Gaur egun 2004/7/EE eta 2004/18/EE zuzentarauetan “eskaintza ekonomikorik onena” gisa ezagutuak diren adjudikazio-irizpideekin nahasmendu oro saihestearren, bidezkoa da kontzeptu hori barne hartzeko bestelako terminologia bat erabiltza: “kalitate-prezio erlaziorik onena”. Ondorioz, zuzentarau horiei buruzko jurisprudentziaren argitan interpretatua izan beharko da, salbu eta zuzentarau honetan soluzio materialki eta argiro ezberdin bat dagoenean.

Eta argudio horretan sakontzen du 92. “kontuan hartuzko”ak.

(92). Kalitate-prezio erlaziorik onena ebaluatzean, adjudikazio-botereek zehaztu egin beharko lituzkete horretarako erabiliko dituzten irizpide ekonomiko eta kalitatekoak, kontratuaren xedari loturikoak. Irizpide horiek konparaziozko ebaluazio bat egiteko modua eman beharko lukete, eskaintza bakoitzak zehaztaperen teknikoetan definiturik datorren kontratu-xedearekiko duen errendimendu-mailari buruzkoa. Kalitate-prezio erlaziorik onenaren testuinguruan, zuzentarau honek balizko adjudikazio-irizpideen zerrenda ez-agortzaile bat biltzen du, gizarte- eta ingurumen-alderdiak kontuan hartzen dituena. Adjudikazio-botereei ikusarazi behar zaie haien beharrezkoen ahalik eta hobekien erantzuten dieten kalitate handiko obra, hornidura eta zerbitzuak eskuratzeko modua emanen dieten adjudikazio-irizpideak aukera ditzaten komeni dela.

Amaitzeko, oroitarazten dugu zuzentaruak berak ohartarazten digula ezen prezioa, edo irizpide ekonomizista, ez dela kontuan hartu beharreko faktore bakarra, eta zilegi zaigula, araudiari jarrai-

kiz, zuzeneko abantaila ekonomikorik ez dakarten adjudikazio-irizpideak ezartzea.

(93). Xedapen nazionalak daudenean zerbitzu jakin batzuen ordainsaria zehazten dutenak, edo prezio finkoak ezartzen dituztenak hornidura jakin batzuetarako, beharrezkoa da argi uztea horrela ere posible dela errentagarritasuna prezio edo ordainsari hutsaz bestelako faktore batzuetan oinarriturik ebaluatzea. Kasuan kasuko zerbitzuaren edo produktuaren arabera, faktore horien artean leudeke, esate baterako, entrega- eta ordainketa-baldintzak, saldu osteko zerbitzuari buruzko xehetasunak (bezeroarentzako arretaz zerbitzuen eta ordezkio piezen zerbitzuen nondik norakoak) edo gizarte- nahiz ingurumen-alderdiak (adibidez, ea liburuak paper birziklatuan inprimatzen diren, edo egur-jarduera jasagarritik lorturiko paperean, ea kostua ingurumen-arloko kanpoeftuei egozten zaien, ea kontratu-exekuziorako izendaturiko pertsonen artean pertsona behartsuen edo talde ahuletako kideen gizarteratzea sustatzen ote den).

127. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

85. artikuluari testua gehitzeko zuzenketa. Honako apartatu hauek gehitzen dira:

“3. Kontratazioi-organo bakoitzak eskusiboki eta zeinek bere kasa emanen du Internet bidez bere kontratatzaile-profilaren berri, bere kontratu-jarduerari buruzko informazioa eta dokumentuak biltzen dituen elementu gisa, gardentasuna eta haiek publikoki eskuratu ahal izatea ziurtatzearen. Kontratatzaile-profila eskuratzeko modua pleguetan eta horien baliokide diren dokumentuetan jakinarazi beharko da, bai eta lizitazio-iragarrietan ere, kasu guztietan. Kontratatzaile-profilaren berri emateak ez du ezertan galaraziko bestelako publizitate-bide gehigarriak erabiltzea hala xedatzen den kasuetan.

Kontratatzaile-profileko informazioaren eskuratzeari askea izanen da, aurretiazko identifikaziorik gabekoa. Halere, zilegi izanen da identifikazio hori eskatzea kontratatzaile-profilaren edukari loturiko zerbitzu pertsonalizatuak eskuratu ahal izateko, hala nola harpidetzak, alerta-igorpena, komunikazio elektronikoak eta eskaintzen bidalketa, besteak beste. Kontratatzaile-profiletan gorderiko informazio guztia formatu ireki eta berrerabilgarrietan argitaratuko da, eta 5 urte baino gutxiagokoa izanen ez den epe batez egonen da jendearentzat eskuragarri, ezertan galarazi gabe lehenagoko

espedienteak eskuratzeko modua ere ematea, horretarako informazio-eskaerak aurkeztuz gero.

4. Kontratatzaile-profilean jaso ahalko dira kontratazio-organoen kontratu-jarduerari buruzko edozein datu eta dokumentu. Nolanahi ere, bertan jaso beharko da bai kontratazio-organoarekin harremanetan jartzeko erabil daitekeen informazio orokorra, hala nola kontaktu-guneak, telefono- eta fax-zenbakiak, posta-helbidea eta helbide elektronikoa, informazio, iragarki eta dokumentu orokorrak, –kontratatorako barne-jarraibideak eta dokumentu-ereduak, besteak beste– bai sinatzen dituen kontratuei buruzko informazio partikularra ere.

5. Kontratuei buruzko informazioaren kasuan, gutxienez ere honako informazio hau argitaratu beharko da:

a) Kontratua arrazoitzeko oroitidazkia, baliabide-eskastasunari buruzko txostena –zerbitzu-kontratuen kasuan–, adjudikaziorako erabilitako prozeduraren arrazoitzea, irekiaz edo murriztuaz bestelako prozedura bat erabiltzen denean, kontratua eraenduko duten administrazio-klausula partikularren eta agindu teknikoen plegua edo horren dokumentu baliokideak, kasua bada, eta espedientea onesteko dokumentua.

b) Kontratuaren xede zehatza, horren iraupena, oinarrizko lizitazio-aurrekontua eta adjudikazio-zenbatekoa, Balio Erantsiaren gaineko Zerga barne.

c) Aurretiazko informazioaren, lizitazio-deialdiaren, adjudikazioaren eta kontratu-sinatzearen iragarkiak, aldaketa-iragarkiak eta haien justifikazioa, proiektuen lehiaketen iragarkiak nahiz proiektuen lehiaketen emaitzei buruzkoak, publizitaterik gabeko prozedura negoziatuei buruzko arauetan ezarritako salbuespenekin.

d) Zer bitartekotan iragarri den, kasua bada, kontratua, eta argitalpen horietarako estekak.

e) Prozeduran parte hartzen duten lizitatuzaileen kopurua eta nortasuna, bai eta adjudikazio-prozedurari buruz kontratazio-mahaiak egin dituen akta guztiak edo, mahaiak jardun ez badu, kasuko kontratazio-zerbitzuaren edo -organoaren ebazpenak, eskaintza bakoitzari buruzko balio-judizio baten bidez zenbatestekoak diren adjudikazio-irizpideen balioespenari buruzko txostena, kasua bada, baxuegitasun-presuntziopean erori diren eskaintzei buruzko txostenak eta, betiere, kontratua adjudikatzeke ebazpena.

Halaber argitaratuko dira kontratatzaile-profilean kontratua ez adjudikatzearen edo egitearen erabakia, adjudikazio-prozeduran atzera egi-

tea, prozedura hutsik gelditu izanaren deklarazioa, errekurtsio-jartzea eta kontratuen balizko etetea, errekurtsio bat jarri izanaren ondoriozkoa.

6. Kontratu txikiei buruzko informazioaren argitarapena hiru hilabetean behin egin beharko da, gutxienez ere. Horrelako kontratuetarako argitaratu beharreko informazioa izanen da, gutxienez ere, haien xedea, iraupena, adjudikazioaren zenbatekoa, Balio Erantsiaren gaineko Zerga barne, eta adjudikazio-hartzailearen nortasuna. Kontratuak adjudikazio-hartzailearen nortasunaren arabera ordenatuko dira.

Aurreko paragrafoak aipatzen duen argitarapenetik salbuesten dira balio zenbatetsia bost mila euro baino gutxiagokoa daukaten kontratuak, baldin eta adjudikazio-organoei erabilitako ordainketa-sistema izanen balitz kutxa finkoko aurrerakina-rena, edo ordainketa txikiak egiteko antzeko sistemaren bat.

7. Kontratatzaile-profilean argitaratu beharko dira, baita ere, deuseztaturiko prozedurak, kontratazio-organoei laguntzen dieten kontratazio-mahaien osaera, eta balio-judizio baten arabera koak diren adjudikazio-irizpideak aplikatzeko adituen batzordeetako edo erakunde tekniko espezializatuetako kideen hautaketa, horiek beharrezkoak diren prozeduretan.

Betiere argitaratu beharko da kontratazio-mahaietako eta adituen batzordeetako kideen kargua, eta ez da zilegi izan aipamen orokorrak edo zehaztugabeak egitea, edo bakar-bakarrik erreferentzia egin diezaiotela ordezkatzan duten edo lan egiten duteneko administrazioari, erakundeari edo entitateari.

8. Bitarteko berekiei 50.000 euro baino gehiagoko zenbatekoa –BEZik gabe– duten enkarguen egitea ere kontratatzaile-profilean argitaratuko da.

5.000 euro baino gehiagoko zenbatekoa duten enkarguei buruzko informazioa hiru hilabetean behin argitaratu beharko da, gutxienez ere. Horrelako enkarguetarako argitaratu beharreko informazioa izanen da, gutxienez ere, haien xedea, iraupena, aplikatzekoak diren tarifak eta enkarguaren hartzaile den bitarteko berekia zein den. Enkarguak bitarteko berekiaren arabera antolatuko dira.

9. Kontratatzaile-profilaren sistema informatikoa modua eman beharko du bertan jasotzen den informazioaren berriemate publikoaren hasierarenean modu fede-emaelean frogatzeko.

10. Zilegi izanen da kontratuaren sinatzeari buruzko zenbait datu ez argitaratzea, lege honek ezartzen dituen kasuetan.

Betiere, aurreko paragrafoan xedatuari jarraikiz kontratazio-organoak informazioaren bat kanpo uztea erabakitzen duen bakoitzean, hori espedienteen arrazoitu beharko du”.

Zioak: Foru legeak ez du kontratatzailearen profila arautu, eta asmoa da profil horrek eman behar duen informazioa ere jasotzea.

128. ZUZENKETA

GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA, ETA PODEMOS-AHAL DUGU TALDE PARLAMENTARIOEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

92. artikulua aldatzeko zuzenketa.

92. artikulua. Nafarroako lizitazio elektronikoa-ren plataforma.

“1. Nafarroako lizitazio elektronikoa-ren plataforma, Nafarroako Kontratazio Publikorako Bartzordearen mende dagoen web tresna bat da, foru lege honen mendeko entitateen lizitazioetan eskaintza eta parte hartzeko eskaerak aurkezteko bitarteko ofiziala. Hura erabiltzea nahitaezkoa izanen da lizitatzailarentzat, berdin delarik zein den lizitatzailaaren nortasun fisiko edo juridikoa.

2. Kontratu publikoak zenbateko txikiko kontratuen araubide berezia ez den beste prozedura batez adjudikatu behar direnean, horien lizitazioa Nafarroako lizitazio elektronikoa-ren plataformaren bidez eginen da.

3. Nafarroako lizitazio elektronikoa-ren plataforman aurkeztuko da abian diren lizitazioei dagokien dokumentazio guztia, dokumentazioa ireki arteko konfidentzialtasun-bermearekin; horrez gain, kontratazio organoarekin harremanetan jartzeko modua egonen da, hark eskaintzari buruz eskatutako zuzenketak edo argibideak egite aldera, eta eskaintzak jendaurrean irekiko dira, prozedurak horretara behartzen duenean. Kontratazio publikoko ondorio guztietarako, tankeratuko da foru lege honen aplikaziopean dauden entitate guztien egoitza elektronikoa bezala eta erregistro laguntzaile bezala”.

Zioak: Testu horren asmoa da administrazio elektronikoa-ren ezarpenean aurrerapausoak ematea eta kontratazio publikoari buruzko zuzentzailearen xedapenei erantzutea, horretarako ezarritako nahitaezkoa izanen dela plataforma erabiltzea, administrazio prozedura erkideari buruzko araubideak xedatuari jarraikiz, zeinak ahalbidetzen baitu administrazioarekin elektronikoki harremanetan

jartzeko betebeharraren beste kasu batzuk arautzea, berak jadanik aurreikusten dituzenez gain. Ulertzen da kontratazio publikoko prozedurak bereziki egokiak direla betebeharrak ezartzeko, berdin delarik interesduna pertsona fisikoa nahiz juridikoa izatea, ezen kontratazio-prozeduran sortzen den harremana lotura bereziko harremanetzat har daiteke eta, beraz, betebeharrak zorrotzagoi lotua gainerako herritarrei aplikatzen zaizkienak baino. Orobat gertatzen da, lanbide-jardunak bereak dituen beharrezko ondorioz, kontratazio-prozeduretan parte hartzen duten pertsonak gaituak daudela betebeharrak horri aurre egiteko, horrek desberdinkeriazko tratua edo lehiaren murrizketa dagoenik esan nahi gabe. Azken batean, ulertzen da xedapen horrek lagundu egiten duela kontratazioari buruzko zuzentzailearen transposizioa onena izan dadin.

Bestalde, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen lehen xedapen gehigarriak adierazten duenez, aferagatik bereziak diren legeetan arauturiko administrazio prozedurek, lege horretan jasotako tramiteetako bat exigitzen ez dutenean edo tramite gehigarri edo desberdinak arautzen dituztenean, azken horiei dagokienez eraenduko dira lege berezi horiek xedatzen dutenaren arabera”.

Bestalde, Herritarren Zerbitzu Publikoetarako Sarbide Elektronikoaari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legeak ezartzen du administrazio publiko bakoitzak zehaztuko dituela egoitza elektronikoen eraketarako baldintzak eta tresnak. Kontuan harturik Kontratu Publikoari buruzko Foru Legearen aplikaziopeko entitate guztiek, 600 bat, lizitazio plataforma erabili behar dutela kontratu publikoari buruzko beren espedienteetan, espediente horietan nahitaez ezarri behar direla komunikazioa eta informazio-trukea lizitatzailarekin, eta beharrezkoa dela truke horiei zuzenbidezko estaldura ematea, egoki da Nafarroako lizitazio elektronikoa-ren plataforma izendatzea entitate guztien egoitza elektronikoa eta erregistro laguntzaile gisa, halatan saihesturik haiei bakoitzak egin behar izatea hori.

129. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

93. artikuluari testua gehitzeko zuzenketa. Lehen paragrafo gisa honako hau gehitzea proposatzen da:

“Kontratazio mahai bat eratu beharko da balio zenbatetsia 60.000 euro baino gehiagokoa duten

zerbitzu- eta hornidura-kontratueterako, eta 200.000 euro baino gehiagokoa duten obra-kontratueterako. Mahai horretako kideak kontratazio-organoaren mendeko langile izanen dira; horietako batek zuzenbidean lizentziatua izan beharko du, eta halaber egonen dira kasuko arloan eskudun diren langile teknikoak eta kontrol ekonomikoaren eginkizuna daukaten langileak. Inola ere ez dira mahaikide izanen kasuko kontratuaren dokumentazio teknikoaren prestaketan parte hartu duten langileak. Baxuegitasun-presuntziopean erortzen diren eskaintzak aurkezten badira, arloan espezializatuak diren zerbitzuek eman beharko dute kasuko txostena”.

Zioak: Proiektuak ez du aurreikusten kontratazio-mahairik administrazio publiko ez diren adjudikazio-botereak egotearen kasurako. Jotzen dugu ezen, mendeko sozietate publikoen kontratu-jarduera oso garrantzitsua denez gero, beharrezkoa dela eskaintzen tratamenduan gutxieneko inpartzialtasunerako irizpideak ezartzea, halako moldez non mahai bat eratuko den, nahiz eta administrazio publikoetarako taxuturikoa baino sinpleagoa izan (126. artikulua).

130. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

95. artikulua 4. apartatua aldatzeko zuzenketa.

95. artikulua. Eskaintza baxuegiak.

“4. Edozein kasutan ere, eskaintza atzera botako da egiaztatzen bada baxuegia dela ez dituelako betetzen ingurumen, gizarte edo lan arloan aplikatzekoak diren betebeharrak, Europar Batasuneko zuzenbidean, zuzenbide nazionalan edo nazioarteko zuzenbidean ezarrita daudenak. Barne hartzen da indarreko hitzarmen kolektiboen urraketa”.

Zioak: Era horretan saihestuko lirateke gerta litezkeen desadostasunak, ea hitzarmen kolektiboak zuzenbide nazionalaren, nazioartekoaren edo Europar Batasunekoaren parte den (horiexek dira artikulua honetan ezarritako erreferenteak).

131. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

95. artikuluko 1. apartatuko lehenengo paragrafoa aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“1. Eskaintza bat baxuegia edo proportziogabea da kontratazio-mahaiak zehazturiko portzentajearen gainditzen duenean jasotako eskaintza baliodunek aurkezturiko batez besteko beheratzea. Betiere, portzentajea izanen da jasotako eskaintza baliodunen batez bestekoaren % 5aren eta % 10aren artekoa. Batez besteko beheratzeetat ulertzen da lizitatzailerako bakoitzak eginkizuneko beheratzeen batez bestekoa”.

Zioak: Derrigorrezkoa da irizpide argi eta objektibo batzuk ezartzea eskaintzak baxuegiztat jotzeari buruz. Ez dugu egokitzen jotzen baxuegitasun-presuntzioa kontratazio-organoaren erabakimenaren baitan uztea; izan ere, gerta daiteke baxuegitasunezkoak ez diren egoerak izaten jarraitzea lizitazio-prezioaren % 50etik gorako beherapenak ere jasotzen dituzten eskaintzak. Halaber, prozedurak eta eta protokoloak taxutu behar dira baloratu ahal izateko noiz ari den dirua galduz eskaintzen; izan ere, lehia aske bermatzen duten legeen aurkako jokabidea da hori. Azkenaldian egoera hori orokortu egin da, eta horrekin amaitu beharra dago.

132. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

95. artikuluko 4. apartatua aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko da:

“4. Edonola ere, kontratazio organoek eskaintzak baztertuko dituzte egiaztatzen badute baxuegiak direla azpikontratazioari buruzko araudia urratzen dutelako edota ez dituztelako betetzen ingurumen, gizarte edo lan arloetan aplikatzekoak diren betebeharrak, nazionalak edo nazioartekoak, indarrean dagoen hitzarmen kolektibo sektorialak ez betetzea barne, foru lege honetako 63. artikuluan ezarritakoari jarraikiz”:

Zioak: Testua hobetzen du eta legearen helburuak betetzea bermatzen du.

133. ZUZENKETA**NAFARROAKO ALDERDI POPULARREKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

95. artikuluko 1. apartatua aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

95. artikulua. Eskaintza baxuegiak.

“1. Eskaintza bat baxuegia edo proportziogabea da kontratazio-mahaiak zehazturiko portzentajea gainditzen duenean jasotako eskaintza baliodunek aurkezturiko batez besteko beharrezkoa. Betiere, portzentajea izanen da jasotako eskaintza baliodunen batez bestekoaren % 5aren eta % 10aren artekoa.

Batez besteko beharrezkotasun ulertzen da lizitazio bakoitzak eginiko beharrezkotasun batez bestekoa. Aurkezturiko eskaintza baxuegi batek kontratazio-organoari pentsarazten dionean ez dela erregularri beteko, eskaintza errefusatu baino lehen horren berri emanen zaio kasuko pertsonari, egoki deritzon justifikazioa aurkez dezan bost eguneko epean.

Zioak: Derrigorrezkoa da irizpide argi eta objektibo batzuk ezartzea eskaintzak baxuegiztatzea buruz. Ez dugu egokitzen jotzen baxuegitasun-presuntzioa kontratazio-organoaren erabakimenaren baitan uztea.

134. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

95. artikuluari testua gehitzeko zuzenketa. Lehen apartatuaren amaieran honako hau gehitzen da:

“Lizitazioarekin zuzendutako informazio-eskaera argi adierazi beharko da, halako moduan non eskaintzaren bideragarritasuna guztiz eta behar bezala justifikatzeko modua izanen duten, eskaintzaren baxuegitasuna zein parametrotan oinarriturik definitu den zehazturik”.

Zioak: Beharrezkoa da lizitazioarekin babesgabekotasuna ekiditea, baxuegitasunaren arrazoi zehatza jakinaraz dakion behartuz.

Funtsezkoa da mahaiak ez dezan baxuegitasuna ondoriozta horretarako prestakuntzarik ez duenean ere. Alegia, balioespen ekonomikoari dagokion afera bat izaki, zerbitzu horixe izanen da baxuegitasuna ebaluatzeko eskuduna, eta mahaiak ezin izanen du hori egin, horretarako gaitasunik ez badauka.

135. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

95. artikuluari testua gehitzeko zuzenketa. Honakoa gehitzen da 3. paragrafoaren amaieran:

“Prozeduran, kasuko zerbitzuaren aholkularitza teknikoa eskatu beharko da”.

Zioak: Funtsezkoa da mahaiak ez dezan baxuegitasuna ondoriozta horretarako prestakuntzarik ez duenean ere. Alegia, balioespen ekonomikoari dagokion afera bat izaki, zerbitzu horixe izanen da baxuegitasuna ebaluatzeko eskuduna, eta mahaiak ezin izanen du hori egin, horretarako gaitasunik ez badauka.

136. ZUZENKETA**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

96. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

1. Kontratua adjudikatzeko irizpideak aplikatuta berdinketa sortzen bada bi eskaintza edo gehiagoren artean, hura ebazteko ondoko irizpideak aplikatuko dira, hurrenkeran, eskaintzak aurkezteko epearen amaiera-unea kontuan hartuta:

a) Aldi baterako langileen ehuneko txikiena, betiere ez bada % 10 baino handiagoa.

b) % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duten langile finkoen ehuneko handiena, betiere enpresa edo profesionalak bere plantillako langileetatik ehuneko 2tik gora baditu desgaitasunen bat duten langileak, kaudimena frogatzeko unean.

c) Genero berdintasunaren arloko praktika onak egiten dituela frogatzea.

d) Laneratze-enpresa izaera izatea, Laneratze-enpresen araubideari buruzko abenduaren 13ko 44/2007 Legearen edota une horretan indarrean den araudiaren arabera.

e) Irabazi asmorik gabeko entitate izaera izatea, nortasun juridikoa dutenak, izaera sozial edo asistentzialeko prestazioei buruzko kontratuetan.

f) Bidezko merkataritzako erakunde gisa hartzea, bidezko merkataritzaren alternatiba duten produktuak xede dituzten kontratuetan.

2. Berdinketak ebazteko irizpideak aplikatzeko beharrezkoa balitz, behar diren agiriak eskatuko zaizkie enpresa ukituei, eta gutxienez bost eguneko epea emanen die agiriok aurkezteko.

Zioak: Berdinketak ebazteko irizpide gardenagoa ezartzea.

137. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

98. artikulua aldatzeko zuzenketa. Lehen paragrafoa ordezteko proposatzen da:

“Kontratu publikoak, salbuespena izaki zenbateko txikiko kontratuak, diruz lagundutakoak, esparru-akordio batean oinarrituriko kontratuak eta erosketarako sistema dinamiko baten esparruko berariazko kontratuak, burutzen dira formalizatzearekin batera.

Esparru-akordio batean oinarrituriko kontratuak eta erosketa sistema dinamiko baten esparruko berariazko kontratuak haien adjudikazioarekin batera burutzen dira.

Diruz lagundutako kontratuak haien berariazko legediak dioenaren arabera burutzen dira”.

Zioak: Proiektuak ezartzen du kontratua adjudikazioaren bitartez burutzen dela. Baina hori ez da koherentea erreklamazio bat aurkeztean adjudikazioa automatikoki etetearekin. Horrek eskubideak ere eman liezazkioke legez kanpoko adjudikazio-hartzaileari, adjudikazioaren deuseztapena gertatzen bada.

138. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI POPULARREKO

FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

99. artikuluko 3. apartatua aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

99. artikulua. Adjudikazioen publikitateak.

“3. Kontratazio organo bakoitzak argitaratuko ditu Nafarroako Kontratazioaren Atarian, hiru hilabetean behin eta enpresa edo profesional bakoitzari dagozkionak bilduta, ekitaldi horretan zenbateko txikiko kontratuak adjudikatzeke araubide bereziaren bidez egindako adjudikazioak”.

Zioak: Zenbateko txikiagoko kontratuen adjudikaziorako gardentasun-neurria.

139. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

99. artikuluari testua gehitzeko zuzenketa. Lau garren apartatu bat gehitzen da. Hona:

“4. Kontratazio-organoei idatzizko txosten bat prestatuko dute obra-, hornidura- edo zerbitzu-kontratu edo esparru-akordio bakoitzari buruz, bai eta erosketarako sistema dinamiko bat ezartzen duten bakoitzean ere, eta hartan honako hauek jasoko dira, gutxienez ere:

a) Adjudikazio-boterearen izena eta helbidea, eta kontratuaren, esparru-akordioaren edo erosketarako sistema dinamikoaren xedea eta prezioa;

b) Kasua bada, hautaketa kualitatiboaren edo eskaintzen eta soluzioen kopuruaren murriztapenaren emaitzak, lege honek prozedura murriztutako, negoziatuzko lizitazioarenerako, lehia-elkarrizketarenerako eta berrikuntzarako elkartzearenerako ezartzen duenari jarraikiz. Zehazki:

i) Hautaturiko hautagaien edo lizitatuzaileen izenak eta haien hautaketa justifikatzen duten arrazoiak.

ii) Bazter utzitako hautagaien edo lizitatuzaileen izenak eta haien bazterketa justifikatzen duten arrazoiak;

c) Baxuegitzat jotako eskaintzak baztertu izanaren arrazoiak;

d) Adjudikazioi-hartzailearen izena eta haren eskaintza onartu izanaren arrazoiak; bai eta, eza-guna baldin bada, adjudikazio-hartzaileak hirugarrenekin azpikontratatzeko asmoa duen kontratuparteak edo esparru-akordioaren parteak; eta, baldin badaude eta une horretan ezagunak baldin badira, kontratista nagusiaren azpikontratisten izenak;

e) Negoziatuzko lizitazioaren prozedurarako eta lehia-elkarrizketako prozedurarako, zer inguruabarrek justifikatzen duten prozedura horiek erabiltzea;

f) Aurretiazko argitarapenik gabeko prozedura negoziatuei dagokienez, zer inguruabarrek justifikatzen duten prozedura hori erabiltzea;

g) Kasua bada, adjudikazio-botereak zer arrazoiengatik erabaki duen kontratu edo esparru-akordio bat ez adjudikatzea edo egitea, edo uko egin dion erosketarako sistema dinamiko bat ezartzeari;

h) Kasua bada, zer arrazoiengatik erabili diren elektronikoen bestelako komunikabideak eskaintzen aurkezpen elektronikorako.

i) Kasua bada, detektaturiko interes-gatazkak eta horiei dagokienez harturiko neurriak.

j) Kasua bada, enpresek kontratuko dokumentuak prestatze aldera aurretiaz parte hartzean zer neurri hartu diren.

Kontratu-formalizazioaren iragarkiak apartatu honetan eskatzen den informazioa biltzen duen heinean, adjudikazio-botereek zilegi izanzen dute iragarki horri erreferentzia egitea”.

Zioak: Zuzentarauaren ondorioz, beharrezkoa da kontratu guztiei buruzko txosten bat prestatzea, Europako Batzordeari igortzeko aukerari begira.

140. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

102. artikulua izenburua eta edukia aldatzeko zuzenketa. Hurrengo testu honekin ordeztuko da:

“102. artikulua. Zergen, lanaren, gizartearen, ingurumenaren babesaren, enpleguaren, lan-baldintzen eta genero-berdintasunaren arloetako xedapenei dagozkien betebeharrak.

1. Kontratazio-neurriek egoki diren neurriak hartuko dituzte, xedatze aldera kontratuen exekuzioan kontrastitek bete egiten dituztela ingurumenaren, gizartearen edo lanaren arloetan aplikatzekoak diren betebeharrak, ezarrita datozenak Europar Batasunaren zuzenbidean, zuzenbide nazionalean, hitzarmen kolektiboetan edo Estatuarentzat lotesleak diren ingurumen-, gizarte- eta lan-arloetako nazioarteko zuzenbideko xedapenetan; bereziki, III. eranskinean jasotakoetan.

2. Aurreko paragrafoan adierazitakoa ezartzen da ezertan kaltetu gabe kontratazio-organoen boterea, egoki diren neurriak hartzeko hautagaiek eta lizitatzailleek paragrafo horretan jasotzen diren betebeharrak bete egiten dituztela lizitazio-prozeduran zehar egiaztatzeko.

3. Lehen paragrafoan jasotako betebeharren urraketak eta, batez ere, soldaten ordainketan gertaturiko urraketa edo atzerapen errepikatuek edo soldata-baldintza baxuagoak aplikatzeak hitzarmen kolektiboetatik eratorriak direnak baino,

astuna eta dolozkoa denean, erakarriko dute 139. artikulua aipatzen dituen zigorrak ezartzea.

4. Kontratazio-organok pleguan seinalatu ahalko du zer erakundetatik lor dezakeen lizitatzaille izan denak informazio egokia honako arlo hauetako betebeharrak buruz: fiskalitatea, Gizarte Segurantzaren, ingurumenaren babesaren, enpleguaren babesaren, genero-berdintasuna, sexuagatiko jazarpena edo jazarpen sexuala, lan-baldintzak, laneko arriskuen prebentzioa eta lan-arloko gainerako xedapenak, desgaitasuna duten pertsonen laneratze eta gizarteratzea, desgaitasuna duten pertsonen kopuru edo portzentaje zehatz bat kontratatzea, eta, batez ere, kontratatu beharreko jardura kokaturik dagoen sektorean esparrurik baxueneko azken hitzarmen sektorialak ezarritako baldintzak.

5. Lehen apartatuak aipatzen duen informazioa eskaintzen denean, kontratazio-organok kontratu-adjudikazioko prozedura bateko lizitatzailleari edo hautagaiei eskatuko die adieraz dezatela beren eskaintzak prestatzean kontuan hartu dutela zer betebeharrak eratortzen diren hainbat arlotako indarreko xedapenetatik, nola baitira zerga-arloa, ingurumenaren babesaren, enpleguaren babesaren, genero-berdintasuna, lan-baldintzak, laneko arriskuen prebentzioa, desgaitasuna daukaten pertsonen gizarteratze eta laneratzea, desgaitasuna daukaten pertsonen kopuru edo portzentaje zehatz bat kontratatzeari dagokiona, eta ingurumenaren babesaren.

6. Horrek ez du galaraziko 95. artikuluan xedatua aplikatzea, balio anormalak edo proportziorik gabeak jasotzen dituzten eskaintzen egiaztapenari buruzkoa”.

Zioak: Testu honek egokitzapen hobea dauka 63.3.a) artikulua testuarekin.

141. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

102. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

“102. artikulua. Fiskalitateari, ingurumenaren babesari, enplegua eta lan-baldintzei eta desgaitasuna duten pertsonen kopuru edo portzentaje zehatz bat kontratatzeari buruzko betebeharren gaineko informazioa.

1. Kontratazio-organok zehaztu ahalko du pleguan hautagaiek edo lizitatzailleek zein erakundetan lor dezaketen beharrezkoa den informazioa, kontratua bete bitartean egiten diren lanei edo

ematen diren zerbitzuei aplikatzekoak zaizkien betebeharren ingurukoa, ondoko arloetan: zerga-erloa, ingurumenaren babesa, enpleguaren babesa, genero-berdintasuna, lan-baldintzak, laneko arriskuen prebentzioa, desgaitasuna daukaten pertsonen gizarteratze eta laneratzea, desgaitasuna daukaten pertsonen kopuru edo portzentaje zehatz bat kontratatzea.

2. Lehen apartatuak aipatzen duen informazioa eskaintzen denean, kontratazio-organoak kontratu-adjudikazioko prozedura bateko lizitatuileari edo hautagaiei eskatuko die adieraz dezatela beren eskaintzak prestatzean kontuan hartu dutela zer betebeharrak eratorzen diren hainbat arlotako indarrek xedapenetatik, nola baitira zerga-erloa, ingurumenaren babesa, enpleguaren babesa, genero-berdintasuna, laneko arriskuen prebentzioa, desgaitasuna daukaten pertsonen gizarteratze eta laneratzea, desgaitasuna daukaten pertsonen kopuru edo portzentaje zehatz bat kontratatzeari dagokiona, ingurumenaren babesa eta prestazioa egin behar den tokia dagokion sektoreko esparru baxuena duen hitzarmen kolektibo sektorialean ezarritako baldintzak.

Horrek ez du galaraziko 95. artikuluan xedatua aplikatzea, balio anormalak edo proportziorik gabeak jasotzen dituzten eskaintzen egiaztapenari buruzkoa”.

Zioak: Testua hobetzen du Estatuko legearen arabera.

142. ZUZENKETA

GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA, ETA PODEMOS-AHAL DUGU TALDE PARLAMENTARIOEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

102. bis artikulua berri bat gehitzeko zuzenketa.

“102. bis artikulua. Gizarte-, etika- edo ingurumen- arloko edo bestelako baldintza bereziak, kontratu-exekuziokoak.

1. Kontratazio-organoek zilegi izanen dute baldintza bereziak ezartzea kontratu-exekuzioari dagokionez, baldin eta ez badute loturarik kontratuaren xedarekin, ez badira zuzenki edo zeharka deskriminatzaileak, Europar Batasuneko zuzenbidearekin bateragarri badira eta hala lizitazio-ragarkian nola pleguetan adierazten badira.

Beti ere nahitaezkoa izanen da administrazio-klausula partikularren pleguan ezartzea hurrengo

apartatuan zerrendatzen diren exekuzio-baldintza berezietako bat, gutxienez ere.

2. Exekuzio-baldintza horiek, bereziki, ekonomikoak, berrikutzari edo ingurumenari lotuak edo sozialak diren kontsiderazioei buruzkoak izan ahalko dira.

Zehazki, honako helburu hauek erdiesteko ingurumen-arloko kontsiderazioak ezarri ahalko dira: negutegi-efektuko gasen emisioen murrizketa; kontratu-exekuzioaren ondorioz ukiturik gerta daitezkeen ingurumen-balioen mantentzea edo hobekuntza; uraren kudeaketa jasangarriagoa; energia berriztagarrien erabileraren sustapena; produktu-birziklatzearen eta ontzi berrerabilgarrien erabileraren indartzea; edo solteko produktu-banaketa eta ekoizpen ekologikoaren bultzada.

Kontsiderazio sozialak nahiz enpleguari buruzkoak honako helburu hauetakoren batekin ezarri ahalko dira: Desgaitasuna duten pertsonen eskubidei buruzko Nazio Batuen Konbentzioan aitorturiko eskubideak gauzatzea; legeria nazionalak exigitzen duena baino desgaitu-kopuru handiagoa kontratatzea; lan-merkatuan txertatzeko zailtasun bereziak daukaten pertsonen enplegua sustatzea laneratze-enpresen bitartez, batez ere desgaitasuna duten edo gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonena; merkatu horretan gizonen eta emakumeen arteko desberdinkeria ezabatzea, lanean gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzen duten neurrien aplikazioa erraztuz; emakumeek lan-merkatuan parte hartze handiagoa izan dezaten erraztea, bai eta lanaren eta familiararen uztartzea ere; langabezia borrokatzea, batez ere gazteena, emakumeena eta iraupen luzekoa; lantokian prestakuntza eman dadin sustatzea; lantokian segurtasuna eta osasunaren babesa bermatzea, bai eta aplikatzekoak diren hitzarmen kolektibo sektorialen eta lurralde-mailakoen betetzea ere; laneko istripuak prebenitzeko neurriak; Europar Batasunaren funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 145. artikuluan definitzen den enplegu-estrategia koordinatuari erreferentzia eginez ezartzen diren bestelako helburu batzuk; edo oinarriko lan-eskubideen errespetua bermatzea ekoizpen-katean zehar, Lanaren Nazioarteko Erakundearen oinarriko konbentzioak bete daitezkeen exigituz, barne harturik garapen bidean dauden herrialdeetako ekoizle txikiak mesede egitearen aldeko kontsiderazioak, haiekin aldekoak dituzten merkataritza-harremanak eduki ondoren, nola baitira gutxienezko prezio baten ordainketa, ekoizleentzako sari bat edo merkataritza-kate osoan gardentasun eta trazagarritasun handiago bat egotea.

3. Pleguek zilegi izanen dute exekuzio-baldintza berezi horiek urratzearen kasurako zigorrak ezartzea, edo haiei gutsezko kontratu-betebeharren izaera ematea. Baldintza horien urraketa ez denean kontratua suntsiarazteko kausa gisa tipifikatzen, urraketa hori arau-hauste larritzat sailkatu ahalko da pleguetan, erregelamendu bidez ezarriko den moduan.

4. Kontratuaren parte diren exekuzio-baldintza berezi guztiak orobat exigituko zaizkie kontratuaren exekuzioan parte hartzen duten azpikontratatista guztiei”.

Zioak: Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 202. artikuluan jasota.

143. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

103. artikulua 1. apartatuari paragrafo berri bat gehitzeko zuzenketa.

“Lizitatuzaileek eskaintzan adierazi beharko dute kontratuaren zer zati aurreikusten duten azpikontratatzea. Eskaintza aurkezterakoan adieraziko dute nortzuk diren proposaturiko azpikontratatistak, haien kualifikazio profesionala baloratu ahal izateko. Erazpen horrekin batera azpikontratatistaren erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko da, kontratuaren baldintzak betetzeari eta 22. artikuluko inguruabarretan ez egoteari buruzkoa”.

Zioak: Europako zuzentarauak jasotako neurria da. 71. artikulua.

144. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

103. artikulua 2. apartatuko c) letra aldatzeko zuzenketa.

“c) Azpikontratatistak adierazpen bat aurkeztea, kontratatze bategintzarak ez izateari eta aplikatzeko den hitzarmen kolektibo sektorialean jasotako lan baldintzak gutxienez errespetatzeko konpromisoa hartzeari buruzkoa”.

Zioak: Enpresako langileen lan baldintzak bermatze ditu azpikontratazioetan.

145. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

103. artikulua testua gehitzeko zuzenketa. 6. apartatu bat gehitzen zaio:

“Kontratazio-organoak zilegi izanen du administrazio-klausulen pleguetan aurreikustea azpikontratatistei zuzeneko ordainketak egitea, ezertan galarazi gabe kontratista nagusiari ordaintzeko betebeharrak betetzea, eta, betiere, horrek bere azpikontratatistari ordaindu ez diola frogatzen bada. Azpikontratatistaren alde eginiko ordainketak kontratista nagusiaren kontura egindakotzat joko dira, eta kontratazio-organoari dagokionez eutsiko diote kontu onerako ordainketen izaera berari, obra-ziurtagiriek bezalaxe”.

Zioak: Azpikontratazioa arautzean, proiektuak ez du kontuan hartzen “zuzeneko akzio” deritzona. Hau da, kontratazio-organoak prestazioa azpikontratatistari ordaintzea. Asmoa da legeak ahalbidetu dezala azpikontratatistari inguruabar jakin batzuetan eskubide hori ematea, hark babes-bitarteko bat izan dezan kontratista nagusiaren urraketen aurrean. Enpresa txiki eta ertainei laguntzeko beste neurri bat da.

146. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

109. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

109. artikulua. Kontuen Ganberak eginiko fiskalizazioa.

“1. Ondoko kasuetan, kontratua sinatu eta hurrengo hiru hilabeteetan, kontratuaren dokumentuaren kopia ziurtatu bat bidali beharko da Kontuen Ganberara, sorburu duen espedientearen laburpen batekin batera, honek bere fiskalizazio eginkizuna bete dezan: obrak, obra-emakidak, zerbitzu-emakidak eta esparru-akordioak direnean, kontratuaren adjudikazio-prezioa edo esparru-akordioaren kasuan balio zenbatetsia 600.000 euro baino gehiagokoa denean; hornikuntzak direnean, 450.000 euro baino gehiagokoa denean; eta zerbitzu-kontratua bada, 150.000 euro baino gehiagokoa denean.

2. Halaber, Kontuen Ganberara bidali beharko dira aurreko paragrafoan aipatu kontratuaren dokumentuaren kopia ziurtatu bat eta sorburu duen espedientearen laburpena, esparru-akordio batean oinarritutako kontratuen eta erosketa siste-

ma dinamiko baten eremuan sinaturiko kontratuen kasuan, betiere kontratuaren adjudikazio-prezioa aipatu paragrafoan zehazten diren kopuruak baino gehiagokoak badira, kontratuaren izaeraren arabera.

3. Era berean, Kontuen Ganberari jakinaraziko zaizkio adierazitako kontratuen aldaketa, luzapen edo epe aldaketa, prezio aldaketa eta azken zenbaterako, deuseztasuna eta amaiera normala edo ezohikoa.

4. Aurreko apartatuetan ezarritakoa ulertuko da ezertan galarazi gabe Kontuen Ganberak duen ahalmena beharrezkotzat jotzen dituen datu, dokumentu eta aurrekari oro eskatzeko, edozein motatako eta zenbaterakotako kontratuei buruz.

5. Halaber, Kontuen Ganberak, bere fiskalizazio-eginkizuna gauzatzekoan, gomendatu ahal du zenbait neurri hartzea irregularitasunak edo praktika desegokiak zuzentzeko, edota foru lege honen mendeko adjudikazio-botereen kontratu-jardura optimizatzeko”.

Zioak: Kontratu publikoen fiskalizazio-kontrola erraztea.

147. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

110. artikulua. Kontratazio Publikorako Batzordea.

110. artikulua. Kontratazio Publikorako Batzordea.

“2. Kontratazio publikoaren arloko eskumena duen departamentuaren burua izanen da Kontratazio Publikorako Batzordeko buru, eta batzordekide, berriz, foru lege honen mendeko administrazioen eta erakundeen ordezkariak, bai eta lizitazioetan esku hartzen duten enpresen eta profesionalen ordezkariak eta erakunde sindikalen ordezkariak ere. Edonola ere, Batzordeko kideek kontratazio publikoaren arloan prestakuntza berezia izan beharko dute nahitaez”.

Zioak: Erakunde sindikalek, profesionalak eta enpresa-arlokoek eskubide berbera behar dute izan, Kontrataziorako Batzordera sartzeko zein harengandik informazioa jasotzeko.

148. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

110. artikulua. Kontratazio Publikorako Batzordea.

110. artikulua. Kontratazio Publikorako Batzordea.

“c) Informazioa ematea foru lege honen mendeko pertsona eta entitateei eta kontratazio publikoak ukitzen dituen erakunde profesional, sindikal eta enpresa-arlokoek, gai horrekin zerikusia duten aferei buruz, horien gaineko iritzia eskatzen zaionean”.

Zioak: Erakunde sindikalek, profesionalak eta enpresa-arlokoek eskubide berbera behar dute izan, Kontrataziorako Batzordera sartzeko zein harengandik informazioa jasotzeko.

149. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

110. artikuluko 2. eta 3. apartatuak aldatzeko zuzenketa.

“2. Kontratazio publikoaren arloko eskumena duen departamentuaren burua izanen da Kontratazio Publikorako Batzordeko buru, eta batzordekide, berriz, foru lege honen mendeko administrazioen eta erakundeen ordezkariak, bai eta lizitazioetan esku hartzen duten langileen, enpresen eta profesionalen ordezkariak ere. Edonola ere, Batzordeko kideek kontratazio publikoaren arloan prestakuntza berezia izan beharko dute nahitaez”.

3. Kontratazio Publikorako Batzordeak Osoko Bilkura eta batzordeak izanen ditu bere jarduna betetzeko. Bertan, organo egonkor gisa, batzorde iraunkorra eta kontrol batzordea egonen dira”.

Zioak: Kontratazio publikoak duen defizit handienetako bat da adjudikazioen gaineko kontrol falta, eta ondo jakina da ez direla betetzen kontratazio-pleguak; izan ere, besteak beste, ez da kontratuen exekuzio zuzenari buruzko inongo kontrol egiten.

Iragan ekainean, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak mozio bat onetsi zuen PSN-PSO-Eren ekimenez, zeinaren bidez Nafarroako Gober-

nua premiatzen baita kontratazio publikoaren jarraipenerako talde bat sor dezan, gizarte-eragileen eta Administrazioaren parte-hartzearekin, xede izanen duena zaintzea Nafarroako Gobernuak onetsitako kontratu publikoak behar bezala betetzen direla eta bermatzea baldintza-orrietan jasotako gizarte-klausulen arabekoak direla kontratatutako enpresetan diharduten langileen lan-baldintzak. Horrenbestez, oso egokia iruditzen zaigu artikuluko honen aldaketa, eragile sozialei bidea emateko Kontratazio Publikorako Batzordearen Osoko Bilkuraren partaide izateko eta hala “kontrol batzorde” izaera izanen duen batzorde berri bat sortzeko, xede izanen duena kontratu publikoaren exekuzioan kontratazio-pleguak betetzen direla zaintzea.

150. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

111. artikuluan laugarren apartatu berri bat gehitzeko zuzenketa.

111. artikulua. Kontratuen Erregistroa.

“4. Kontratazio Atariak Kontratuen Erregistroaren edukirako sarbidea eskainiko du”.

Zioak: Kontratazio publikoko gardentasun-sistema hobetu nahi da.

151. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI POPULARREKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

112. artikuluko 5. apartatua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Karguko jarduna lanpostuarekin bateragarri izatea kontraesan dago 89/665/EEE Zuzentarauak exigitzen duen independentziarekin. Jarduneko enplegatu publiko batek lanpostu nagusia beste organo batean izateak mendekotasun hierarkikoko egoera batean ipintzen du batzordekidea, kontratu-kudeaketan interesdun diren agintariekin, eta hori ezin da inola ere bateragarria izan independentzia-baldintzetan jardutearekin.

152. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

112. artikularen 1. apartatua aldatzeko zuzenketa.

112. artikulua. Nafarroako Kontratu Publikoaren Administrazio Auzitegia.

“1. Nafarroako Kontratu Publikoaren Administrazio Auzitegia independentzia funtzionala duen organo bat da, organikoki atxikia kontratazio publikoaren alorrean eskudun den departamentuari, eta eginkizun du zuzenbideari jarraikiz ebaztea kontratazio publikoaren arloko erreklamazio bereziak, eta foru lege honetan araututako kautelazko neurriak hartzea”.

Zioak: Auzitegiari behar diren bitartekoak ematea, bere eginkizuna independentzia-baldintzetan bete ahal izatea bermatuko diotenak.

153. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

112. artikularen 9. apartatua aldatzeko zuzenketa.

112. artikulua. Nafarroako Kontratu Publikoaren Administrazio Auzitegia.

“9. Nafarroako Kontratu Publikoaren Administrazio Auzitegiko idazkaria berariaz horretarako hautatua izanen da 5 urte baino gehiagoz jardunean dirauten funtzionarioen artean, zeinak Zuzenbidean lizentziatuak izanen baitira eta prestakuntza berezia izanen baitute kontratazio publikoaren gain.”

Halaber, bere jardunean aritzean, Nafarroako Kontratu Publikoaren Administrazio Auzitegiak bitarteko propioak izanen ditu”.

Zioak: Auzitegiari behar diren bitartekoak ematea, bere eginkizuna independentzia-baldintzetan bete ahal izatea bermatuko diotenak.

154. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

112.2. artikulua aldatzeko zuzenketa. Proposatzen da 2. apartatua aldatzea, “eta kideok aukera izanen dute berriz hautatuak izateko” esan ordezk honakoa esan dezan:

“eta kideok ez dute aukerarik izanen berriz hautatuak izateko”.

Zioak: Proiektuak esaten du auzitegiko kideak berriz hauta daitezkeela, eta hori auzitegiaren independentziaren eta neutraltasunaren printzipioaren kontrakoa da. Horrenbestez, Nafarroako Gobernuak askatasunez, eta ez merezimendu-eta gaitasun-prozesu baten emaitza gisa, hautatuak izateak behartzen du kontrapisu gisa xedatzeraz haiek ezin berriro hautatuak izatea. Gainera, oinarritzko legeak halaxe jasotzen du, eta Estatuak oinarritzko eskumena dauka prozedura erkidean.

155. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

112.3 artikulua aldatzeko zuzenketa. Araua konstituzio-kontrakoa izan ez dadin (Estatuaren erabateko eskumenekoak dira prozeduraren oinarriak), eta auzitegiaren profesionaltasuna ziurtatzearen, 112. artikulua 3. apartatua aldatzea proposatzen da:

“3. Auzitegiko buruak hamabost urte baino gehiagoz izan beharko du bere lanbide-jardueran aritua; ahal dela, kontratazio publikoarekin zuzeneko zerikusia duen administrazio-zuzenbidearen esparruan.

Kideek hamar urte baino gehiagoz izan beharko dute beren lanbide-jardunean arituak; ahal dela, kontratazio publikoarekin zuzeneko zerikusia duen administrazio-zuzenbidearen esparruan.

Auzitegiko burua Kontratazio Publikorako Batzordearen Osoko Bilkurako sortzetiko kide izanen da.

Zioak: Auzitegiaren osaerak ez du islatzen haren kideen nahitaezko espezializazioa, ezen, alde batetik, eskaturiko eskarmentua txikiagoa da oinarritzko legedian ezartzen dena baino, eta, bestetik, ez da kontratazio publikoaren arlokoa, birbideratzen baita “kontratazio publikoaren arloan prestakuntza berezia” edukitzeraz; hortaz, gerta daiteke kideak egotea beren lanbide-jarduna arlo horretakoa sekula izan ez dutenak.

156. ZUZENKETA**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

113. artikulua 1. apartatua aldatzeko zuzenketa.

113. artikulua. Kontratazio publikoaren arloko erreklamazio berezia.

“1. Kontratazio publikoaren arloko erreklamazio berezia Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiari aurkeztu ahalko diote kontratu publiko baten lizitazioan eta adjudikazioan interesdun diren enpresek, profesionalak eta pertsonak, bai eta erakunde sindikalek ere”.

Zioak: Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 48. artikuluan jasota.

157. ZUZENKETA**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

113. artikulua 2. apartatua aldatzeko zuzenketa.

113. artikulua. Kontratazio publikoaren arloko erreklamazio berezia.

“2. Aurkaratzeko modukoak izanen dira lizitazioetik bazter uzten dituzten edo haien aukerak kaltetzen dituzten kontratazio pleguak, tramite egintzak edo behin betikoak, foru lege honen mendeko entitate batek adjudikazio prozedura batean egindako adjudikazio egintzak, emakidak erreskatatzeko erabakiak eta, legez kanpoko adjudikazio egintzak izan daitezkeen neurrian, ente instrumental bati egindako enkargua edo kontratu baten aldaketa”.

Zioak: Helburua da erreklamazioaren aplikaziorako esparru objektiboa zabalagotzea.

158. ZUZENKETA**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

113 artikulua aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

“113. artikulua. Kontratazio publikoaren arloko erreklamazio berezia.

1. Kontratazio publikoaren arloko erreklamazio berezia jarri ahalko da artikulua honetako 2. apartatuan zerrendaturiko egintza eta erabakien aurka, administrazio publikoek edo adjudikazio-botere izaera duten gainerako entitateek hitzartu nahi dituzten kontratuei buruzkoak direnean:

a) Hiru milioi euro baino gehiagoko balio zenbatetsia duten obra-kontratuak, eta ehun mila euro baino gehiagoko balio zenbatetsia duten hornidura- eta zerbitzu-kontratuak.

b) Aurreko letran tipifikaturiko kontratuetakoren bat egitea xede duten esparru-akordioak eta erosketarako sistema dinamikoak, bai eta horietako edozeinetan oinarritutako kontratuak.

c) Hiru milioi euro baino gehiagoko balio zenbatetsia duten obren edo zerbitzuen emakidak.

Halaber, erreklamazioen xede izan ahalko dira administrazio-kontratu bereziak, beren ezaugarrietatik ezinezkoa denean haien lizitazio-prezioa finkatzea edo, bestela, haien balio zenbatetsia zerbitzu-kontratuetakoko ezarritakoa baino handiagoa denean.

2. Errekurtsoaren xede izanen ahal dira ondoko jarduketak:

a) Kontratazioa arautu behar duten baldintzak ezartzen dituzten lizitaziorako iragarkia, pleguak eta kontratu-dokumentuak.

b) Adjudikazio-prozedurak eginiko izapidetze-egintzak, betiere zuzenean edo zeharka erabakigarriak direnean adjudikaziorako, prozedura jarraitzeko ezintasuna dakartenean edota babesgabetasuna edo eskubide edo interes legitimoetarako kalte konponezina sorrarazten dutenean. Edonola ere, ulertuko da aurreko inguruabarrak gertatzen direla kontratazio-mahaiaren edo -organoaren egintzetan, horien bidez erabakitzen bada hautagaien edo lizitatuzaileen onarpena edo baztertzea, edo eskaintzen onarpena edo baztertzea, 95. artikulua aplikazioaren ondorioz baxuegiak izateagatik baztertzen diren eskaintzak barne.

c) Adjudikazio-erabakiak.

d) Foru lege honen 105. artikuluan ezarritakoa ez betetzean oinarrituriko aldaketak, ulertzen bada aldaketa adjudikazio berri baten xede izan behar zuela.

e) Berezko baliabideei gauzatutako enkarguak, legeko baldintzak betetzen ez dituztenean.

f) Emakidak erreskatatzeko erabakiak.

3. Bigarren apartatuan jasotako egintzak ez diren beste batzuei eragiten dieten izapidetze-akatsen berri eman ahalko diete interesdunek espedientearen instrukzioa dagokion organoari edo kontratazio-organoari, zuzenbideari jarraikiz konpon ditzaten, ezertan galarazi gabe interesdunek horiei buruzko alegazioak egitea adjudikazio-egintzari buruzko errekurtsua aurkezterakoan.

4. Ezin izanen da errekurtsu hori aurkeztu urgentziazko izapidetzeari jarraikiz adjudikaturiko prozedurengatik.

5. Artikulu honetan errekurtsu bereziaren xede izan daitezkeen egintza gisa aipatzen jarduketan aurka ezin izanen dira aurkeztu errekurtsu administratibo arruntak.

6. Lehenbiziko apartatuko baldintzak betetzen ez dituzten administrazio publikoen kontratuak adjudikatzeko prozeduretan ematen diren egintzak errekurtsuaren xede izan ahalko dira Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Lege xedatutakoari jarraikiz.

Administrazio publiko izaera ez duten adjudikazio-botereek eginiko jarduketei dagokienez, administrazio-bidean inpugnatu ahalko dira, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoari jarraikiz, entitate kontratatzailea atxikita dagoen edota haren zain-tza dagokion departamentu, organo, ente edo erakundearen titularraren aurrean. Entitate kontratatzailea administrazio bati baino gehiagori lotuta badago, organo eskuduna izanen da kontrola edo partaidetzaren gehiengoa duena.

7. Kontratazio arloko erreklamazio berezia aukerakoa eta doakoa izanen da errekurtsua aurkezten duten pertsonentzat”.

Zioak: Estatuko legean dagokion artikulura jotzea proposatzen dugu, oinarritzko legea baita.

159. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

114. artikulua. 1. apartatuari paragrafo berri bat gehitzeko zuzenketa.

114. artikulua. Legitimazioa.

Errekurtso hau aurkezteko legitimatuta egonen dira erakunde sindikalak ere, funtsatuki deduzi daitekeenean errekurri daitezkeen egintza edo erabakiek inplikatzeko dutela kontratu-exekuzioko prozesuan enpresaburuak gizarte- edo lan-arloko betebeharrak urra ditzan, prestazio-ematean parte hartzen duten langileei dagokienez”.

Zioak: Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 48. artikuluan jasota.

160. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

114. artikuluko 1. apartatua aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko da:

“1. Kontratazio arloko errekurtsio berezia aurkeztu ahalko du pertsona fisiko edo juridiko oro, baldin eta errekurtsioaren xede diren erabakiek kaltetu badituzte edo kaltetu badituzakete, zuzenean edo zeharka, haren bidezko eskubide edo interes norbanakoak nahiz taldekoak.

Halaber, errekurritu ahal daitezkeen egintzen aurkako errekurtsio hau aurkezteko legitimatuta egonen dira erakunde sindikalak ere, funtsatuki deduzi daitekeenean errekurri daitezkeen egintza edo erabakiek inplikatzeko dutela kontratu-exekuzioko prozesuan enpresaburuak gizarte- edo lan-arloko betebeharrak urra ditzan, prestazio-ematean parte hartzen duten langileei dagokienez. Edonola ere, ulertuko da legitimatuta daudela sektoreko enpresaburuaren erakundea eta kaltetutakoaren interesak ordezkatzen dituen elkarteak”.

Zioak: Beharrezkoa da legitimitasun argia eta espresua ematea langileen ordezkaritzari eta sindikatuei, prozeduretan pertsonatu ahal izateko.

161. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI POPULARREKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

114. artikuluko 1. apartatua aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

114. artikulua. Legitimazioa.

“1. Erreklamazio berezia zuzeneko edo zilegizko interes bat frogatzen duen edonork aurkezten ahalko du, edo errekurritzen diren erabakiak dirala eta zuzenean nahiz zeharka kalteturik edo ukiturik suertatu den edonork. Halaber aurkezten ahalko dute aurkaratzen den kontratuaren xedearekin lotutako interesak ordezkatzen dituzten elkarteek, betiere elkarte horietako kideen interes kolektiboak babesteko baldin bada. Halaber aurkeztu ahalko dute erakunde sindikalek, bai eta toki entitateen kideetatik egintza eta erabaki aurkaratuen kontrako botoa eman dutenek ere”.

Zioak: Lege proiektuaren testua murriztaileagoa da Senatuan gaur egun izapidetzen ari den Sektore Publikoko Kontratuen Lege proiektua baino. Gainera, komenigarria da legitimazioa egokitzea Kontratu Errekurtsoen Administrazio Auzitegi Zentralak daukan Kontratu eta Antolaketa Arloko Erabakiak Berrikusteko Prozedura Berezien Erregelamenduari.

162. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

115. artikulua. 1. apartatua aldatzeko zuzenketa.

115. artikulua. Kontratazio publikoaren arloko erreklamazio bereziaren araubidea.

“1. Erreklamazio berezia aukerakoa, ordezkoa eta doakoa da, eta eragozten du arrazoi berean oinarritutako beste edozein errekurtsio administratibo aldi berean aurkeztea, horrek galarazi gabe beste arrazoi batzuetan oinarritutako beste zenbahi erreklamazio edo errekurtsio aurkeztea beste organo batzuetan”.

Zioak: Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 44. artikuluan jasota.

163. ZUZENKETA**NAFARROAKO ALDERDI POPULARREKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

115. artikuluko 2. apartatua aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

115. artikulua. Kontratazio publikoaren arloko erreklamazio bereziaren araubidea.

“2. Kontratazio publikoaren arloko erreklamazio berezia aurkezteko epea hamabost egunekoa da, honela kontatzen hasita.”.

Zioak: Gaur egun Senatuan izapidetzen ari den Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeko epe berberak ezartzea.

164. ZUZENKETA**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

115. artikuluari 4.bis apartatu berria gehitzeko zuzenketa.

115. artikulua. Kontratazio publikoaren arloko erreklamazio bereziaren araubidea.

“5. Baldin eta adjudikazio-egintza balitz errekurriturikoa eta, oraindik ebatzi gabe egonik erreklamazioa, muga-egunera iritsiko balitz adjudikazioa errekurritzen zaion kontratuaren aitzinetiko kontratua, kasu horretan zilegi izanen da, interes publikoarengatik beharrezkoa denean prestazioen jarraitutasuna, jatorrizko kontratua luzatzea, hariak eta kontratu berriaren exekuzioa hasten den arte; gehienez ere sei hilabetez, eta kontratuko gainerrako baldintzak aldatu gabe”.

Zioak: Hobekuntza teknikoa, erreklamazioa ebatzi bitartean halako egoera batzuk ekiditeko non interes publiko bat kalteturik gerta baitaiteke beharrezkoa den zerbitzu bat ematen segitu ezin izateagatik.

165. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

115.3. artikuluari testua gehitzeko zuzenketa. f) apartatua gehitzen da:

“Emakidak erreskatatzeko erabakiak”.

Zioak: Ez ditu aurkaratzeko modukotzat jotzen emakida-erreskateak; oinarritzko legediak, ordea, halakotzat jotzen ditu.

166. ZUZENKETA**NAFARROAKO ALDERDI POPULARREKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

118. artikuluko 1. apartatua aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

118. artikulua. Erreklamazioa ebatzea.

“1. Erreklamazioari buruzko ebazpena hogeita hamar egun balioduneko epean emanen da, hura aurkezten denetik hasita”.

Zioak: Administrazio-isiltasunerako epe oso doitua ezartzearen arriskua da errekurtsio ugari horrela ebatzea, eta hori ez da onuragarria ezein alderdientzat, eta nekez ezkontzen da europar zuzentarauen asmo batekin, zeina baita kontratazio arloko errekurtsioari eraginkortasun handiagoa ematea administratuen ikuspegitik.

167. ZUZENKETA**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

134. artikulua 1. apartatua aldatzeko zuzenketa.

1. “ Kontratua kudeatzen duen unitateak kontratua nola exekutatzen den gainbegiratu, ikuskatu eta kontrolatuko du, eta kontratazio publikoari buruzko legedia behar bezala betetzen dela zainduko du, ez betetze-zehatzak edo arazo sistematikoak detektatzeko. Halaber, hitzartutakoa zehatz-mehatz betetzen dela bete dadin behar diren jarraibideak ematen ahalko ditu”.

Zioak: Kontratazio-pleguetako betebeharrak betetzen direla ziurtatzea.

168. ZUZENKETA**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

134. artikuluari 1. bis apartatua gehitzeko zuzenketa.

“1. bis. Kontratu-hartzaileak organo kontratazailearen aurrean justifikatu beharko du, hala eskatzen zaionean, aplikatzeko den hitzarmen kolektibo sektorialak langile horientzat ezartzen dituzten lan baldintzak betetzen dituela.Kontratua-

ren ez-betetze astuntzat joko da eskaera hama-bost eguneko epean ez betetzea, eta oso astuntzat ezarritako lan baldintzak ez betetzea”.

Zioak: Gure ustez, egokia da neurri hau ezar-tzea langileen lan baldintzak bermatzeko.

169. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

135. artikulua aldatzeko zuzenketa.

135. artikulua. Administrazio kontratuen inter-pretazioa.

“Kontratazio organoak ahalmena du adminis-trazio kontratuak interpretatzeko eta haiek bete-tzeko orduan sor daitezkeen zalantzak ebazteko. Ahalmen horren erabilera dokumentatu eginen da espediente baten bitartez, kontratistari entzutea eman ondoren. Espedientean jasoko dira kontra-tazio organoko zerbitzuek emandako txosten tek-niko eta juridiko egokiak, ezertan galarazi gabe Nafarroako Kontseiluak irizpena ematea kontratis-tak aurkako jarrera adierazi duenean”.

Zioak: Nafarroako Kontseiluari buruzko Foru Legea 2016an aldatu ondoren, arau horren testu-tik desagertu egin da kontratazio publikoari buruz-ko txostenei dagokiena; hortaz, Kontratu Publiko-en Foru Legeak bere testuan jasotzen ez badu, hutsune bat gertatuko litzateke, ordenamendu juri-dikoa bere osotasunean hartuta interpretazio bat egitera behartuko lukeena; eta horri buruz jadanik mintzatu da Nafarroako Kontseilua bera bere 3/2014 irizpenean, zeinean esaten baitu: “Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legeko (aurrerantzean, KPFL) 124.2 artikulua, kasu honi aplikatzekoa den haren bertsioan –Kon-tratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea aldatzen duen otsailaren 25eko 3/2013 Foru Legearen bigarren xedapen iragankorraren arabera–, ez du jasotzen aipaturiko 23. artikuluan adierazitako arauaren antzekorik; baina, adminis-trazio-kontratuak suntsiarazteko prozedura taxu-tzean, esaten du, e) letran, Nafarroako Kon-tseiluak irizpena eman beharko duela, haren legeria berariazkoari jarraikiz aginduzkoa denean.

Kontseiluak maiatzaren 27ko bere 17/2013 iriz-penean jadanik azaldu zuen bezala, KPFLko 124.2 artikulua egiten duen igorpenari eduki bat eman beharrak, aipaturiko gainerako arauekin

batera interpretazio sistematiko bat egin beharra-rekin batera, edo –bestela esanda– KPFLko 124.2 artikuluan egiten den igorpenaren interpretazio historikoak, eramaten gaitu ondorioztatzera ezen Nafarroako Kontseiluaren irizpenak aginduzkoa izaten segitzen duela 10/1998 Foru Legeak aurrei-kusitako kasuetan. Bestela esanda: KPFLko 124.2 artikulua ez du aldatu orain aztergai dugun aferari buruzko lehenagoko araubide juridikoa, baizik eta bere gain hartu du, propio gisa, Nafarroako Kontseiluari buruzko Foru Legeko 16. artikulua jadanik zeukan edukia 10/1998 Foru Legea inda-rrean egon zen bitartean. Bestela, KPFLko 124.2 artikulua edukirik gabeko arau bat litzateke, eta, jakina denez, interpreteak ahal duen guztian sai-hestu behar du legeko arau bat zentzugabetzen duen edozein konklusio”.

170. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

136. artikularen 1. apartatuari paragrafo berri bat gehitzeko zuzenketa.

136. artikulua. Aldaketa espedientea izapide-tzea.

Izapidetze horretan Nafarroako Kontseiluaren irizpena jasoko da, kontratistak aurkako jarrera adierazi duenean”.

Zioak: Nafarroako Kontseiluari buruzko Foru Legea 2016an aldatu ondoren, arau horren testu-tik desagertu egin da kontratazio publikoari buruz-ko txostenei dagokiena; hortaz, Kontratu Publiko-en Foru Legeak bere testuan jasotzen ez badu, hutsune bat gertatuko litzateke, ordenamendu juri-dikoa bere osotasunean hartuta interpretazio bat egitera behartuko lukeena; eta horri buruz jadanik mintzatu da Nafarroako Kontseilua bera bere 3/2014 irizpenean, zeinean esaten baitu: “Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legeko (aurrerantzean, KPFL) 124.2 artikulua, kasu honi aplikatzekoa den haren bertsioan –Kon-tratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea aldatzen duen otsailaren 25eko 3/2013 Foru Legearen bigarren xedapen iragankorraren arabera–, ez du jasotzen aipaturiko 23. artikuluan adierazitako arauaren antzekorik; baina, adminis-trazio-kontratuak suntsiarazteko prozedura taxu-tzean, esaten du, e) letran, Nafarroako Kon-

tseiluak irizpena eman beharko duela, haren lege-ria berariazkoari jarraikiz aginduzkoa denean.

Kontseiluak maiatzaren 27ko bere 17/2013 iriz-penean jadanik azaldu zuen bezala, KPFLko 124.2 artikulua egiten duen igorpenari eduki bat eman beharrak, aipaturiko gainerako arauekin batera interpretazio sistematiko bat egin behar-arkin batera, edo –bestela esanda– KPFLko 124.2 artikuluan egiten den igorpenaren interpretazio historikoak, eramaten gaitu ondorioztatzen ezean Nafarroako Kontseiluaren irizpenak aginduzkoa izaten segitzen duela 10/1998 Foru Legeak aurrei-kusitako kasuetan. Bestela esanda: KPFLko 124.2 artikulua ez du aldatu orain aztergai dugun afera-ri buruzko lehenagoko araubide juridikoa, baizik eta bere gain hartu du, propio gisa, Nafarroako Kontseiluari buruzko Foru Legeko 16. artikulua jadanik zeukan edukia 10/1998 Foru Legea inda-rraan egon zen bitartean. Bestela, KPFLko 124.2 artikulua edukirik gabeko arau bat litzateke, eta, jakina denez, interpreteak ahal duen guztian sai-hestu behar du legezko arau bat zentzugabetzen duen edozein konklusio”.

171. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

144. artikulua 1. apartatua aldatzeko zuzen-keta.

144. artikulua. Administrazio kontratuak balio-gabe deklaratzeko.

“1. Kontratazio organoak, ofizioz edo alde batek eskatuta, erabaki dezake foru lege honetan aurreikusitako arrazoiengatik kontratuak balio-gabe deklaratzeko, administrazio prozedurari buruzko legeetan xedatutakoarekin bat, Nafarroako Kontseiluak irizpena eman ondoren, kontratistak kontrako jarrera adierazten duenean”.

Zioak: Testuaren hobekuntza teknikoa.

172. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

145. artikulua apartatu berri bat gehitzeko zuzenketa.

145. artikulua. Kontratuen prezioa ordaintzea.

“3. Tributu-arauetan eta Gizarte Segurantzari buruzkoetan ezarritakoaren kalterik gabe, kontratuaren exekuzioagatik zilegi diren konturako ordainketak honako kasuetan bakarrik enbargatu ahalko dira:

a) Kontratuaren exekuzioan kontratistaren langileriak irabazitako soldatak eta horietatik eratorritako kuota sozialak ordaintzeko.

b) Kontratuaren exekuzioa dela-eta kontratistak azpikontratistekiko eta hornitzaileekiko hartutako betebeharrak ordaintzeko”.

Zioak: Proposatzen da 145. artikulua hirugarren apartatu berri bat gehitzea, bigarren apartatua xedatuaz gain (prezioaren ordainketa atxikitzea harik eta frogatzen den arte langileei haien soldatak ordaindu zaizkiela) ezartzeko ezean jaso beharreko kopuruak enbargatuko direla kobrantza hura bermatze aldera ez langileei bakarrik, baizik eta azpikontratistei ere, halatan konponduz kontratazio publikoan ohikoa izaten den problema bat.

Horretarako, apartatu berri bat gehitzen da, Sektore Publikoko Kontratuari buruzko Legean jadanik ezarritakoarekin.

173. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

145. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honakoa gehitzen da 2. puntuaren amaieran:

“d) Hori ezin izanen da kaltegarriagoa izan merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legeak ezartzen dituenak baino”.

Zioak: Beharrezkoa da aipatu lege-testura egitiko igorpena gogoraraztea.

174. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

145. bis artikulua berri bat gehitzeko zuzenketa. Azpikontrastei eta hornitzaileei ordaintzea:

“1. Kontrata behartuta dago azpikontrastei edo hornitzaileei prezio adostua ordaintzera, jarraian adierazten diren epe eta baldintzetan.

2. Ezarritako epeak ezin izanen dira kaltegarriagoak izan merkataritz-eragiketetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean jasotakoak baino, eta kontatuko dira kontrata nagusiak ondasunen edo zerbitzuen onarpena edo gauzatea egiten duen egunetik aurrera, baldin eta azpikontrata edo hornidurak legez ezarrita dauden epeetan entregatu badute faktura.

3. Onarpena gehienez ere hogeita hamar eguneko epean egin beharko da, ondasunak entregatzen direnetik edo zerbitzua ematen denetik. Epe beraren barruan adierazi beharko dira, kasu bada, desadostasun-arrazoiak. Baldin eta ez bada epe horretan egiten, ulertuko da ondasunak onartu direla edo zerbitzu-ematea adostasunez gauzatu dela.

4. Kontrata behartuta dago ezarritako epean ordaintzera fakturak, 2. apartatuan ezarritakoari jarraikiz.

Ordainketa berandutu egiten bada, azpikontrata edo hornitzaileak eskubidea izanen du berandutze-interesak eta kobrantza-kostuengatik ordaina kobratzeko, merkataritz-eragiketetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean jasotako moduan”.

Zioak: Beharrezkoa da berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak jasotzea eta Administrazioak bere betebeharrak bete ditzan sustatzea.

175. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

149. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Atal hau lehen titulura lekualdatzea proposatzen da; zehazki, IV. kapitulura.

Zioak: Proiektuak 149. artikuluan eta hurrengoetan egiten duen eraentzearen arabera, prezio-berrikuspina administrazio publikoen kontratuei beste ezeini ezin zaio aplikatu. Alabaina, desinde-

xazioari buruzko 2/2015 Legeak ezartzen du sektore publikoko kontratu guztiei aplikatuko zaiela (3.1.a artikulua).

176. ZUZENKETA**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

157. artikuluari letra berria eransteko zuzenketa.

“h bis) Kontratuaren exekuzio-aldian zehar kontrata horretan diharduten langileei soldatarik ez ordaintzea, edo, kontratuaren exekuzio-aldian ere, indarreko hitzarmen kolektiboek langile horientzat ezartzen dituzten baldintzak ez betetzea”.

177. ZUZENKETA**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

157. artikuluko 1. apartatuari beste bi letra berri gehitzeko zuzenketa.

157. artikulua. Administrazio kontratuak suntsiarazteko arrazoiak.

“i bis) Lan-gatazkak denboran zehar mantentzea edo kontratua betetzen duten langileek greba-eskubidea iraunkorki erabiltzea, kontratuaren exekuzio egokia ezindu egiten duenean.

i ter) Kontratuaren exekuzio-aldian zehar kontrata horretan diharduten langileei soldatarik ez ordaintzea, edo, kontratuaren exekuzio-aldian ere, indarreko hitzarmen kolektiboek langile horientzat ezartzen dituzten baldintzak ez betetzea, ez-betete hori astuna denean.

Zioak: Proposatzen da, alde batetik, kontratu-prestazio zuzena ziurtatzea, eta, kasu bada, zerbitzu publikoen onuradunak babestea; horrez gain, proposatzen da enpresak premiatzea lan-eskubideak berma ditzaten, lan-giro egokia sordezaten, eta, azken batean, laneko gatazkak eraginkortasunez ebatz ditzaten.

178. ZUZENKETA**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

157. artikuluko 1. apartatua h bis) letra berri bat gehitzeko zuzenketa.

“h bis) Kontratuaren exekuzio-aldian zehar kontratistak horretan diharduten langileei soldatarik ez ordaintzea, edo, kontratuaren exekuzio-aldian ere, indarreko hitzarmen kolektiboek langile horientzat ezartzen dituzten baldintzak ez betetzea”.

Hala ere, aurreko paragrafoan aipatzen den arrazoiagatiko kontratu-suntsiarazpena erabakiko da, oro har, bakar-bakarrik kontratista den enpresan langileen ordezkariak hala eskaturik; salbu eta soldaten ez-ordaintzeak kaltetzen dituen langileak 103. artikulua araberako subrogazioa aplikatzeko duten langileak direnean eta kontratista den enpresak zorretan utzitako soldaten zenbatekoak gainditu egiten duenean kontratuko adjudikazio-prezioaren ehuneko 5, ezen kasu horretan kontratu-suntsiarazpena zuzenean erabaki ahalko du kontratazio-organoak, ofizioz”.

Zioak: Gure ustez, egokia da neurri hau ezartzea langileen lan baldintzak bermatzeko.

179. ZUZENKETA**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

157. artikulua 2. apartatuari paragrafo berri bat gehitzeko zuzenketa.

157. artikulua. Administrazio kontratuak suntsiarazteko arrazoiak.

“Artikulu honetako i bist) eta i ter) letrek aipatzen duten arrazoiagatiko kontratu-suntsiarazpena erabakiko da, oro har, bakar-bakarrik kontratista den enpresan langileen ordezkariak hala eskaturik; salbu eta soldaten ez-ordaintzeak kaltetzen dituen langileak 63 eta 64. artikuluen araberako subrogazioa aplikatzeko duten langileak direnean eta kontratista den enpresak zorretan utzitako soldaten zenbatekoak gainditu egiten duenean kontratuko adjudikazio-prezioaren ehuneko 5, ezen kasu horretan kontratu-suntsiarazpena zuzenean erabai ahalko du kontratazio-organoak, ofizioz”.

Zioak: i bis) eta i ter) letretan definituriko kasuak jasotzen dituen gehitzeko zuzenketarekin uztarturik.

180. ZUZENKETA**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

173. artikulua 2. apartatua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Nafarroako Alderdi Sozialistak 31. artikulua –“Herri-lanak emateko kontratuaren definizioa”– aldatzeko aurkezturiko zuzenketarekin bat dator; izan ere, horretan jasotzen da “eragiketa arriskua” kontzeptuaren definizioa, baita “eskaera arriskua” kontzeptuaren ere.

181. ZUZENKETA**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

180. artikuluko 2. apartatuaren d) letra aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko da:

“d) Ingurumen eraginaren azterlana, nahitaezkoa denean indarrean dagoen legediari jarraikiz. Gainerako kasuetan, alternatibean ingurumen-azterketa eta kasu bakoitzean beharrezkoak diren neurri zuzentzaile eta babesleak”.

Zioak: Proposatzen dugu “deklarazio” ordez “azterlan” erabiltzea; izan ere, deklarazioa aurkeztu beharko da bideragarritasun azterlana berresten bada eta kontratazioa gauzatu behar bada.

182. ZUZENKETA**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

180. artikuluari (“Bideragarritasun azterlana”) beste apartatu batzuk gehitzeko zuzenketa.

“3. Administrazio emakida-emaileak jendaurrean jarriko du bideragarritasun azterlana –epea beste hilabete batez luzatu ahalko da, aurreproiektuaren konplexutasunagatik–, eta eta ukitutako Estatuko Administrazio Orokorreko, autonomia erkidegoetako eta toki entitateetako organoetara igorriko da, haiek hilabeteko epean txostena egiteko, obra kasuko hirigintza-planeamenduan agertzen ez denean.

4. Jendaurreko izapide hori baliagarria izanen da, baita ere, ingurumen eraginaren azterlanari

dagokiona betetzeko, ingurumen eraginaren adierazpena nahitaezkoa den kasuetan.

5. Ekimen pribatua onartuko da balizko emakiden bideragarritasun azterlanen aurkezpenean. Azterlana aurkeztu ondoren, organo eskudunari igorriko zaio hiru hilabeteko epean jakinaraz diezaion partikularrari hura izapidetzeko edo ez izapidetzeko erabakia, edota epe luzeagoa ezar dezan hura aztertzeko. Epe hori ez da inolaz ere izanen sei hilabete baino luzeagoa. Dagokion administrazio edo entitatearen isiltasunak azterlana ez onartzea ekarriko du.

Bideragarritasun azterlanaren ondorioz kasuko emakida ematen denean, azterlan hori bere xedeari begira nahikoa ez den kasuan izan ezik, haren egileak eskubidea izanen du administrazio klausula partikularren orrietan ezarritako esleipen irizpideak aplikatuta lorturiko puntuez gain, puntuazio horren ehuneko 5 halako puntu gehigarri eskuratzeko dagokion lizitazioan. Emakida-hartzaile suertatzen ez den kasuan, eskubidea izanen du azterlana prestatzeko eginiko gastuak jasotzeko, gehi ehuneko 5, konpentsazio gisa. Gastu horiek emakida-hartzaileari egotzi ahalko zaizkio kontratu-baldintza gisa administrazio klausula partikularren pleguan. Gastuen zenbatekoa zehaztuko da azterlana aurkeztu duenak justifikatzen dituenen arabera.

6. Administrazio emakida-emaileak erabaki ahalko du, era arrazoituari, aurreko apartatuari aipaturiko bideragarritasun azterlana bideragarritasun ekonomiko-finantzarioari buruzko azterlan batez ordeztzea, obren izaera edo xedearengatik edota beharrezkoa den inbertsioaren zenbatekoagatik uste badu halako azterlana nahikoa dela. Kasu horietan, administrazioak, horretaz gain, dagokion aurreproiektua edo proiektua prestatuko du emakida lizitatu aurretik, hurrengo artikuluko 3. eta 4. apartatuari aurreikusitako izapideak ziurtatze aldera”.

Zioak: Testua osatu eta hobetu egiten du, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak ezarritakoarekin bat.

183. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

180. bis artikulua berri bat gehitzeko zuzenketa.

“180. bis artikulua. Obren eraikuntza eta ustiapen aurreproiektua.

1. Obren konplexutasunaren eta haien ezaugarrien zehaztasun-mailaren arabera, administrazio

emakida-emaileak, kasuko bideragarritasun-proiektua onetsirik, dagokion aurreproiektua idaztea erabaki ahalko du. Bertan jaso ahalko dira, obren izaerarekin bat, merkataritza ustiapeneko eremu osagarriak.

2. Obren eraikuntza eta ustiapen aurreproiektuak ondoko dokumentazioa jaso beharko du, gutxienez:

a) Oroitidazki bat, non azalduko baitira asebate beharrezko beharrezkoak, zehazturiko helburuari erantzuteko kontuan hartutako alderdi sozial, tekniko, ekonomiko, ingurumenezko eta administratiiboak, eta proposatzen den konponbidearen justifikazioa. Oroitidazkiarekin batera jasoko dira dagokion datu eta kalkulu oinarrikoak.

b) Obrak zehazteko beharrezkoak diren koka-penari buruzko plano orokorrak eta osotasunekoak.

c) Obren exekuzio-gastuak jasoko dituen aurrekontua, egin beharrezko desjabetzeen kostua barne, gutxi gorabeherako neurketa eta balorazioetatik abiatuta. Desjabetzeen kostua kalkulatzeko aintzat hartuko da indarrean dagoen balorazioen arauzko sistema.

d) Obren erabilera- eta ustiapen-araubideari buruzko azterketa, finantzaketa-modua eta emakidan aplikatuko den tarifa-araubidea adierazita eta, kasua bada, merkataritza ustiapeneko eremuari legozkiokeen etekinek horietan duten eragina edo ekarpena jasota.

3. Aurreproiektua jendaurrean jarriko da hilabetez —epea beste hilabete batez luzatu ahalko da, aurreproiektuaren konplexutasunagatik—, obren ezaugarri eta kokapenaren inguruan egokitzen diren oharrazpenak egin ahal izateko, bai eta haren onura publikoaren deklarazioari buruzko beste edozein inguruabar ere, eta ukitutako Estatuko Administrazio Orokorreko, autonomia erkidegoetako eta toki entitateetako organoetara igorriko da, horiek txostena egiteko. Jendaurreko izapide hori baliagarria izanen da, baita ere, ingurumen eraginaren azterlanari dagokiona betetzeko, ingurumen eraginaren adierazpena nahitaezkoa denean eta izapide hori lehenago egin ez denean aurreko artikuluko 6. apartatuan aurreikusitako kasu bat izateagatik.

4. Administrazio emakida-emaileak obren aurreproiektua onetsiko du —bertan kontuan hartuko ditu aurkeztutako alegazioak eta ingurumen eraginaren adierazpeneko xedapenak jasoko ditu— eta obraren onura publikoaren aitortzen zehatza premiatuko du nahitaezko desjabetzeari buruzko legedian aurreikusitako ondorioetarako.

5. Administrazio-klausula partikularren pleguan baimentzen denean eta bertan ezarritako moduan, emakidarako lizitatzailleek komenigarritzat jotzen dituzten aldaerak sartu ahalko dituzte aurreproiektuan”.

Zioak: Testua osatu eta hobetu egiten du, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak ezarritakoarekin bat.

184. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

186. artikuluari –Emakidadunaren eskubideak– apartatu berriak gehitzeko zuzenketa.

“d) Emakida lagatzeko eskubidea 104. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz, eta berau hipotekatzekoa, legean ezarritako baldintzetan, bi kasuetan kontratazio-organoaren alde aurreko baimenarekin.

d’) Bere kreditu-eskubideak titulu bihurtzeko ahalmena, legean aurreikusitakoari jarraikiz”.

Zioak: Testua osatu eta hobetu egiten du, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak ezarritakoarekin bat.

185. ZUZENKETA

GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA, ETA PODEMOS-AHAL DUGU TALDE PARLAMENTARIOEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Artikulu berri bat gehitzeko zuzenketa.

“216 bis. artikulua. Nekazaritza-elikagaien kalitatea.

Kontratuen, hornidura-sorten edo zerbitzuetan sorten edukian sartuta dagoenean nekazaritza-elikagaien prestazioa eta erabilera, adjudikazio-botereek haien kalitatea exigitzen edo lehenesten duten puntuak erantsi beharko dituzte, osasunari eta elikadurari, izaera ekologiko edo organikoari, eta elikadura-subiranotasun eta -segurtasunari buruzkoak, kontuan hartuko dutenak produktuen bizitza-zikloa edo garraioaren eta ontziratzearen emisioen eta lehengaien minimizazioa.

Horretarako, agindu teknikoak eta/edo adjukazio-irizpideak eta/edo exekuzio-betebeharrak ezarri beharko dira osotasunari buruz edo produk-

tu-aurrekontu, -portzentaje edo -kopuru zehatz bati buruz, honako parametro hauek edo antzeko beste batzuk bilduko dituztenak:

a) Hurbileko zirkuituetako produktuak izatea; betiere, haien bilketa-, hilketa- edo eraldaketatokitik hornidura-tokirainoko garraioan karbono dioxidoaren (CO²) eta negutegi-efektuko gasen isurtzea minimizatu egin bada.

b) Elikagai freskoak izatea, atmosfera kontrolatuko ganberarik behar izan ez dutenak, ez eta ultraizozte-prozedurarik jasan ere.

c) Sasoiko produktuak izatea, Espainiako Elikadura Kodeko deskripzioaren arabera.

d) Nekazaritza edo abeltzaintza ekologikoko produktuak izatea, Nafarroako Nekazaritza Ekologikoaren Kontseiluaren zigituekin kreditatuak eta ziurtatuak (ES-ECO-025-NA), edo antzeko beste batzuekin.

e) Bioaniztasun-ezaugarriak dauzkaten produktuak izatea, edo barietate tradizionalak, edo arraza autoktonoak, bai eta lurzoru gainean garaturiko laboreetako produktuak izatea.

f) Genetikoki eraldatutako produktuen edo produktu transgenikoen debekua eta bazterketa.

g) Jatorri-deitura babestuko produktuak, edo adierazpen geografiko babestukoak, edo berezitasun tradizional bermatukoak, edo kalitate-termino fakultatiboak dauzkatena izatea. Izen edo toki geografiko zehatz baten aipamena egiten baldin bada, ezaugarri berak dauzkatena antzeko beste batzuk onartu beharko dira.

h) Ontziratzea eskusiboa eta berrerabilgarria, edo birziklagarria, eta/edo konposta egiteko modukoa, daukaten produktuak izatea.

i) Merkaturatze-bide laburrak edo zuzenekoak erabiltzea, edo bestela banaketa- eta merkaturatze-kateko bitartekarien kopurua minimizatzea.

j) Lan- eta soldata-baldintza duinak, produkzio-kostuak errespetatuz eta Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak finkaturiko erreferentziako errenta bermatuz, Nekazaritza-ustialekuak modernizatzeke 19/1995 Legea aplikatuz eta 150/2002 Legegintzako Foru Dekretu bidez edo horien ordezkotza arauen bidez ezarrita.

k) Sentsibilizazio-ekintza osagarriak ingurumen, elikadura eta osasun, nekazaritza ekologiko edo elikadura-subiranotasun eta -segurtasunaren alorrean”

Zioak: Zuzenketaren asmoa da berezko izaera ematea, irizpide objektibo eta egiaztagarrien ugaritasuna eskaintzea eta erabateko berme juridikoz

hornitzea funtsezkoa den afera bati, nola baita elikagai-erosketa publikoa (ospitaleetako jantokiak, egoitzetakoak, institutuetoakoak, ikastetxe eta haur eskoletakoak, catering-zerbitzuetoakoak); izan ere, adierazitako irizpideek oparo dira onura eta sinergietan:

- Elikadura osasungarria.
- Enpleguaren sortzea eta mantentzea.
- Landa-eremuaren despopulatzea saihestea.
- Apustua egiten da hurbileko zirkuituen, tokian tokiko produktuaren, zero kilometroko produktuaren, produktu ekologiko, fresko, jatorrizko deituradun, transgenikorik gabeko eta abarren alde.
- Ingurumenarekiko sentsibilizazioa.
- Enbalaje-murrizketa.
- Isurketen murrizketa: negutegi-efektuko gasak eta karbono dioxidoa.
- Elikadura-subiranotasuna.
- Elikagaien segurtasuna.

186. ZUZENKETA

GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA, ETA PODEMOS-AHAL DUGU TALDE PARLAMENTARIOEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

230. artikuluari beste bi apartatu berri gehitzeko zuzenketa.

230. artikulua. Obren proiektua idazteko zerbitzu kontratua eta obren zuzendaritza fakultatiborako zerbitzu kontratua batera adjudikatzea.

“2. bis. Arkitektura zerbitzuei buruzko kontratuen adjudikazioan, kontratazio-organoek irizpideen haztapena egin ahalko dute, profesional gazteen eta tamaina txikiko entitate edo profesional-sozietateen parte-hartzeari bidea emateko.

2 ter. Arkitekturako eta ingeniartzako zerbitzuetarako kontratuen lizitaziorako pleguek eta proiektuen lehiaketetarako oinarriek ondoko zehaztapenak gutxienez jasoko dituzte:

a) Proiektuaren dokumentazioa, aplikagarri zaion araudiari jarraikiz. Kontratazio-organoek erabaki ahalko dute entitate edo korporazio sektorialekin prestaturiko kalitate-eskuliburuak edo beste-

lako dokumentu teknikoak bezalako tresnak edo bitartekoak erabiltzea.

b) Lizitaziorako oinarriko aurrekontua. Hori zehazteko, kontratazio-organoek kalkulu-oinarrirako tresnak edo bitartekoak jarri ahalko dituzte adjudikazio-botereen zerbitzura, entitate edo korporazio sektorialekin lankidetzan.

c) Proiektuak prestatzeko berariazko tresna elektronikoaren erabilera. 2014/24/EB Zuzentarauaren 4. artikuluan ezarritako atalaseen balio bereko edo handiagoko proiektuen kontratu publiko eta proiektu-lehiaketetan, kontratazio-organoek eskatu ahalko dute tresna elektronikoak erabiltzea proiektuetarako eta eraikinen diseinu elektronikorako, edota antzeko bitartekoak, lizitazio-pleguen edo lehiaketaren oinarrien kasuko protokoloak jasoz. Kasu horietan, adjudikazio-botereek sarbide alternatiboak eskainiko dituzte”.

Zioak: Egokia dirudi aurreikuspen orokor hau ezartzeak –Alemaniako ordenamendu juridikoan egiten den moduan–, ahalbidetzen duena neurri bultzagarri edo pizgarriren bat ezartzea lizitazioen baldintza-pleguetan eta lehiaketetako oinarrietan, lagungarriak izanen direnak profesional gazteek eta profesionalen arteko tamaina txikiko lankidetzaren entitateek kontratazio publikoan parte hartu ahal izateko, 2014/24/EB Zuzentzarauan ezarritakoaren ildotik. Izan ere, zuzentzarau honen bidez apustu irmoa egin da kontratazio publikoa enpresa txiki eta ertainei egokitzeko.

Lizitaziorako pleguetan beretan beharrezkoak diren gutxieneko arauak ezartzea halako kontratuak, arkitektura edo ingeniartzako proiektuak xede dituztenak, modu egokian bete ahal izateko. Horrela bermatuko da proiektuek kalitate egokia izatea, horretarako kasuko eskuliburu eta dokumentu teknikoak erabilia. Lizitaziorako oinarriko aurrekontua zehaztasunez eta zuzentasunez ezartzea, sektore publikoko entitateek eskuragarri izan ditzaketan bitarteko informatikoen bidez, Europar Batasuneko beste herrialde batzuetan jadanik egiten den moduan. Eta bidea ematea teknologia berriek eskaintzen dituzten lan metodoen gaineko lanabes elektronikoak erabiltzeko, 2014/24/EB Zuzentzarauan ezarritakoaren ildotik. Hala ere, horrek ez luke murriztu beharko eragile ekonomikoaren ahalmena, lizitazioetan parte hartzekoa.

187. ZUZENKETA**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

230. artikuluari beste apartatu bat gehitzeko zuzenketa.

“3. Arkitektura zerbitzuei buruzko kontratuen adjudikazioan, kontratazio-organoez irizpideen ponderazioa egin ahalko dute, profesional gazteen eta tamaina txikiko entitate edo profesional-sozietateen parte-hartzeari bidea emateko”.

Zioak: Egokia dirudi aurreikuspen orokor hau ezartzeak –Alemaniako ordenamendu juridikoan egiten den moduan–, ahalbidetzen duena neurri bultzagarri edo pizgarriren bat ezartzea lizitazioen baldintza-pleguetan edo lehiaketetako oinarrietan, lagungarriak izanen direnak profesional gazteek eta profesionalen arteko tamaina txikiko lankidetzaren entitateek kontratazio publikoan parte hartu ahal izateko, 2014/24/EB Zuzentarauan ezarritakoaren ildotik. Izan ere, zuzentarau honen bidez apustu irmoa egin da kontratazio publikoa enpresa txiki eta ertainetara egokitzeko.

188. ZUZENKETA**NAFARROAKO ALDERDI POPULARREKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

230. artikuluari apartatu berri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“230. artikulua. Obren proiektua idazteko zerbitzu-kontrata eta obren zuzendaritza fakultatiborako zerbitzu-kontrata batera adjudikatzea.

Proiektu arkitektoniko edo ingeniartzakoak prestatzea xede duten zerbitzu-kontratuen berezitasunak. Arkitekturako eta ingeniartzako zerbitzuetarako kontratuen lizitaziorako pleguek eta proiektuen lehiaketetarako oinarriek ondoko zehaztapenak gutxienez jasoko dituzte:

a) Proiektuaren dokumentazioa, aplikagarri zaion araudiari jarraikiz. Kontratazio-organoez erabaki ahalko dute entitate edo korporazio sektoriale prestatuturiko kalitate-eskuliburuak edo bestelako dokumentu teknikoak bezalako tresnak edo bitartekoak erabiltzea.

b) Lizitaziorako oinarritzko aurrekontua. Hori zehazteko, kontratazio-organoez kalkulu-oinarrirako tresnak edo bitartekoak jarri ahalko dituzte adjudikazio-botereen zerbitzura, entitate edo korporazio sektorialekin lankidetzan.

c) Proiektuak prestatzeko berariazko tresna elektroniko erabilera. 2014/24/EB Zuzentarauaren 4. artikuluan ezarritako atalaseen balio bereko edo handiagoko proiektuen kontratu publiko eta lehiaketetan, kontratazio-organoez eskatu ahalko dute tresna elektronikoak erabiltzea proiektuetarako eta eraikinen diseinu elektronikorako, edota antzeko bitartekoak, lizitaziorako pleguetako edo lehiaketaren oinarrietako kasuko protokoloak erantsiz. Kasu horietan, adjudikazio-botereek sarbide alternatiboak eskainiko dituzte”.

Zioak: Beharrezkoak diren gutxienezko arauak ezartzea lizitaziorako pleguetan beretan, halako kontratuak, arkitektura edo ingeniartzako proiektuak xede dituztenak, modu egokian exekutatu ahal izateko. Horrela bermatuko da proiektuek kalitate egokia izatea, horretarako kasuko eskuliburu eta dokumentu teknikoak erabilita. Lizitaziorako oinarritzko aurrekontua zehaztasunez eta zuzentasunez ezartzea, sektore publikoko entitateek eskuragarri izan ditzaketen bitarteko informatikoen bidez, Europar Batasuneko beste herrialde batzuetan jadanik egiten den moduan. Eta bidea ematea teknologia berriek eskaintzen dituzten lan metodoen gaineko lanabes elektronikoak erabiltzeko, 2014/24/EB Zuzentarauan ezarritakoaren ildotik. Hala ere, horrek ez luke murriztu beharko eragile ekonomikoen ahalmena, lizitazioetan parte hartzekoa.

189. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

230. artikuluari honako apartatu hau gehitzea:

“3. Arkitektura zerbitzuei buruzko kontratuen adjudikazioan, kontratazio-organoez irizpideen haztapena egin ahalko dute, profesional gazteen eta tamaina txikiko entitate edo profesional-sozietateen parte-hartzeari bidea emateko”.

Zioak: Egokia dirudi aurreikuspen orokor hau ezartzeak –Alemaniako ordenamendu juridikoan egiten den moduan–, ahalbidetzen duena neurri bultzagarri edo pizgarriren bat ezartzea lizitazioen baldintza-pleguetan eta lehiaketetako oinarrietan, lagungarriak izanen direnak profesional gazteek eta profesionalen arteko tamaina txikiko lankidetzaren entitateek kontratazio publikoan parte hartu ahal izateko, 2014/24/EB Zuzentarauan ezarritakoaren ildotik. Izan ere, zuzentarau honen bidez apustu irmoa egin da enpresa txiki eta ertainen kontratazio publikoa egokitzeko.

190. ZUZENKETA**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

230. bis artikulua berri bat gehitzeko zuzenketa.

“230. bis artikulua. Proiektu arkitektoniko edo ingeniartzakoak prestatzea xede duten zerbitzu-kontratuen berezitasunak.

Proiektu arkitektoniko eta ingeniartzako zerbitzuetarako kontratuen lizitaziorako pleguek eta proiektuen lehiaketetarako oinarriek ondoko zehaztapenak gutxienez jasoko dituzte:

a) Proiektuaren dokumentazioa, aplikagarri zaion araudiari jarraikiz. Kontratazio-organoei erabaki ahalko dute entitate edo korporazio sektorialekin prestatutako kalitate-eskuliburuak edo bestelako dokumentu teknikoak bezalako tresnak edo bitartekoak erabiltzea.

b) Lizitaziorako oinarritzko aurrekontua. Hori zehazteko, contratazio-organoei kalkulatu-oinarrirako tresnak edo bitartekoak jarri ahalko dituzte adjudikazio-botereen zerbitzura, entitate edo korporazio sektorialekin lankidetzan.

c) Proiektuak prestatzeko berariazko tresna elektronikoen erabilera. 2014/24/EB Zuzentarauaren 4. artikuluan ezarritako atalaseen balio bereko edo handiagoko proiektuen kontratu publiko eta lehiaketetan, contratazio-organoei eskatu ahalko dute tresna elektronikoen erabiltzea proiektuetarako edo eraikinen diseinu elektronikorako, edota antzeko bitartekoak, eta dagokion protokoloak jasoko dira lizitaziorako pleguetan edo lehiaketaren oinarrietan. Kasu horietan, adjudikazio-botereek sarbide alternatiboak eskainiko dituzte”.

Zioak: Lizitaziorako pleguetan beretan beharrezkoak diren gutxieneko arauak ezartzea halako kontratuak, arkitektura edo ingeniartzako proiektuak xede dituztenak, modu egokian bete ahal izateko. Horrela bermatuko da proiektuek kalitate egokia izatea, horretarako kasuko eskuliburu eta dokumentu teknikoak erabilita. Lizitaziorako oinarritzko aurrekontua zehaztasunez eta zuzentasunez ezartzea, sektore publikoko entitateek eskuragarri izan ditzaketenen bitarteko informatikoen bidez, Europar Batasuneko beste herrialde batzuetan jadanik egiten den moduan. Eta bidea ematea teknologia berriek eskaintzen dituzten lan metodoen gaineko lanabes elektronikoen erabiltzeko, 2014/24/EB Zuzentarauan ezarritakoaren ildotik. Hala ere, horrek ez luke murriztu beharko eragile ekonomikoen ahalmena, lizitazioetan parte hartzekoa.

191. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

230. artikulua berri bat gehitzeko zuzenketa:

230. bis. “Proiektu arkitektoniko edo ingeniartzakoak prestatzea xede duten zerbitzu-kontratuen berezitasunak. Arkitekturako eta ingeniartzako zerbitzuetarako kontratuen lizitaziorako pleguek eta proiektuen lehiaketetarako oinarriek ondoko zehaztapenak gutxienez jasoko dituzte:

a) Proiektuaren dokumentazioa, aplikagarri zaion araudiari jarraikiz. Kontratazio-organoei erabaki ahalko dute entitate edo korporazio sektorialekin prestatutako kalitate-eskuliburuak edo bestelako dokumentu teknikoak bezalako tresnak edo bitartekoak erabiltzea.

b) Lizitaziorako oinarritzko aurrekontua. Hori zehazteko, contratazio-organoei kalkulatu-oinarrirako tresnak edo bitartekoak jarri ahalko dituzte adjudikazio-botereen zerbitzura, entitate edo korporazio sektorialekin lankidetzan.

c) Proiektuak prestatzeko berariazko tresna elektronikoen erabilera. 2014/24/EB Zuzentarauaren 4. artikuluan ezarritako atalaseen balio bereko edo handiagoko proiektuen kontratu publiko eta lehiaketetan, contratazio-organoei eskatu ahalko dute tresna elektronikoen erabiltzea proiektuetarako edo eraikinen diseinu elektronikorako, edota antzeko bitartekoak, lizitaziorako pleguetako edo lehiaketaren oinarrietako kasuko protokoloak erantsiz. Kasu horietan, adjudikazio-botereek sarbide alternatiboak eskainiko dituzte”.

Zioak: Beharrezkoak diren gutxieneko arauak ezartzea lizitaziorako pleguetan beretan, halako kontratuak, arkitektura edo ingeniartzako proiektuak xede dituztenak, modu egokian exekutatu ahal izateko. Horrela bermatuko da proiektuek kalitate egokia izatea, horretarako kasuko eskuliburu eta dokumentu teknikoak erabilita. Lizitaziorako oinarritzko aurrekontua zehaztasunez eta zuzentasunez ezartzea, sektore publikoko entitateek eskuragarri izan ditzaketenen bitarteko informatikoen bidez, Europar Batasuneko beste herrialde batzuetan jadanik egiten den moduan. Eta bidea ematea teknologia berriek eskaintzen dituzten lan metodoen gaineko lanabes elektronikoen erabiltzeko, 2014/24/EB Zuzentarauan ezarritakoaren ildotik. Hala ere, horrek ez luke murriztu beharko eragile ekonomikoen ahalmena, lizitazioetan parte hartzekoa.

192. ZUZENKETA**NAFARROAKO ALDERDI POPULARREKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

Zortzigarren xedapen gehigarriaren 2. apartatua aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

Zortzigarren xedapen gehigarria. Kontratazio-rako eskumenak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren barruan.

“2. Foru Komunitateko Administrazioari zuzendaritza nagusiek, idazkaritza nagusi teknikoek eta zerbitzu-zuzendaritzek zilegi izanen dute kasuan kasuko administrazio unitatearen funtzionamendurako beharrezko gertatzen diren gastu txikiak baimentzea, baldin eta, aurrekontuetan dirua izanik, gastuen zenbatekoa ez bada handiagoa, BEZa aparte, 10.000 euro baino, zuzendaritza nagusien eta idazkaritza nagusi teknikoen kasuan, eta 5.000 euro baino, zerbitzu-zuzendaritzen kasuan; salbu eta modu zentralizatuan antolatzen diren hornidurak eskuratzeko”.

Zioak: Testua aldatzea, argi gera dadin BEZa bi zenbateko horietatik aparte dagoela.

193. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Bederatzigarren xedapen gehigarriari testua gehitzeko zuzenketa. 2. apartatu bat gehitzen zaio:

“2. 4.1.e) artikulua aipatzen dituen entitateek baimena eskatu beharko diote tutoretza egiten duen Administrazioari, BEZik gabeko balio zenbatetsia 3.000.000 euro baino gehiagokoa duten kontratuak onesteko, bai eta urte anitzekoak direnetarako”.

Zioak: Nola proiektuak jasotzen duen beharrezkoa dela Gobernuak baimena ematea Foru Komunitateko Administrazioaren kontratuei dago-kienez, halaxe ere jotzen da bidezkotzat administrazio nagusiak ere kontratu horietarako baimena ematea, 4.1.e) artikuluko entitateen kasuan.

194. ZUZENKETA**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

Xedapen gehigarri berri bat, 13 bis, gehitzeko zuzenketa.

“Hamahirugarren bis xedapen gehigarria. Berariazko hitzarmenak esparru soziosanitarioan.

1. Irabazi asmorik gabeko entitate edo erakunde pribatuenak diren zentro eta zerbitzu sanitario eta soziosanitarioek zilegi dute, Foru Komunitateko administrazioaren osasun-plangintzaren arabera jardura dutenean eta ase beharreko osasun publikoko edo osasungintzako beharrezkoak justifikatzen dutenean, erabilera publikoko osasungintza-sareari zuzenean lotzea, berariazko lotura-hitzarmen bat sinatuz, inolako publiziterik gabe.

Aipaturiko zentro eta zerbitzuekiko berariazko lotura-hitzarmenen izenpetzea egiten da kontuan izanik berdintasuna, osagarritasuna, optimizazioa eta baliabide publiko nahiz pribatuen erabilera egokiaren printzipioak. Loturak egiazki beharko du bideratuta egon osasun-zerbitzu publikoak duen gizarte-helburura eta unibertsaltasun, solidaritate eta efizientzia ekonomiko eta aurrekontukoaren xedeak erdiestera.

2. Berariazko lotura-hitzarmenak eraenduko dira artikulua honetako xedapenetan, erregelamenduz ezartzen direnetan eta, ordezkotzat modura, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari aplikatzekoa zaion araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearen alorreko araudi indardunean.

3. Lotutako zentro eta zerbitzuek jardura eta prestazio hitzartuak moldatu beharko dituzte administrazio sanitarioak une bakoitzean egiten duen programazio edo plangintza zehatzera, eta titular-tasun publikoko zentroen ikuskapen eta kontrol sanitario, administratibo eta ekonomiko berberenpean geldituko dira. Sare publikoa osatzen duten zentroen eta zerbitzuen multzoari begira erregelamendu bidez ezartzen diren informazio sanitario eta estatistikoko betebeharrak beteko dituzte.

4. Hitzarturiko jardura edo prestazioak honako modu hauetakoren batean finantzatu ahalko dira: a) prestazioen banakako ordainketa; b) prozesuak ordaintzea; c) zuzeneko ordainketa, aurrekontuan izendaturiko dirutik, hitzarmenaren xede

den jardueraren batez besteko kostu estatistikoen arabera; d) per capita ordaintzea; hots, per capita ordaintzea bat, atxikitako pertsona bakoitzeko, erabiltzen den per capita esleipeneko formularen arabera, edozein dela ere gaixo bakoitzari emandako zerbitzuen kopurua edo izaera. Kasu bakoitzean modurik egokiena hautatuko da, hitzartutako jardueraren izaera eta ezaugarrien arabera.

Lotutako zentroek eta zerbitzuek ezin izanen dute inolako etekin ekonomikorik lortu jarduera edo prestazio hitzartuen egiteagatik, alde batera utzirik jarduera horiek egiteko beharrezkoak diren kostu aldagarri, finko eta iraunkorren finantzaketa. Halaber, ezin izanen diote inolako onurarik ekarri entitateari edo erakunde titularrari, ez eta haren kideei ere.

5. Berariazko lotura-hitzarmenei indarraldi urtean itza emanen zaie, halatan bermatzearen hitzarturiko jarduera edo prestazioen egitearen egonkortasuna, ezertan galarazi gabe alderdi zehatzak ezartzea, haien indarraldia bukatu aurretik berrikusi eta, kasua bada, aldatu beharrezkoak. Erregelamenduz ezartzen diren baldintzetan berri-itu ahalko dira.

6. Sektore pribatu lotuak eutsi eginen dio mendeantzen dituen zentro lotuen titulartasunari, bai eta horietan diharduten langileen lan-harreman edo harreman zibilenari ere”.

Zioak: Kontratazio publikoari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/24/EB Zuzentarauak, 2014ko otsailaren 26koak, 6. “kontuan hartuzko”an adierazi ondoren ezen komeni dela “argitzea zuzentarau honen aplikazio-esparrutik at utzi behar direla interes orokorreko zerbitzu ez ekonomikoak”, estatu kideak gonbidatzen ditu berariazko legedi bat prestatzera osasun-, hezkuntza- eta gizarte-zerbitzu publikoetako harreman publiko-pribatu-erakunde, halatan zenbait balio babeste aldera, hala nola kalitatea eta jarraitutasuna, unibertsaltasuna, solidaritatea eta erabiltzaileek zerbitzuen eskuragarritasun osoa izatea; eta hori, ziurtatuz ezen zerbitzu horien kudeaketara irabazi asmorik gabeko halako entitate pribatuak hel daitezkeela non, sektoreaz duten ezagutzagatik eta beren konpromiso sozialarengatik, aipatu balioak hobeki bermatuko baitituzte, herritarren mesedetan.

195. ZUZENKETA

GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA, ETA PODEMOS-AHAL DUGU TALDE PARLAMENTARIOEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri berri bat, 13 bis, gehitzeko zuzenketa.

“Hamahirugarren bis xedapen gehigarria. Agintarien eta administrazio publikoentzat diharduten langileen erantzukizuna.

1. Agintarien eta administrazio publikoentzat diharduten langileen ondare-erantzukizuna, kontratazio publikoaren alorrean egin dituzten jardueretatik heldua, bai partikularrei bai administrazioari berari eginiko kalteen ondoriozkoa, exigituko da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean nahiz hori garatzeko erregelamenduzko araudian xedatzen denari jarraituz.

2. Administrazio publikoentzat diharduten langileek foru lege honetan biltzen diren arauak hautsi edo behar ez bezala aplikatzen badituzte, diziplina-arloko erantzukizuna izanen dute, arlo horretako berariazko araudiari jarraikiz exigituko dena”.

196. ZUZENKETA

GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA, ETA PODEMOS-AHAL DUGU TALDE PARLAMENTARIOEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri berri bat, 13 bis, gehitzeko zuzenketa.

“Hamahirugarren bis xedapen gehigarria. Jendeari erantzuteko zerbitzuetan euskararen presentzia sustatzea.

Kontratua betetzeak jendeari erantzuteko zerbitzu bat ematera behartzen duenean, enpresa azpikontratatuak euskara plan bat prestatuko dute, jendeari erantzuteko lanpostuetan diharduten pertsonak hizkuntza horretan prestatu ahal izateko”.

Zioak: Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 44. artikuluan jasota.

197. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

Xedapen gehigarri berri bat, 13 bis, gehitzeko zuzenketa.

“Hamahirugarren bis xedapen gehigarria. Nafarroako Unibertsitate Publikoak eta beste ikerketa-zentro batzuek sinaturiko kontratuak.

Nafarroako Unibertsitate Publikoak edo Nafarroako beste ikerketa-zentro publiko batzuek izapidetu behar dituzten kontratuak ikerketarako ondatsun eta zerbitzuak eskuratzekoak direnean, kontratuaren balio zenbatetsia 15.000 euro baino gutxiagokoa bada egin beharreko izapide baka-rrak izanen dira aurretiazko kreditu-erreserba, aplikatzekoa den aurrekontu-legediaren arabera-koa, eta kasuko faktura aurkeztea”.

Zioak: Kontratazio-prozeduraren azkartasun handiagoa funtsezkoa da noiz eta ikerketa-emaitzen lorpena ekipamendu edo zerbitzu jakin batzuk eskuragarri izatearen baitan dagoenean, zeinak proiektuaren finantzaketa onartzen denetik aurrera baizik ezin baitira erosi.

198. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

Xedapen gehigarri berri bat, 13 bis, gehitzeko zuzenketa.

“Hamahirugarren bis xedapen gehigarria. Arkitektura, ingeniari-tza, aholkularitza eta hirigintza zerbitzuen kontratazio publikorako berariazko arauak.

Prestazio intelektualen izaera aitortzen zaie arkitektura, ingeniari-tza, aholkularitza eta hirigintza zerbitzuei, Kontratazio Publikoari buruzko 2014/24/EB Zuzentarauan jasotako aurreikuspenetatik heldutako ondorioekin.

Gobernuak, sei hilabeteko epean, Gorte Nagusiei igorriko die Arkitekturaren Sektoreari buruzko Lege proiektua, zeinak arautuko baititu, besteak

beste, aipatu zerbitzu profesionalen kontratazio publikoak berezkoak dituen berezitasunak”.

Zioak: Lege proiektuaren bidez 2014/24/EB Zuzentarauaren transposizioa egiten da, zeinak azpimarratzen baitu arkitektura, ingeniari-tza, aholkularitza eta hirigintza zerbitzuen adjudikazioa egiten duten lizitazio publikoek izaera berezia dutela, izaera intelektualeko prestazioak direnez gero, bai parte hartzen duten profesionalei dagokienez bai eskaintza eta proposamenen xedeari dagokionez.

Hori dela eta, zuzentarau horren transposizio egokia egiteko berariaz aztertu behar da aipatu zerbitzu profesionalen arautzea, eskaintzen kalitate-irizpideak betetzen direla eta prestazioa behar bezala ematen dela ziurtatzeko, betiere kontsumitzaile eta erabiltzaileen eta interes publikoaren mesedetan, baliabideen erabilera efizientea bermatzeko, bai eta aurrezpena ere inbertsio- eta kontserbazio-kostuetan. Horretarako, zerbitzu profesional horiek berezko dituzten berezitasunei arauzko tratamendu egokia eman behar zaie, bai kontratuei buruzko foru legean bertan bai arkitekturaren sektoreaz diharduen legean.

199. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Beste xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa.

“Hamahirugarren bis xedapen gehigarria. Arkitektura, ingeniari-tza, aholkularitza eta hirigintza zerbitzuen kontratazio publikorako berariazko arauak.

Prestazio intelektualen izaera aitortzen zaie arkitektura, ingeniari-tza, aholkularitza eta hirigintza zerbitzuei, Kontratazio Publikoari buruzko 2014/24/EB Zuzentarauan jasotako aurreikuspenetatik eratorritako ondorioekin.

Gobernuak, sei hilabeteko epean, Gorte Nagusiei igorriko die Arkitekturaren Sektoreari buruzko Lege proiektua, zeinak arautuko baititu, besteak beste, aipatu zerbitzu profesionalen kontratazio publikoak berezkoak dituen berezitasunak”.

Zioak: Lege proiektuaren bidez 2014/24/EB Zuzentarauaren transposizioa egiten da. Bertan azpimarratzen da arkitektura, ingeniari-tza, aholkularitza eta hirigintza zerbitzuen esleipenak izaera berezia dutela, izaera intelektualeko prestazioak baitira, bai parte hartzen duten profesionalei dagokienez bai eskaintza eta proposamenen xedeari dagokionez.

Hori dela eta, zuzentarau horren transposizio egokia egiteko berariaz aztertu behar da aipatu zerbitzu profesionalen arautzea, eskaintzen kalitate-irizpideak betetzen direla eta prestazioa behar bezala ematen dela ziurtatzeko, betiere kontsumitzaile eta erabiltzaileen eta interes publikoaren mesedetan, baliabideen eta aurrezkien erabilera efizientea bermatzeko inbertsio eta kontserbazio gastuetan. Horretarako, zerbitzu profesional horiek berezko dituzten berezitasunei arauzko tratamendu egokia behar zaie, bai kontratuei buruzko foru legean bertan bai arkitekturaren sektoreari buruzko legean.

200. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI POPULARREKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Beste xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa

“Hamalagarren xedapen gehigarria. Arkitektura, ingeniariaritz, aholkularitza eta hirigintza zerbitzuen kontratazio publikorako berariazko arauak.

Prestazio intelektuaren izaera aitortzen zaie arkitektura, ingeniariaritz, aholkularitza eta hirigintza zerbitzuei, Kontratazio Publikoari buruzko 2014/24/EB Zuzentarauan jasotako aurreikuspenetatik heldutako ondorioekin.

Gobernuak, sei hilabeteko epean, Gorte Nagusiei igorriko die Arkitekturaren Sektoreari buruzko Lege proiektua, zeinak arautuko baititu, besteak beste, aipatu zerbitzu profesionalen kontratazio publikoak berezkoak dituen berezitasunak”.

Zioak: Lege proiektuaren bidez 2014/24/EB Zuzentarauaren transposizioa egiten da, zeinak azpimarratzen baitu arkitektura, ingeniariaritz, aholkularitza eta hirigintza zerbitzuen adjudikazioa egiten duten lizitazio publikoek izaera berezia dutela, izaera intelektualeko prestazioak direnez gero, bai parte hartzen duten profesionalei dagokienez bai eskaintza eta proposamenen xedeari dagokionez.

Hori dela eta, zuzentarau horren transposizio egokia egiteko berariaz aztertu behar da aipatu zerbitzu profesionalen arautzea, eskaintzen kalitate-irizpideak betetzen direla eta prestazioa behar bezala ematen dela ziurtatzeko, betiere kontsumitzaile eta erabiltzaileen eta interes publikoaren mesedetan, baliabideen erabilera efizientea bermatzeko, bai eta aurrezpena ere inbertsio- eta kontserbazio-kostuetan. Horretarako, zerbitzu profesional horiek berezko dituzten berezitasunei

arauzko tratamendu egokia eman behar zaie, bai kontratuei buruzko foru legean bertan bai arkitekturaren sektoreaz diharduen legean.

201. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Beste xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa.

“Hamalagarren xedapen gehigarria. Arkitektura, ingeniariaritz, aholkularitza eta hirigintza zerbitzuen kontratazio publikorako berariazko arauak. Prestazio intelektuaren izaera aitortzen zaie arkitektura, ingeniariaritz, aholkularitza eta hirigintza zerbitzuei, Kontratazio Publikoari buruzko 2014/24/EB Zuzentarauan jasotako aurreikuspenetatik heldutako ondorioekin”.

Gobernuak, sei hilabeteko epean, Parlamentuari igorriko die Arkitekturaren Sektoreari buruzko Lege proiektua, zeinak arautuko baititu, besteak beste, aipatu zerbitzu profesionalen kontratazio publikoak berezkoak dituen berezitasunak”.

Zioak: Lege proiektuaren bidez 2014/24/EB Zuzentarauaren transposizioa egiten da, zeinak azpimarratzen baitu arkitektura, ingeniariaritz, aholkularitza eta hirigintza zerbitzuen adjudikazioa egiten duten lizitazio publikoek izaera berezia dutela, izaera intelektualeko prestazioak direnez gero, bai parte hartzen duten profesionalei dagokienez bai eskaintza eta proposamenen xedeari dagokionez.

Hori dela eta, zuzentarau horren transposizio egokia egiteko berariaz aztertu behar da aipatu zerbitzu profesionalen arautzea, eskaintzen kalitate-irizpideak betetzen direla eta prestazioa behar bezala ematen dela ziurtatzeko, betiere kontsumitzaile eta erabiltzaileen eta interes publikoaren mesedetan, baliabideen erabilera efizientea bermatzeko, bai eta aurrezpena ere inbertsio- eta kontserbazio-kostuetan. Horretarako, zerbitzu profesional horiek berezko dituzten berezitasunei arauzko tratamendu egokia eman behar zaie, bai kontratuei buruzko foru legean bertan bai arkitekturaren sektoreaz diharduen legean.

202. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Beste xedapen gehigarri bat, hamalagarrena, gehitzeko zuzenketa:

“112. artikuluan eta hurrengoetan jasotzen den araubideak dioena dioela ere, Nafarroako Gobernuak aztertu egingen du Nafarroako Administrazio Auzitegiak bere gain hartzea lege honek Kontratu Publikoaren Administrazio Auzitegiari esleitzen dizkion eginkizunak, halako moldez non urtebeteren epean zehaztuko baitira eskumen horiek auzitegi horren gain uzte aldera auzitegi horretan egin beharreko aldaketak.

203. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

Xedapen iragankor berri bat, bigarrena bis, gehitzeko zuzenketa.

“Bigarren bis xedapen iragankorra.

Foru lege honetan jasotako gardentasun-bete-beharrek, bereziki Kontratazio Atariko iragarkien edukari buruzkoek, ez direnean zuzenean heltzen Europako Batzordeak onetsitakoak diren kontratazio publikoaren alorreko iragarki-argitalpenerako inprimaki normalizatuen edukitik, indarra hartuko dute foru lege hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta urtebete geroago”.

Zioak: Kontuan izanik testuko 85. artikuluan jasotako datuetako batzuk Kontratazio Atarian argitaratzeak berariazko garapen informatikoak eskatzen dituela, nahitaez egin beharrekoak, ezin da haiek berehala bete beharrekoak direnik ezarri, Kontratazio Atariko gaur egungo inprimakiak ez baitaude horretarako prestaturik.

204. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

II. bis eranskin berri bat gehitzeko zuzenketa.

“II. bis ERANSKINA

102. artikulua aipatzen dituen gizarte- eta ingurumen-alorretako nazioarteko hitzarmenen zerrenda.

– LANE-Lanaren Nazioarteko Erakundearen 87. hitzarmena, askatasun sindikalari eta sindikatze-eskubidearen babesari buruzkoa,

– LANERen 98. hitzarmena, sindikatzeko eskubideari eta negoziazio kolektiboari buruzkoa,

– LANERen 29. hitzarmena, lan behartuari buruzkoa,

– LANERen 105. hitzarmena, lan behartuaren abolizioari buruzkoa,

– LANERen 138. hitzarmena, gutxieneko adinari buruzkoa,

– LANERen 111. hitzarmena, diskriminazioari (enplegua eta okupazioa) buruzkoa,

– LANERen 100. hitzarmena, ordainsari-berdintasunari buruzkoa.

– LANERen 182. hitzarmena, haur-lanaren modurik okerrenei buruzkoa,

– Vienako hitzarmena, ozono-geruza babesteko, eta horren Montrealgo Protokoloa, ozono-geruza agortzen duten substantziei buruzkoa,

– Hitzarmena, hondakin arriskutsuen eliminazioaren kontrolari eta mugaz gaindiko garraioari buruzkoa (Basileako hitzarmena),

– Stockholmeko Hitzarmena, kutsagai organiko iraunkorrei buruzkoa.

– Rotterdameko Hitzarmena, nazioarteko merkataritzaren xede diren zenbait pestizidari eta produktu kimiko arriskutsuari aplikatzeko zaien aurretiazko adostasun funtsaturako prozedurari buruzkoa (Rotterdam, 1998ko irailaren 10a), eta haren hiru protokolo erregionalak”.

